

# INFORME

DEL CENTRO MEMORIAL DE LAS VÍCTIMAS DEL TERRORISMO

— 6 ZKIA. • 2019ko EKAINA —

## HERIOTZA AMARAN

DRILen indarkeria Begoña Urrozen argitan



**Gaizka Fernández Soldevilla**  
**Manuel Aguilar Gutiérrez**







# **HERIOTZA AMARAN**

**DRILen indarkeria Begoña Urrozen argitan**



**Gaizka Fernández Soldevilla  
Manuel Aguilar Gutiérrez**



## INFORME DEL CENTRO MEMORIAL DE LAS VÍCTIMAS DEL TERRORISMO

N.º 6 • JUNIO 2019

**Director: Florencio Domínguez**

**Responsable de Archivo, Investigación y Documentación: Gaizka Fernández Soldevilla**

© Gaizka Fernández Soldevilla y Manuel Aguilar Gutiérrez

Traducción al euskera: Aritz Gorrotxategi Mujika

© Fundación Centro para la Memoria de las Víctimas del Terrorismo

C/ Olaguibel, nº 1. 01071 Vitoria-Gasteiz

Depósito Legal M-4550-2017 / ISSN 2530-5328

Diseño: Miguel Renuncio

Producción: Editorial MIC ([www.editorialmic.com](http://www.editorialmic.com))

Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroaren txosten honen argitalpenak honako hauen babesba jaso du:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola Departamentua.
- UNED: Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatuko Idazkaritzak diruz lagundutako “ikerketa proiektua, “Europako terrorismoa berunezko urteetan: azterketa konparatiboa”, HAR2015-65048-P erreferentziarekin.

*Begoña Urroz Ibarrolaren eta João José do Nascimento Costaren familiei.*

“Beti egon dira biktimak, baina orain arte ikusezinak ziren, historiaren bilakaeraren derrigorrezko prezioztat jotzen genituelako”.

Reyes Mate

*Justicia de las víctimas y  
reconciliación en el País Vasco*

“Biktimen oroimenak haien ikuspegia onartzeko betebeharraren aurrean jartzen gaitu gertatutakoa kontatzeko orduan, biktimen ahotsa entzuteko orduan, haien minaren aurrean enpatia eta elkar ulertzea sentitzeko orduan, antzeko gertaerak errepikatzea eragozten duten baloreak sustatzeko orduan”.

Martín Alonso

*El lugar de la memoria. La huella  
del mal como pedagogía democrática*





## AURKIBIDEA

Hitzaurrea. <i>Juan Avilése</i> k idatzia .....	11
Sarrera .....	14
1. Habanako aztikeria. Alberto Bayo eta UCE .....	20
2. DRILen sorrera .....	25
3. “Herioiak ala martiriak”. Lehen atentatuak .....	29
4. Amarako geltokia, 1960ko ekainaren 27a .....	37
5. Nork hil zuen Begoña Urroz? .....	42
6. Karibeko piratak. Santa Mariaren bahiketa .....	54
7. Ameskeriaren amaiera. DRILen goren unea eta erorialdia .....	59
Ondorioak .....	65
Epilogo. Ba al dute inolako oinarririk DRILi buruzko konspirazio teoriek? .....	69
Iturriak eta bibliografia .....	74
Eranskinak .....	82
Egileak .....	97



## HITZAURREA

**Juan Avilés**

Universidad Nacional de Educación a Distancia

Bonba baten leherketagatik kiskalita hil zen neska bat; bere aita, ontzi bati egindako erasoan erail zutena, ezagutzera heldu ez zen beste neska bat; aldean zeraman lehergailuak txikituta utzi zuen terrorista bat; familien mina; zenbait lerroburu prentsan; kartzelan igarotako urteak eta, azkenik, ahanztura. Hori da bere burua Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación bezala aldarrikatzen zuen taldearen ibilbide labur eta matxinatuaren benetako balantzea. Espainiako eta Portugalgo diktadurak amaitzeko egindako ekarpena ia deuseza da. Urte batzuk geroago, Portugalgo Gudarosteko zenbait unitate Salazarrek sortutako erregimenari amaiera emateko mobilizatu zirenean, ez zuten garaipena lortu fusiletatik ateratako balei esker, herritar kartsuek haiek apaintzeko erabili zituzten krabelinei esker baizik. Espainian, trantsizioa erregimen beraren erreformisten eta oposizio demokratikoaren arteko adostasunaren emaitza izan zen, jite askotariko terroristek sortutako tentsioaren erdian. Eta bi herrialdeetan, azkenean, hiritarren botoak izan ziren erabakigarriena.

Terrorismoa propaganda da, ekintzaren aldeko propaganda, XIX. mende amaierako zenbait anarkista bortitzek asmatutako eufemismoaren arabera. Propaganda horren osagai nagusia, noski, erasotutako biztanlerian eragindako izua da, baina terroristei, batez ere presoiei eta hildakoei —sarritan martiri gisa aurkeztuak—, emandako aura heroikoa eta ziurtzat jotzen duten arrakasta, epe ertain edo luzera bederen, ez dira garrantzi gutxiagokoak. Hala ere, zaila da benetako arrakasta lortu duten mugimendu terroristen adibideak topatzea, ez bada kontzeptu hori birdefinitu egin delako, adibidez, erakundeetan Bilduren iraunkortasuna barne hartzeko, gutxiengoan dagoen baina esanguratsua den hautesleen sektore bati esker, modu hain krudelean ETAk zabaldu zuen mezuarekiko leial jarraitzen duena. Kontua da ez dagoela Euskadi independente eta sozialista bat, terroreak ez dituela isilarazi Ipar Irlandako bi komunitateetako bakar bat ere, ultraeskuindarren indarkeriak ez zuela trantsizioa geldiarazi Espainian, ez zuela Italia inboluzio autoritario batera eraman, eta ez direla Brigada Gorrien, GRAPOn edo arranditsuki Gudaroste Gorriaren Frakzioa deitutakoaren (alemaniar fanatikoaren talde txiki bat baino ez zena) amets komunista bete. Daeshen kasuan ere —zeinarentzat terrorismoa estrategia hibrido baten baliabide nagusia baitzen, hiri handiak erasora hartzeko gai zena—, bere ustezko kalifatza iragankorra izan da, eta hau idazten ari naizen nean, haren azken erresistentzia poltsa Eufratesen ibaiertzean suntsitua izaten ari da.

Terroristak ez dira heroi erromantikoak, hiltzaile fanatikoak baizik, eta haien arrakasta-aukerak beti dira ezdeusak, baina, hala ere, haiek eragindako heriotza eta

mina benetakoa da, eta izuaren epidemia kezkarria nola hedatzen den argitzeko egiten diren ikerketak interesgarriak dira. Gaizka Fernández Soldevillak eta Manuel Aguilar Gutiérrezrek ikerlan sendoa egin dute, artxibategi ugaritan barreiatutako iturri dokumentalen ikerketa zabal batean oinarritua, eta zehaztasunez eta argitasunez berreraiki dute talde hispaniar-portugaldar txiki baten ibilbidea, batez ere Begoña Urrozen hilketagatik, 1960an hildako neskatxarengatik, gogoratua izango dena, Terrorismoaren Biktimei Aitorpen eta Babes Integrala emateko 2011ko Legeaz geroztik, biktime horien zerrendaren buruan doana.

¿Terroristatzat jo behar ditugu Espainiako eta Portugalgo diktaduren aurka borrokan ari zirenak? Nazio Batuen Batzar Orokorrak 1995ean hartutako 49/60 ebazpenean dago erantzuna. Atentatu terroristak “herritarren artean oro har, pertsona talde batengan edo pertsona jakin batzuegan ikara egoera bat eragin asmoz bururatutako edo planeatutako xede politikoko ekintza kriminalak” bezala definitu zituen, eta zehaztu zuen “ezin zurituzkoak direla edozein egoeratan, haiek justifikatzeko egiten diren kontsiderazio politiko, filosofiko, ideologiko, arrazazko, etniko, erlijioso edo beste edozein motatakoak zernahi direla ere”. Inolako helburuk ez du justifikatzen bake garaian pertsona errugabeei —1960ko ekainaren 28an bizitza galdu zuen neskatxa hura bezala— heriotza eragin diezaieketen lehergailuak jartzea.

Terrorismoaren analisi kuantitatiborako iturri osatuena Global Terrorism Database-a (GTD) da, 1970etik datuak jasotzen dituena eta, Mendebaldeko Europaren kasuan, terrorismoaren hilgarritasun handiena 1972 eta 1988 urteen artean gertatu zela erakusten duena. Geroztik, zenbait gorakada une ere izan dira: 2004an, Madrilgo atentatu yihadistekin, eta 2015-2016an, Pariseko, Bruselako, Nizako eta Berlinekoekin. Azken urteotan, GTDaren datuak Global Terrorism Index-aren (GTI) urtekarietan aztertzen dituzte. Honela definitzen du terrorismoa GTIak: estatala ez den alderdi batek legez kontrako indarraren eta indarkeriaren mehatxua edo erabilera benetakoa baliatzen duenean, beldurraren, hertsaduraren eta larderiaren bidez, helburu politiko, ekonomiko, erlijioso edo sozialak lortzeko. GTIaren arabera, mundu-mailako terrorismoaren hilgarritasun handiena 2014an gertatu zen, yihadismoaren nagusitasun erabatekoarekin eta, batez ere, hiru herrialdetan bakarrik bilduta: Iraken, Afganistanen eta Nigerian. Hori esanda, ez da beharrezkoa gehitzea biktime gehienak musulmanak direla. Albiste ona, oso gutxitan aipatua, zera da, 2015etik aurrera biktime kopurua jaisten hasi zela.

Terrorismoaren historia aztertzean, ohikoa da David Rapoport ikertzaile estatubatuarrak proposatutako periodizaziora jotzea, zeinak lau bolada terrorista identifikatu dituen, duela mende bat baino gehiago gurutzatzen joan direnak. Lehena Errusian sortu zen XIX. mendeko azken hamarkadetan, joera sozialista iraultzailearekin, eta anarkisten eskutik hedatu zen Mendebaldera; bigarrena, Lehen Mundu Gerraren ondotik sortu zen, Bigarrenaren ostean indarra hartu

zuen eta joera antkolonialista izan zuen funtsean; hirugarrena hirurogeiko urteetan hasi zen, berriro ere joera sozialista iraultzailearekin, zenbait kasutan nazionalismoarekin batu zena; eta laugarrena laurogeiko urteetan abiatu zen, zenbait erlijio-fundamentalismotan inspiratua, batez ere yihadistan.

DRILa hirugarren boladaren bezperan koka daiteke, Espainiako Gerra Zibilaren herentziaren eta Kubako iraultzaren eraginaren artean. Azken honek borroka armatuaren ospea suspertu zuen, paradisu iraultzailerako bide gisa. Izan ere, berrogeita hamarreko amaierako eta hirurogeiko hasierako urte horiek bereziki baketsuak izan ziren, eta, gainera, garapen ekonomiko nabarmena eta Europaren integrazio prozesuaren hasiera izan zuten ezaugarri. Diktadura iberikoak integrazio prozesu horretatik kanpo geratu ziren. Hirurogeiko urteetan hasi ziren benetan Europako terrorismoaren berunezko urteak, Irish Republican Army-aren (IRA) eta Ulsterreko terrorismo lealisten eskutik, ETAREN eta GRAPOREN eskutik, Brigada Gorrien eta Italiako talde neofaxisten eskutik. Berunezko urte horientzat hasiera data bat aukeratzea ariketa arbitrario bat baino ez da. Lehen hilketa masiboa hauta daiteke, 1969ko abenduan Milango Piazza Fontanan gertatu zena, Italiako justiziak oraindik zigortu ez dituen neofaxista batzuek burututakoa; edo ETAREN lehen hilketa, biktimatzat José Antonio Pardines guardia zibila izan zuena, 1968ko ekainean. 1966ko maiatzera ere egin dezakegu atzera, Matilda Gould izeneko adineko andrea hil zen egunera. Bi terroristak Molotov koktel bat jaurti zuten haren logelara, eta, zoritxarrez, logela hura Belfasteko auzo protestante bateko pub katoliko baten ondoan zegoen. Atentatu horrekin indarkeria sektarioko beste bolada bati hasiera eman zitzaion.

Oinarririk gabea izan arren, Fernández Soldevillak eta Aguilarrek sakonki frogatzen duten bezala, Begoña Urroz ETAREN biktima izan zelako susmoak azaltzen du zergatik erabaki zuten 2011n Espainiako Gorteek gure herrialdean mende erdi baino gehiago iraun zuen barne terrorismoko bolada luzearen hasiera 1960an finkatzea. Horri esker ohoratzen dugu gaur egun haren oroimena, eta, egiazki, zaila litzateke terroreak hildako bizitza errugabeen sinbolo hobea topatzea.

2019ko martxoaren 8an  
Emakumearen Nazioarteko Eguna

# HERIOTZA AMARAN

## DRILen indarkeria Begoña Urrozen argitan<sup>1</sup>

**Gaizka Fernández Soldevilla**

Centro Memorial de las Víctimas del Terrorismo

**Manuel Aguilar Gutiérrez**

Fondo Documental de RTVE

### SARRERA

2011n Gorteek ia aho batez onartu zuten Terrorismoaren Biktimei Aitorpen eta Babes Integrala emateko Legea, 1999koa ordezkatzera zetorrena. Lege honen

---

<sup>1</sup> Egindako iradokizun, zuzenketa eta ekarpen probetxugarriengatik, egileek eskerrak eman nahi dizkiete honako hauei: Florencio Domínguez Iribarren, José Luis de la Granja, Juan Avilés, Santiago de Pablo, Josu Ugarte, Raúl López Romo, Carmen Rial, Juan Francisco López Pérez, José Francisco Briones Aparicio, Xavier Montanya, Carlos Fonseca, María del Carmen Alba, Lorenzo Castro, Francisco Javier Barrios Aisa, Virginia López de Maturana, Adolfo Cueto, Isabel Martínez, Rosa María Pardo Sanz, T. Serna, María Jiménez, Federico Ayala Sorensen, Luis Miguel Sordo, Juan M. A. G., Diogo Noivo, Hipólito de la Torre, Carmen Remírez eta Paloma Pérez Cortijo. Lan hau Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatuko Idazkaritzak diruz lagundutako bi ikerketa proiekturen barruan kokatzen da: “Europako terrorismoa berunezko urteetan: azterketa konparatiboa”, HAR2015-65048-P, MINECO/FEDER erreferentziarekin, eta “Aberriaren heroi eta bilauak. Arketipo (anti-)nazionalak historia garaikidean: ikuspuntu konparatuan egindako kasu-azterketa”, HAR2015-64920-P, MINECO/FEDER erreferentziarekin.

berritasunetako bat 1960ko urtarrilaren 1etik aurrera atentatuak jasan zituzten pertsonen eman beharreko kalte-ordaina zen, aurreko legearen epemuga 1968ko urtarrilaren 1a baitzen. Zabalkuntza horren helburua Begoña Urroz Ibarrolaren familiari ordaina ematea zen. Begoña Urroz haurra 1960ko ekainaren 28an hil zen, aurreko egunean jasandako zaurien ondorioz, Amarako tren geltokian (Donostia) leherketa bat izan eta gero. Ordu arte erakundeek babesetik kanpo geratua zen. Haren ohorez, nahiz hura izendatu gabe, Diputatuen Kongresuak dagoeneko ekainaren 27a adierazi zuen terrorismoko biktimak oroitzeko eta omentzeko egun gisa. Jardunaldia, nazio-eremukoa, Europako egunari, martxoak 11, batzen zitzaion. “Data horietan, erakunde publikoek terrorismoko biktimen aitorten ekintzak bultzatuko dituzte, haien oroimenari eusteko eta haien mezu etikoa aldarrikatzeko”<sup>2</sup>.

2011ko abenduan Barne Ministroak terrorismoko biktimatzat onartu zuen Begoña Urroz, ondorio guztiekin onartu ere. Haren anaiak, Jon Urroz Ibarrolak, Diario de Navarra adierazi zionez, “urte hauetan zehar ahal izan dugun moduan eraman dugu. Amak, fede handiz. Pena da gure aita ez dagoela jada gurekin, eta ezin duela aitortzaz ‘gozatu’”. 2012ko apirilean, Gobernuak Aintzatespen Zibilaren Errege Ordenaren Gurutze Handia eman zion hil-osteko aitorten gisa<sup>3</sup>.

Terrorismoaren Biktimei Aitorten eta Babes Integrala emateko Legeak ez zuen Amarako atentatua esplizituki aipatzen, soilik hura burutu zen data. Modu ofizialean, ez zitzaion egiletza inolako bandari leporatu ere. Kasuaren egia judizialaren absentiari zor zitzaion zehaztugabetasun hori. Inor ez zen zigortua izan Urrozen hilketagatik. Ez zen epaiketarik burutu ere. Eta ez da inoiz burutuko: 1977ko urriko Amnistia Legeak delitua bera baliogabetu, eta egileen erantzukizuna iraungi zuen<sup>4</sup>.

Nahiz eta hutsune hori egon, 2011n ohikoa zen politikariek, kazetariek, adituek eta biktimen elkarteek Begoña Urroz ETaren (Euskadi ta Askatasuna) lehen biktima mortaltzat jotzea<sup>5</sup>.

Baina iritzi hori okerra zen. Eta orain dela gutxikoa; izan ere, XXI. mendearen hasieraraino, taldearen lehen biktimatzat José Antonio Pardines Arcay hartzen zen, Trafikoko guardia zibil gazte bat, zeinari 1968ko ekainaren 7an taldeko bi

<sup>2</sup> ABC, 2010-III-15. Diario de sesiones del Congreso de los Diputados, 146. zkia., 2010-III-11. Legea 2011-IX-23ko BOEn kontsulta daiteke (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2011/BOE-A-2011-15039-consolidado.pdf>).

<sup>3</sup> Diario de Navarra, 2011-XII-13. El Correo, 2012-IV-13. ABC, 2012-IV-14. 710/2012 Errege Dekretua, 2012-IV-14ko BOEn argitaratua.

<sup>4</sup> <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1977-24937>

<sup>5</sup> ABC, 2010-III-11. Terrorismoaren biktimei buruzko bibliografiari buruz, ikus Jiménez Ramos (2017a).

pistolarik bizia kendu zioten Adunan (Gipuzkoa). Hala islatzen zen poliziaren eta CESIDen iturrietan, Barne Ministerioko estatistiketan, prentsa artikuluetan, lan akademikoetan eta baita talde terroristaren atentatuen zerrenda ofizialean ere<sup>6</sup>.

ETAren lehen biktimari dagokionez, ez zen zalantzarik planteatu 1992an José Antonio Pagolak, *Una ética para la paz: los obispos del País Vasco* (1968-1992) liburua argitaratu zuen arte. Hartan oin-ohar labur bat irakur zitekeen: “Egia esan, badirudi ETAren ekintza terrorista baten lehen biktima 22 hilabeteko Begoña Urroz Ibarrola haurra izan zela (...)”. Pagolaren hitzek ziurtasun falta adierazi arren, esaldi hori gure egunetaraino heldu den nahasmen problematikoaren bi iturrietako bat izan zen<sup>7</sup>.

Bestea urte hartan berean, 1992an, agertu zen, mugaren beste aldean baina, Bidarten (Ipar Euskal Herrian), non Poliziak ETAren goi-karguak atxilotu zituen. Buruzagietako baten, José Luis Álvarez Santacristinaren (*Txelis*), ordenagailuan kronologia bat aurkitu zuten, oro har Espainiaren eta bereziki Euskal Herriaren duela gutxiko historiaren gertakariekin. Horietako askok ez zuten zerikusirik talde terroristarekin. Gertakari horien artean Begoña Urroz Donostian hil zuen bonba aipatzen zen, data oker jarria: 1959ko abendua. Ez zen egilerik adierazten. 1993an taldearen historia ofiziosoaren lehen liburukia agertu zen, *Euskadi ta Askatasuna. Euskal Herria y la Libertad*, eta “talde armatu hispaniar” bati egotzi zitzaion Amarako atentatua. Hala ere, liburuaren amaierako kronologia eta Álvarez Santacristinari konfiskatutakoa berbera zen, erruduntasunaren akatsa eta omisioa barne. Gauza bera gertatu zen *Egin* egunkariaren 1994ko *Urtekarian* errepikatu zenarekin. Dokumentu hori euskarri bakar izanda, Javier Pagola eta Jesús María Zuloaga kazetariak ETArri leporatu zioten Begoña Urrozen hilketa 1995ko uztailean ABCn argitaratutako artikulua batean. Bi urte geroago, Terrorismoko Biktimen Elkarteak hipotesi hori onartu zuen<sup>8</sup>.

<sup>6</sup> Artega (1971), Carrión (2002), Fernández Soldevilla eta Domínguez Iribarren (2018), Jaúregui (1981), Letamendia (1994: 254) eta Sullivan (1988: 44). *Zuzen*, 79. zkia., 2004-II. «Victimas del terrorismo y de la violencia de las alteraciones del orden público», 1978-VI, Barne Ministerioaren Artxibo Nagusia. «La organización revolucionaria y terrorista ETA», 1979, eta «Datos estadísticos de víctimas del terrorismo», 1986, TBOZ (Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa). *El Alcázar*, 1977-V-25 eta 26.

<sup>7</sup> Pagola (1992: 20). Zenbait urte geroago, egileak berak honako hau adierazi zuen: “oin-ohar horretan aisa egiazta daitekeen bezala, nik ‘badirudi’ nioen; hau da, ez nuela ziurtzat jotzen, datu gehiago ez nuelako” (*El País*, 2010-I-31). Gainera, liburuaren gorputzean behin baino gehiagotan baieztatu zuen ETAren lehen hilketa 1968koa zela.

<sup>8</sup> *Txelisi* konfiskatutako kronologia [www.matrix666.net/wp-content/musica/1024.pdf](http://www.matrix666.net/wp-content/musica/1024.pdf) web orrian kontsulta daiteke. Núñez (1993: 48 eta 211). *Euskadi 1994. Anuario Egin*, 1994. ABC, 1995-VII-16, 2000-I-2, eta 2008-VI-8. *La Razón*, 28. zkia., 1997ko Ingo hiruhilekoa.



Pagolaren liburuko oin-oharra oharkabeen pasatu zen, harik eta 2000ko irailean eta urrian Ernest Lluch Martín ministro ohi sozialista hartan oinarritu zen arte krimena erakunde terroristari egozteko *El Correo* eta *La Vanguardian* idatzitako bi artikulutan. Argudiatzen zuenez, “Pagola bikario nagusiak oinarritzat hartutako iturria akasgabea zen, eta hartatik abiatuta informazio egiaztatzailea eta gehigarria lortu ahal izan dut. Familiak ETArekin egiletzaren bertsio ofiziala jaso zuen, eta haien auzoko ingurunean ez dago horren zalantzarik”. Alde batetik, taldeak ez zuen inoiz atentatua errebindikatu, ezta bere barne dokumentazioan bere gain hartu ere. Bestetik, ez agintariek, ez argitalpen frankistek edo atzerriko berriemaileek ez zituzten etakideak krimenarekin lotu. Labur esanda, garai hartako idatzi bakar batek ere ez zuen hilketa ETArekin lotu. Egia esan, Pagolaren iturri bakarra Urrozarren auzokide eta laguna zen emakume katekista baten lekukotza izan zen. Auzokideak haurren heriotzaz hitz egin zionean, leherketa gertatu zela hemerrotean egiaztatzaera mugatu zen bikarioa. Pagolak ez zuen gehiago ikertu<sup>9</sup>.

Kontakizun hura esparru txikietara zabaldu zen, eta haietatik apenas eman zen ezagutzera. Inflexio-puntua Jesús Duvaren erreportaje zabalarekin gertatu zen, 2010eko urtarrilaren 31n *El País*en argitaratua. Haren testuak, Begoña Urrozen familiaren lekukotza lehen aldiz zekarrenak, ekarpen erabakigarria egin zion ETArekin parte hartzearen teoriaren jendarteratzeari. Une horretatik aurrera horrenbeste bizkortu zen zabalkundea, ezen hurrengo urtean, 2011n, hegemonikoa zirudien jada. Zergatik? Gure ustez, Ernest Lluch garrantzi akademiko, politiko eta moralagatik, 2000ko azaroaren 21n ETAk erail zuena. Bigarren maila batean, gertakariaren sinesgarritasunagatik, lehenbiziko ETArekin historiari buruz genekien gutxiarekin bat egiten zuelako. Hirugarrenik, bere historia odoltsuan 850 biktima mortal baino gehiago eta ia 2.600 zauritu zeuzkan erakunde baten lehen krimena infantizidio bat izatea erabat sinesgarria zelako. Kaltetuen artean haur asko daude: ETAk 21 adin txikiko hil, eta beste 172 zauritu zituen. Laugarrenik, kointzidentzia kontu huts batengatik: Duvaren erreportajea lege berria prestatzen ari zirenean argitaratu zuten, hain zuzen ere. Bosgarrenik, jada klasikoa den Alejandro Muñoz Alonsoren *El terrorismo en España* (1982) eta erabat berria zen Xavier Montanyà kazetariaren *Pirates de la llibertat* (2004) lanak aintzat hartu ez zituztelako. Biek ere DRILa (Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación) seinalatzen zuten, Francoren eta Salazarren diktadurak uzkaileteko asmoa zuen talde hispaniar-lusitaniar bat. Azkenik, inork ez zituelako historialari profesionalak aintzat hartu. Horietako batek, Santiago de Pablok, honako hau ohartarazi zuen 2010eko ekainean: “ez dago ETAk Begoña Urroz erail

<sup>9</sup> Ernest Lluch: «La primera víctima de ETA», *El Correo*, 2000-IX-19, eta «El pecado original de ETA», *La Vanguardia*, 2000-X-19. Jesús Duva: «La primera víctima de ETA», *El País*, 2010-1-31, eta 2011-X-23. Fernández Soldevilla (2017).

zuela baieztatzeko aukera ematen digun iturri fidagarririk<sup>9</sup>. Gogora ekartzen zuen bezala, agintari frankistek DRILi egotzi zioten errua<sup>10</sup>.

2011n *Berria* egunkariaren igandeko gehigarrian argitaratutako erreportaje batean, ETako zenbait sortzailek Amarako bonbarekin zerikusia izan zutela ukatu zuten. Azterna bat zen, baina ahula: beste zenbaitetan pertsona horiek berek oso oroimen txarra zutela frogatu zuten. Are argigarriagoa izan zen 2011n, Xavier Montanyak, Ikerketa Sozialeko Brigadaren buletin baten laburpen bat argitara atera izana, DRILa erantzule egiten zuena<sup>11</sup>. Froga eztabaidaezina izatetik urruti zegoen: Polizia frankista ez zen hutsezina (egiatan, sarritan sartzen zuen hanka), eta nekez egotzi ahaliko zion krimena ETari baldin eta erakunde hura 1961eko uztailaren 18ra arte ezagutu ez bazuen<sup>12</sup>. Hala ere, zabaldu zen bertsioa zalantzan jartzeko nahikoa eta gehiago zen buletin hura.

Nork hil zuen Begoña Urroz? Galdera horri erantzuteko, gertakariaren inguruabarrak argitzeko eta gure historia gertatu berriaren ezagutzan aurrera egiteko, beharrezkoa zen ikerketa akademiko bare eta zorrotz bat egitea. Helburu horrekin, historialariaren metodologiari jarraiki, eskura dauden iturri guztiak errotik bururaino aztertu eta egiaztatu ditugu: bibliografia, garaiko prentsa, diktadura iberikoek (gubernuek, Ordena Publikoaren Indarrek, inteligentzia zerbitzuek, gorputz diplomatikoek edo auzitegi militarrek) sortutako dokumentazioa eta oposizio antifrankista eta antisalazaristak egindakoa. Zentzu horretan, honako iturriak kontsultatu ditugu besteak beste: Administrazioaren Artxibo Nagusia, Artxibo Historiko Nazionala, Defentsako Artxibo Orokor eta Historikoa, Arquivo Nacional da Torre do Tombo delakoa, Arquivo Diplomático delakoa, Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala, Francisco Franco Fundazioa, Nafarroako Unibertsitateko Artxibo Nagusia, 43. zenbakidun Lurraldeko Epaitegi Togadun Militarra, Avilako Artxibo Militar Nagusia, Arquivo da Emigración Galega delakoa edo Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa.

Txosten hau Begoña Urrozi eskaintzen diogu. Hala ere, ezinezkoa da haren bizitzari amaiera jarri zion bonba gertaera isolatu bat bezala azaltzea. Amarako atentatua kanpaina terrorista baten zati bat zen, DRILek burutu zuen bigarrenarena. Hortaz, beste bat egon zen lehenago. Haurra ere ez zen izan Direktorioaren

<sup>10</sup> Muñoz Alonso (1982: 13) eta Montanyà (2004). Santiago de Pablo: «¿La primera víctima de ETA?», *El Correo*, 2010-VI-19. Zaurituei dagokienez, ikus Jiménez Ramos eta Marrodán Ciordia (2019).

<sup>11</sup> *Berria*, 2011-II-20. Buletinaren laburpena: [www.berria.info/dokumentuak/dokumentua1128.pdf](http://www.berria.info/dokumentuak/dokumentua1128.pdf)

<sup>12</sup> Aizpuru (2016). AEBetako diplomaziak, ordea, bazuen ETaren existentziaren berri 1959tik. Ikus Gaizka Fernández Soldevilla eta David Mota Zurdo: «El americano impasible», *El Correo*, 2018-IX-15.

biktima mortal bakarra. Beste bat egon zen gerora. Gertatutakoa benetan ulertzeko eta Urrozen hilketa ez sinplifikatzeko, testuingururik eta esanahirik gabeko zerbait bezala aurkeztuz, ezinbestekoa da kaltegieen beren ibilbidearen azterketa zabal bat egitea. Raúl López Romori jarraiki, “ulertzeak ez du esan nahi gure protagonisten jokabideak justifikatzea, baizik eta gauzak modu batean edo bestean zergatik gertatu ziren azaltzen duten faktoreak bilatzea”. Era berean, Xabier Etxeberriak dio egia historikoaren bilaketak “gertatutakoaren ulermen bat eskaintzen duela, justifikazio etikoarekin nahastu behar ez dena, hartan nagusi den egiaren, zintotasunaren eta inpartzialtasunaren asmoa ez baita nahastu behar gaizkiaren aurkako neutraltasun eta abstentzioarekin: lan historikoak testuinguruak, indarkeriaren eta biolentoen arrazoiak eta prozesuak agerian jarriko ditu, baina hain zuzen ere haiei etorkizunean aurre egiteko baliabideak emateko, dagoeneko eragin zituzten biktimak berriro eragin ez ditzaten”. Arrazoi horiengatik guztiengatik, honako lan hau ez da mugatzen 1960ko ekainaren 27ko atentatua ikertzeraz, DRILen historia ere ukitzen baitu<sup>13</sup>.

Hori bai, talde horren ibilbidearen azterketa Begoña Urrozen argitan egiten da. Cristina Cuestaren arabera, honako hau da gure printzipio gidaria: “protagonistak biktimak dira, ez haien hiltzaileak. Kaltetuen ikuspuntutik egindako indarkeria-terroristaren historiaren berrirakurketa batek arazoaren ulermen gizatiar batera garamatza”<sup>14</sup>.

---

<sup>13</sup> Jiménez Ramos (2017b), López Romo (2018a: 145) eta Etxeberria (2012: 42-43). Ikus baita ere Arcadi Espada: «Un muerto, otro muerto», *El País*, 2000-XI-22.

<sup>14</sup> Cuesta (2000: 229). Printzipio gidari honek inspiratzen ditu López Romorena (2018b) bezalako liburuak.

# 1. HABANAKO AZTIKERIA. ALBERTO BAYO ETA UCE

1936ko uztailearen 17an eta 18an Gudarostearen eta eskuinen zati esanguratsu bat II. Errepublikako Gobernuaren aurka altxatu zen. Estatu kolpeak porrot egin zuen. Eta horrek Gerra Zibil luze eta odoltsu bati bidea eman zion, 1939an amaitu zena, matxinatuen garaipenarekin, Francisco Franco buru zutenak eta Alemania naziaren eta Italia faxistaren laguntza jaso zutenak. Garaileek Errepublikako esperientzia demokratikoa lurperatu zuen diktadura bat ezarri zuten. Garaituen, ezkerreko militanteen eta nazionalista periferikoen aurkako errepresio ikaragarria gauzatu zuten baita ere, aurrena judizioz kanpoko hilketen bidez, eta ondoren, jada epaiketa sumarisimoen bidez. Enrique Moradiellosen kalkuluen arabera, errepresio frankista “biktima mortal kopuru oso handi baten erantzulea izan zen, ziur asko gerran zehar laurogeita hamar milako zenbatekoa gainditu zuena (gehi beste berrogei mila garaipenaren ostean eta gerraondo hurbilean)”. Kartzela-zigorrak, isunak, erbesteratzeak eta garbiketa profesionaleko prozesuak eta hirurehun mila erbesteratu iraunkor inguru ahaztu gabe. Jakina, erregimenak ez zuen iraun soilik errepresioari esker, denborarekin selektiboagoa egingo zena: herritarren zati handi batek babestu zuen baita ere<sup>15</sup>.

Gerra Zibilaren amaiera Bigarren Mundu Gerraren (1939-1945) hasierarekin gainjarri zen. Aliatuen garaipenak Adolf Hitler garaituaren bazkide zen Francoren erorketa ekarriko zuela uste zuen oposizio frankistak. Hala ere, Gerra Hotzak eragindako nazioarteko hausturaren ondorioz, kontrakoa gertatu zen. Diktaduraren antikomunismoak mendebaldeko blokearekin elkartzea eta ostrazismotik ateratzea erraztu zion. 1953an Vatikanoarekin Konkordatua eta AEBekin akordioak sinatu zituen, laguntza finantzarioa eta militarra eman ziotenak. 1955ean NBE onartua izan zen Espainia. 1959ko abenduan AEBetako presidenteak, Dwight D. Eisenhower jeneralak, Madril bisitatu zuen. David Mota Zurdoren hitzetan, erregimenarekiko “elkartasunezko keinu sinbolikoa” izan zen. Urte horretan berean Gobernuak Egonkortze Plana onartua zuen, autarkiaren politikari amaiera emango ziona. Mundu mailan aldekoa zen ziklo ekonomiko batekin bat egitean, horrek industria- eta demografia-hazkunde indartsu bat ekarri zuen hirurogeiko hamarkadan. Diktadura sendotu egin zen. 1961an “Altzamen du Nazionalaren XXV. Urteurrena” handizki ospatu zuten, eta 1964an beste hainbeste egin zuten “Bakeko XXV Urteekin”<sup>16</sup>.

<sup>15</sup> Alted (2005), Espinosa Maestre (2010) eta Moradiellos (2018: 75 eta 80); egile honen arabera, Errepublikaren eremuan izandako errepresioak berrogeita bost mila pertsona ingururen heriotza ekarri zuen.

<sup>16</sup> Hualde (2012), De Pablo (2018) eta Mota Zurdo (2016: 310).

Indar antifrankista tradizionalen ilusioak desagertu egin ziren. Itxaroten jarraitu behar zuten. Erbestean, PSOE (Partido Socialista Obrero Español), mugimendu libertarioak, indar errepublikano atomizatuak, EAJ (Eusko Alderdi Jeltzalea) eta nazionalista periferikoen beste zenbait elkarte zatiketako, gainbeherako eta eraginkortasunik ezako epealdi batean sartu ziren. Askoz gogotsuago jarraitu zuen PCEk (Partido Comunista de España), baina, hala ere, bira estrategiko bat eman behar izan zuen. Gerraondoan gerrillak bultzatu zituen Espainiaren barrualdean, baina berrogeiko urteen amaieran bide armatua uztea erabaki zuen, alferrikakoa izateaz gain, giza kostu izugarri handia eduki zuelako. 1956ko ekainean PCEk demokrazia parlamentario bat berrezartzearen aldeko apustua egin zuen “Berradiskidetze Nazionala”ren politikaren bidez, indarkeriari uko egitea eta Gerra Zibilean elkarren aurka egon ziren bi bandoentzat amnistia orokor bat zekarrena<sup>17</sup>.

Komunisten lidergorik gabe eta Ordena Publikoaren Indarrek inguratuta, gerrilla antifrankista desagertzearaino makaltzen joan zen. Asturiasen eta Kantabrian gerrillari aurre egin zien Ikerketa Sozialeko Brigadako inspektore izandako José Sainzen ustez, “1950-1960 hamarkadan, bandolerismoaren azken puntu txikiak ezabatu ostean, lasaitasuna eta delitu-jarduera urria izan ziren bereizgarri nagusiak Espainia osoan”. Hala eta guztiz ere, makiak bere azken astinduak eman zituzten oraindik. 1960ko urtarrilaren 3tik 4rako gauean Francisco Sabaté Llopart (*Quico*) anarkistak —hurrengo egunean *somatén* batek hil zuen— Francisco de Fuentes-Fuentes y Castilla-Portugal Guardia Zibileko tenientea erail zuen Gironako probintzian. 1961eko abuztuaren 9an, Valentín González González (*El Campesino*) komunista disidentearen aginduei jarraiki, gerrillari talde bat Irabiako (Orbaitzeta, Nafarroa) urtegiko zentral elektrikoari sabotajea egiten saiatu zen. Benemeritako bikote batekin topo egin zuen. Tiroketan Luis Moreno Ortega guardia zibila hil zen, eta haren kidea zauritua gertatu zen<sup>18</sup>.

Makien gainbehera eta Espainiaz kanpoko erakunde-armatu berrien eraketa denboran bat etorri zen. Militantzia urrikoak, Gerra Zibileko beteranoeak eta gazte erradikalizatuek zuzentzen zituzten, eta Marcos Pérez Jiménezen eta

<sup>17</sup> Erice (2017), Juliá (2017: 225-235), Ruiz González (2000), De Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz (2001), Muñoz Soro eta Baby (2005) eta Hernández Sánchez (2005: 312).

<sup>18</sup> Serrano (2001), Lorenzo Castro (argitaragabea), López Corral (2009: 423-457 eta 2010: 10-18), Sainz González (1993: 114) eta Sánchez (2006: 191-195). *ABC*, 1960-I-6, 1961-VIII-15 eta 24. *Diario de Navarra*, 1961-VIII-11 eta 29, eta 2011-VIII-7. Bi kasuak Ikerketa Sozialeko Brigadaren 1961eko buletinaren deskribatuta agertzen dira, AHN (Artxibo Historiko Nazionala), Funtz Garaikidea (FG)-Barne Ministerioa, Polizia, 53102 espediente. Fuentes-Fuente tenienteari buruz, ikus <https://latribunadelpaisvasco.com/art/9130/tras-el-rastro-de-la-primera-victima-del-terrorismo-en-espana>

Fulgencio Batistaren diktaduren uzkailean inspiratu ziren —lehenaren kasuan, Venezuelakoa (1958), eta bigarrenarenean, Kubakoa (1959)—; azken honen kasuan, Fidel Castro eta Ernesto *Che* Guevararen mugimendu iraultzailearen ondorioz etorri zen. Gehiengoa zuen oposizio antifrankistaren eta erbestean zeuden Errepublikako erakundeen pasibotasuna salatu ostean —azken horiekin hautsi egin zuten—, Latinoamerikako ezkerren zati baten begikotasuna piztea lortu zuten. Hala, diplomatiko frankista batek egindako txosten konfidentzial batek ohartarazten zuenez, “jazarrien, martirien eta heroien ospe halako bat dute; eta entzun egiten dituzte”. Parisen sinatutako ohar baten arabera, 1961ko udan Seguratasuneko Zuzendaritza Orokorrak banatutakoa, “badira zenbait espainiar zerbait egin dadila desio dutenak, zerbait hori deabruak egiten badu, hori bigarren mailakoa dela diote”. Hala ere, bai Espainian bai atzerrian atentatuak egin arren, bizialdi iragankorra izan zuten, eta garrantzi politiko ezdeusa. Honako hauek aipa daitezke, besteak beste: Movimiento Español 1959 (1959-1963), Defensa Interior (1962-1965), Movimiento por la III República y por la reconstitución del Ejército Republicano (1963-1967) edo Julio Álvarez del Vayo ministro oiharen Frente Español de Liberación Nacional (1963-1970)<sup>19</sup>.

Zerrenda horri dagokio DRILen aurrekari zuzena den UCE (Unión de Combatientes Españoles). 1958aren amaieran eta 1959aren hasieran sortua, Frente Unido Democrático Español eta Movimiento Liberación Española bezalako taldexkez hornitua<sup>20</sup>, erakunde txiki bat zen, baina Venezuelan eta Kuban presentzia

<sup>19</sup> Catalán Deus (2015: 57-71), Fernández Soldevilla (2017 eta 2018b), García Rico (1998: 48, 92, 93 eta 96), Martiz Crespo (2016: 24), Castro Moral (argitaragabea), Alberola eta Gransac (1975: 75-78), Guerrero Lucas (1979: 27), Paz Sánchez (2001: 132-133), Velázquez Hernández (2015), Aub (1992), Gurucharri eta Ibáñez (2010: 86-88), Priestland (2010: 265-395), Hernández Sánchez (2005: 314), García Alcalá (1992) eta Fernández Vázquez (1978: 114-115). Madrileko AEBetako enbaxadorearen 1959ko otsaileko memorandum batek, Mota Zurdok (2016: 306) aipatua, Kubako iraultzak Espainian izan zezakeen errebote efektu posible baten alarma islatzen zuen. Jakina, espainiar erbesteratuak ez ziren izan Kubako iraultzak liluratutako bakarrak. González Callejak (2013: 287-296), Fernández Soldevillak (2016) eta Azconak eta Rek (2015: 21-28) gogoratzen duten bezala, Latinoamerikako eta Europako ezkerren zati batekin gauza bera gertatu zen, baita zenbait nazionalismo erradikalekin ere, ETAK ordezkatzen duena kasu. “Informe confidencial sobre la agitación terrorista y subversiva”, 1960?, FFFN (Francisco Franco Fundazio Nazionala), 4374 biribilkia. «Nota confidencial», Paris, 1961-VIII-17, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53102 espediente. Neurri batean, lehen ETA hura bolada honetan inskriba liteke.

<sup>20</sup> Talde horiei buruz informazio ugari dago AANn (Administrazioaren Artxibo Nagusia), 54/5365 kutxa. MLEko militante nabarmenenak Santiago Álvarez, Luis Rodríguez eta R. García Pérez ziren, eta bonuen bidez dirua bildu zuten. FUDEkoak, beriz, Abderramán

zuen. Alberto Bayo militar hispaniar-kubatarrak, Gerra Zibilean Mallorcako lehorreratze fruiturik gabea zuzendu zuenak, markatu zuen haren historia laburra. Mexikon erbesteratua, Fidel Castroren Movimiento 26 de Julioaren instruktore gisa jardun zuen, eta Castrori aholkuak eman zizkion Kubako iraultzan zehar, baita lagundu ere. Ez da harritzekoa erregimen berriaren konfiantza izatea, jeneral mailara igo baitzuten. 1959ko urtarrilean Espainiako enbaxadoreak, Juan Pablo de Lojendiok, Kanpo Arazoetarako Ministroari, Luis Carrero Blancori, jakinarazi zion Bayo uhartera heltzekoa zela: “Hori dela eta, zalantzarik gabe omenaldiak egingo dizkiote, eta, esaten dizudan bezala, Espainiako errepublikazaleek ez diote uko egingo egoera baliatzeari ur uherrean zerbait arrantzatzeko”. 1959an zehar, Bayok hainbat aldiz eta modu publikoan errepikatu zuen komandoak entrenatzen ari zela, Sierra Maestran horren emaitza onak eman zituen ereduari jarraiki. Franco “eskizofreniko, homosexual eta ziniko” gisa ezaugarritu eta gero, esku-paper batean zera iragarri zuen: “erbestean dagoen Hispaniar Munduak ni izendatu ninduen aho batez gurutzada honen buru jartzeko”. “Boluntarioen gudaroste ausart bat” eratzen ari zen, “politikeroen politika zaharretik erabat aldentutako gizonen gudaroste bat. Haien erruz galdu genuen aberri sakratua, eta antolatu egingo gara gerrillen eta sabotaje bidezko borrokaren bitartez munstro horri gerra deklaratzeko”. Testuan ohartarazten zuenez, “martiri edo apostolu izateko bokazioa ez duen norbaitek ez du erakunde horien kide izan behar”. “Aizkora baita gure sinboloa, gure bandera, eta denok gogoan izan behar dugu gure eslogana honako hitz hauetan egon behar dela: *Honor se escribe con hacha*”<sup>21</sup>.

Jeneralaren hitzaldi sutuak eta konfidentziala zen zenbait informazio zela eta, beldur ziren atentatu bat gertatuko ote zen Espainiak Kuban zuen enbaxadorearen

---

Muley Moré (*Manuel Rojas*), Fernando Ayuso eta Jaime Farragut. Bi talde horiek indarkeriaren erabileraren alde agertu ziren. FUDE-en oinarriek honako ohartarazpena egiten zuten: “inguruabarrek eskatutako moduan borroka egingo dute uneoro, are armekin, matxinadan beharrezkoa bada ere”. Eta MLEren propagandak honelakoak bezalako esloganak zituen: “Franco, Falange Española tiemblan. El comando suicida ya está en camino”.

<sup>21</sup> Montanya (2004: 50-66), Paz Sánchez (2001: 160, 172-173), Alija (2008), Jiménez Redondo (2003: 95), Monreal (1961). Gutuna eta enbaxadaren prentsaren laburpena Paz Sánchezen (2006a: 271 eta 292). Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletinak, 1959-III-17, 1959-III-28, eta 1959-VIII-27, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53100 espedientea. «Carta del embajador en Caracas al Ministerio de Asuntos Exteriores», 1959-VI-15, AAN, 54/11855 kutxa. «Nota del director de la Oficina de Información Diplomática», 1959-V-16, AAN, 54/11497 kutxa. «Honor se escribe con hacha», Habana, 1959-IX-16, AAN, 54/5365 kutxa. «150 preguntas a un guerrillero», 1959, AAN, 54/11453 kutxa. *Oriente*, 1959-VII-29. *Sierra Maestra*, 1959-VII-29. *Surco*, 1959-VII-29. *Información*, 1959-XI-11.

edo Iberia konpainiako hegazkinen aurka. Gerora DRILen buruzagi gailenetakoa bihurtuko zen José Fernández Vázquezen (*Jorge Sotomayor* edo *Soutomaïor*) esanetan, Bayo bere “arduragabekeria demagogikoagatik” nabarmentzen zen. “Bi hilabeteko epea” eman zion Francori “boterea utz zezan”. Hain zuzen ere, prentsak jasotzen du nola aukeratu zuen 1959ko apirilaren 14a, II. Errepublikaren aldarrikapenaren urteurrena, “borroka hasteko”. Ziurtzat jotzen zuen “Francok ezingo ziola gerrillaren bultzadari eutsi”, eta, ondorioz, data hori baino lehen Estatuko Buruzagitzari uko egitera hertsatu zuten. Bestela, “beste odol isurketa ez-beharrezko bat” gertatuko zen. Habanan zegoen Enbaxada frankistaren informazioko eta prentsako kontseilari Jaime Caldevillaren arabera, Kuban kokatu eta urtebete geroago, “Alberto Bayo kapitain ohiaren jarduerak bi ondorio aurkako sortu dituzte: batzuen ustez, beste garai batekoa da eta zentzua galdu du; beste batzuek, berriz, maila aitortzen diote. Garrantzitsuena da haren jarduerak babes ofizial halako bat dutela, eta, gainera, espainiar erbesteratuen erakunde baten itxura dutela, egunez egun arriskitsuagoa dena”. Zer iturri zituen Caldevillak horrelako adierazpen bat egiteko?<sup>22</sup>

1959ko apirilean, Bayoren menpeko zuzen bat Enbaxadan agertu zen haren ekintza-planei buruz informazioa emateko, berehalakoak ziruditenak. Menpeko horren lekukotzaren arabera, Kubako Gudarosteak azpiegitura, soldaduak eta ofizialak eman zizkion “sabotaje eta infiltrazio ekintzetan” espezializatutako brigadak trebatzeko. Brigada horietan espainiar erbesteratu gutxi batzuk zeuden. Isil-mandatariak kontatutakoaren arabera, “gerra ekintza bat prestatzen ari ziren Espainian sartzeko”, eta, horretarako, “500.000 dolarretik gora zizutzen, Mexikon eta Venezuelen bildutakoaren artean”. Gainera, “gerrillariak errekrutatzen ari dira Kuban, Mexikon, Venezuelen eta Frantzian”. Une hartan, Bayok ehun bat boluntario izango zituen bere agindupean, espainiarrak eta kubatarrak batuta. Datu deigarriak dira, baina beharrezkoa da arretaz hartzea: ez datoz bat beste iturri batzuen arabera dakigunarekin. Horrez gain, diplomatikoari bere agente posiblea “oso labainkorra eta zalantzatia” iruditzen zitzaion, “abenturazale eskrupulorik gabeko bat zelako irudipena ematen zidan, galanta gainera”. Diplomatikoak ondorioztatu zuenez, “bere lanagatik laguntza ekonomikoa bilatzen ari zen”. Badakigu nor zen. Agustín

---

<sup>22</sup> Montanyà (2004: 50-66), Paz Sánchez (2001: 160, 172-173), Alija (2008), Jiménez Redondo (2003: 95), Monreal (1961), Fernández Vázquez (1978: 73-75) eta Paz Sánchez (2006a: 271 eta 292). «Onda de terrorismo (en Abril) para derrumbar Salazar e Franco», 1959-III-5, Archivo Nacional da Torre do Tombo (ANTT). «Carta del teniente coronel V. R. Ernesto Ricardo Valdero (México DF) a Embajada española en Cuba», 1959-V-12, eta «Nota verbal confidencial de la Embajada al Ministerio de Estado de Cuba», Habana, 1959-V-27, AAN, 54/5365 kutxa. *Diario Nacional*, 1959-III-14. *Pais*, 1959-III-4. *La Esfera*, 1959-IV-9.



Parradas zen, orduan Bayoren agindupean “Informazio komandante” bezala zegoela zioen, eta geroago DRILen kide izan zen. Dokumentazioak ziurtatzen du Francoren diktadurarekin kolaboratu zuela 1959ko apirilean. Ezin dugu baztertu data horren ondotik kolaboratzen jarraitu izana, Direktorioan zegoenean, baina agirietan ez da horretaz ezer esaten<sup>23</sup>. DRILeko beste ekintzaile batzuk isilmandatariak, polizia infiltratuak edo erregimen frankistaren soldatapeko agente probokatzaileak izan ote ziren esaten ez den bezala. Gai polemikoa da, eta txosten honen epilogoan itzuliko gara hartara.

Bayo jenerala UCERen buruzagi karismatikoa zen, baina aginte operatiboa beste bi erbesteraturen esku zegoen: Abderramán Muley Moré (*Manuel Rojas*), Kubako militantzia koordinatzen zuena, eta José Velo Mosquera galegista, Venezuelakoarekin gauza bera egiten zuena. Frente Único Democrático Español delakoarekin bat egin arren eta erregimen castristaren ustezko mesedea eduki arren, taldeak ez zuen finkatzea lortu. 1959ko urrian, jaiotze eta hilabete batzuk geroago baino ez, barne boterea eskuratzeko borroka bat egon zen: Muleyk eta Velok Bayo zokoratu zuten. Bere aurkakoen ustez, jeneralaren protagonismorako irrika zen arazoa, baita haren eraginkortasunik eta sendotasunik eza ere. Edozein kasutan, haustura bat gertatu zen. “Beste talde asko bezala”, dio Fernando Hernández Sánchek, UCEa “elkarren aurkako probokazioko eta infiltrazio polizialeko salaketan artean desegin zen”<sup>24</sup>.

## 2. DRILEN SORRERA

Caracasen, Velo eta Muley buru zituen UCEko sektore hegemonikoa MNIrekin (Movimiento Nacional Independiente) hizketan hasi zen, zeinarekin lehenago ere

<sup>23</sup> Paz Sánchez (2001: 154-180) eta Montanyá (2004: 90-99). «Nota informativa secreta para el Sr. Embajador», 1959-IV-17, FFFN, 21770 biribilkia. «Segunda nota informativa secreta para el Sr. Embajador», 1959-IV-18, FFFN, 21770 biribilkia. «Tercera nota informativa secreta para el señor Embajador», 1959-IV-30, FFFN, 21763 biribilkia. Bayok nazioartean jaso zituen ustezko babes ekonomikoei buruzko informazio gehiago «Carta del Embajador en Río Janeiro (Suñer) y anejo»n, 1959-VI-11, FFFN, 21771 biribilkia.

<sup>24</sup> Paz Sánchez (2001: 175-179), Martiz Crespo (2016: 24), Raby (1995: 67), Fernández Vázquez (1978: 79-80), Campos Álvarez (2001), Castro Moral (argitaragabea), Hernández Sánchez (2005: 314-316), Jiménez Redondo (1996: 84-85), Piñero 2000: 85-88) eta Monreal (1961: 158). Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1959-XII-30, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53100 espedientea. «Informe sobre el DRIL», 1961-II-17, <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFFondo/iruj/6270.pdf>

harremanetan egona zen. Erbestean zeuden portugaldarrez osatutako erakunde bat zen, António Salazarren diktaduraren aurka borrokan ari zirenak. Bi militar zeuden MNiren buru, *Estado Novo*an nolabaiteko arrakasta politikoa eduki zutenak —haren aldeko irmoak izan ziren—, harik eta arrazoi batengatik edo bestearengatik irainduak, haren aurka egin zuten arte: Humberto Delgado jenerala eta Henrique Galvão kapitaina. 1958an eratu zuen MNiA, Portugalgo oposizioak zuen ekimen urriarekin desilusionatuta. Aldi berean, oposizioari mesfidantza eragiten zion hala haien iragan salazaristak nola haien antikomunismoak eta kolonialismoari emandako babes anbiguoak<sup>25</sup>.

UCETik eta MNItik geratzen zenak bat egin zuen DRILa sortzeko. Caracaseko *La Razón* egunkariak jasotzen zuenaren arabera, 1960ko otsailean eratu zen, nahiz eta Dawn L. Rabyk adierazi bezala, litekeena da dagoeneko aurreko urtearen amaieratik martxan egotea. Direktorioari Frantzian eta Belgikan bizi ziren antifrankistak, baita Latinoamerikan bizi zirenak ere, batu zitzaizkion. Hala gertatu zen José Fernández Vázquez komandante eta PCEko militante ohiaren kasuan<sup>26</sup>.

Francok eta Salazarrek 1942an sinatu zuten Hitzarmen Iberikoari erantzunez, DRILa mugimendu hispaniar-lusitaniar bat zen, eta haien sortze-helburua diktadurak uzkailetea eta bi herrialdeetan errepublika ezartzea zen, federazioan elkar zitezkeenak. Izenak berak adierazten duen bezala, Kuban Batistaren aurka borroka egin zuen Directorio Revolucionario 13 de marzo erakundearen inspiratzen zen. DRILa ez zegoen oso egituratuta, eta ideologikoki oso heterogeneoa zen: bere lerroetan liberalak eta anarkistak zeuden, baita errepublikazaleak, marxistak eta nazionalista galegoak ere. Egiatan, bere horizonte errepublikazale federal iberistaz gain, kideak batzen zituen gauza bakarra indarkeriaren aldeko apustu estrategikoa zen, nahiz gerrilla gisa nahiz atentatu terrorista gisa. Direktorioaren banderak hiru zerrenda horizontal zituen (zuria, horia eta beltza), eta haren goiburua “Askatasuna

<sup>25</sup> Rosas (2003), Santos Vargas (2011), Moreira eta Gonçalves (2008: 93), Mortágua (2009: 182-185), Guerrero Lucas (1979: 27), Fernández Vázquez (1978: 75-78 eta 92-93) eta Cabeza Sánchez-Albornoz (1999: 302-305). «Carta del Embajador en Caracas al Ministro de Asuntos Exteriores», 1959-XI-2, FFFN, 19872 biribilkia.

<sup>26</sup> Jiménez Redondo (2003: 96-97), Piñero (2000: 95), Raby (1995: 67) eta Castro Moral (argitaragabea). 1960ko otsailaren 1an Caracasen sinatu zen dokumentu batek, Archivo da Emigración Galegaren (AEG) Sotomayor funtsean gordea dagoenak, taldexka nazionalista katalan baten integrazioa burutzen du DRILen; hortaz, Direktorioak aipatu data baino lehenago sortua behar zuen. Fernández Vázquezen oroitzapenek (1978: 79-80) DRILi buruzko lehen eskuko informazioa ematen dute, baina ez dira oso fidagarriak alderdi ugarian; izan ere, akatsak dituzte, eta bistakoa da bere kide ohiekin (Bayo, Muley, Galvão, Santiago Martínez Donoso...) kontuak garbitzeko espirituarekin idatzita daudela.

eta justizia edo heriotza” zen. Velo Mosquera, Muley Moré, Fernández Vázquez, Delgado eta Galvão ziren buruzagi nagusiak<sup>27</sup>. Dawn L. Rabyren susmoen arabera, baliteke DRILek Mexiko, Venezuela eta Jugoslaviako laguntza ez ofiziala jaso izatea. Hala ere, zalantza gutxi ditu Kubako Gobernu iraultzaileak emandako babesari dagokionez, eta, bide batez esanda, erregimen frankistak bazuen babes horren berri. Laurence Debrayk, Régis Debray teorilari iraultzailearen alabak, gogoratzen duen bezala, uhartea “esperimentazio leku bihurtu zen, zenbaitetan burugabeak zirenak; komunistentzako jolas-parke handi bat”; eta handik, gainera, gerrillak planetaren gainerakora eramateko asmoa zuten. Dena den, Rabyk azpimarratzen du akats bat izango litzatekeela DRILa Fidel Castroren tresna huts gisa ulertzea. Halaber, ez zen egia militanteak jatorriz uhartekoak zirela, Espainiako prentsak salatu zuen bezala: Direktorioko kide kubatar gehienek nazionalitate bikoitza zuten, espainiarra eta kubatarra, edo Espainian jaiotakoak ziren. Nolanahi ere, agintari castristak DRILen atentatuekin lot ez zituzten ahalegindu ziren<sup>28</sup>.

Ezinezkoa da laguntza castristaren hedadura zehaztea, baina Direktorioko kide batzuek idatzitako gutun pare batek bien arteko harremana berresten du. Francoren eta Salazarren diktaduren arteko informazio trukaketa oparoari esker ezagutzen dugu lehen gutuna. Carlos Jiménez Redondok nabarmentzen duen bezala, 1958an “akordio zehatz batera heldu ziren ‘komunisten infiltrazioaren arazoaren’ aurrean jokabide bateratua areagotzeko”. Hala, 1960ko otsailean Portugalgo Kanpo Arazoetarako Ministroak, Marcello Mathias-ek, Espainiak Lisboan zuen enbaxadoreari, José Ibáñez Martíni, Direktorioko buruzagietako baten gutuna eman zion —Fernando Queiroga kapitainarena (jatorrizkoan Alfonso bezala izendatua)—, “gure lagunak zerbitzuek” bidean atzemandakoa. Testuan, Queirogak “Habanatik jasotako laguntza” aipatzen du argi eta garbi<sup>29</sup>.

Ez dakigu bide horri jarraiki ala bestelako bat erabiliz lortu ote zuen Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusiak beste gutun bat, Muleyk *Che* Guevarari idatzitakoa, nahiz eta ziurrenik zirriborro bat izan, ezabaketak eta zuzenketak direla eta. Gutunaren idazleak DRILen garai hartako finantzen irudi ez oso itxaropentsua

<sup>27</sup> Montanyá (2004: 66-75), Alberola, Gransac (2004: 42), Debray (2018: 58-59), eta Raby (1995) eta Montanyá (2004: 70-71, Santos Vargas (2011), Castro Moral (argitaragabea), Jiménez Redondo (2003: 97), Fernández Vázquez (1978: 73) eta Moreira eta Gonçalves (2008: 93). *La Razón*, 1960-II-22.

<sup>28</sup> Raby (1995: 82), Paz Sánchez (2001: 156-157) eta Jiménez Redondo (2003: 97). Portugalgo zenbait iturriren arabera, DRILek laguntza castrista jasotzen jarraitu zuen nahiko gerora arte («Telegrama cifrado del embajador en Bruselas al Ministerio de Asuntos Exteriores», 1961-II-10, AAN, 82/16232 kutxa; 1493/61-GU zenbakidun Informação-a, 1962-IX-11, AD).

<sup>29</sup> «Carta nº 156 del Embajador en Lisboa (Ibáñez Martín)», 1960-II-26, FFFN, 4362 biribilkia. Zentzu berean, Jiménez Redondo (1996: 84-85 eta 2003: 120).

transmititzen du. “Kontu ekonomikoetan baino ez gaude gaizki. Jardueraren lehen epealdia betetzeko, sei edo zortzi astetan zehar, hiru edo lau milioi dolar genituen, gure erakundeek Kuban, Venezuelan eta Argentinan bildu behar zituztenak”. Hala ere, kale egin zuten, “Alderdi espainiarrak, batzuk politikakeriak ustelduak eta besteak kontraekintzari salduak, DRILEk militantziazirik gabe utziko dituela jakitun, Bayo jeneralaren akats larri bati onura bikaina ateratzen ari zaizkiolako: ni espia, frankista, FBIko agentea naizelako salaketa”. Muleyk Guevarari gogorarazi zion Kubako Gobernuak sei pasaporte eman zizkiela, baina ez zuen beste inolako mesederik aipatu. Izan ere, gutunaren helburua erregimen castristari dirua eskatzea zen. “Laguntza behar dugu, eta halako larritasunarekin une honetan, ezen inoiz ezingo baitugu behar beste eskertu ematen zaiguna”<sup>30</sup>.

Muleyren testuak agerian uzten ditu Bayoren ezinikusiak utzitako ondorio txarrak. Azken honek bere biografian aitortu zuenez, “DRILa gure etsairik okerrera bihurtu zen”. Manuel Paz-Sánchezen hitzetan, “deigarria da Bayok DRILi zion gorroto handia, eta (...) haiek erasotzen jarraitu zuen amorru espainiarrez”. Litekeena da Bayoren etsaitasuna dela-eta, Direktorioak castrismoaren mesedea galdu izana. Horrek azalduko luke zergatik eskaintzen zituen Muleyk irtenbide burugabeak, hala nola: “Jeneralak, niri eskolta emateko aitzakiarekin, zaintzaile bat jar diezadala ni garbi ez nagoenean ni hiltzeko, edo ni berehala ordezkatzeko, baina erakundea (ezabatua: edozein zentzutan) ni gabe babestuz”<sup>31</sup>.

Bayo ez zen Direktorioaren etsai bakarra. DRILEk armak hartzeko egindako deia “Berradiskidetze Nazional”etik ezin urrutiago egon arren, bai Salazarren diktadurak bai Francorenak komunismoaren luzakin bat izatea leporatu zioten erakundeari. Indarkeria terroristarekin erlazionatzea arazo larri bat zen PCerentzat, eta azken honek bere burua defendatu zuen, ez bakarrik DRILengandik publikoki bereiziz, baita haren babesak hondatzeko eta haren atentatuen ardura erregimenari berari egozteko ahaleginak eginez ere<sup>32</sup>. Taktikak nolabaiteko arrakasta izan zuen. Kuban Santiago Álvarez beteteranoa Fidel Castrorekin elkarriketatu zen. “DRILena azaldu nion. Bayoz eta arazo horiez guztiez hitz egin genuen, eta berak argitasun handia dauka horri guztiari buruz”. Álvarez Bayorekin berarekin bildu zen, eta DRIL

<sup>30</sup> Jiménez Redondo (2003: 97 eta 99). «Carta manuscrita de M. Rojas a Ernesto Guevara sobre las acciones del DRIL en España», 1960, FFFN, 5164 biribilkia.

<sup>31</sup> Ibidem. Monreal (1961: 158), Paz Sánchez (2001: 175-179), Piñero (2000: 85-88), Raby (1995: 67), Fernández Vázquez (1978: 79-80), Campos Álvarez (2001), Castro Moral (argitaragabea), Hernández Sánchez (2005: 316), Jiménez Redondo (1996: 84-85) eta Hernández (2005: 314-316). Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1959-XII-30, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53100 espedientea. DRILi buruzko txostena, 1961-II-17, <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFFondo/irujo/6270.pdf>

<sup>32</sup> Jiménez Redondo (2003: 97). «Carta manuscrita de M. Rojas a Ernesto Guevara sobre las acciones del DRIL en España», 1960, FFFN, 5164 biribilkia.

“probokatzailen eta Francoren espioien eskutan erori zela” iragarri zion. PCEn zuzendaritzaren txosten batean Álvarezek berak Direktorioa salatzea gomendatu zuen, Bayo jeneralarekin bizi zuen haustura egoera baliatuta. Bien bitartean, alderdiaren adierazpen organoek eta kideko prentsak probokazio frankistatzen jo zituzten Direktorioaren bonbak, komunisten aurkako errepresioa areagotu ahal izateko jarriak<sup>33</sup>.

Oposizio tradizionalaren beste indar batzuek, hala nola PSOEek, PNVk eta erakunde errepublikanoek, DRILen atentatuak gaitzetsi zituzten ere, eta “abenturismoaren” eta “terrorismoaren” erakusgarritzat jo zituzten. Bayoren eta PCEn difamazioak errepikatuz, ez zen falta izan DRILEko kideak frankismoaren agente probokatzailatzat jo zituenik, edo AEBko agente probokatzailatzat bestela, Frantziako Gobernuarekin konplizitatearekin. Adibidez, taldeko hiru kidek FBIrentzat lan egin zutela salatzen du Manuel Irujo Funtsean dagoen txosten anonimo batek. Ironikoki, diktadurak bazekien DRILen indarkeriak beste indar antifrankisten etsaitasuna eragiten zuela. Txosten konfidentzial baten arabera, “talde gorrien artean ere ez dago aho batasunik. Haietako asko ekintza terrorista horretatik kanpo daude, nardagarria iruditzen zaie ere”<sup>34</sup>.

### 3. “HEROIAK ALA MARTIRIAK”. LEHEN ATENTATUAK

DRIL berehala hasi zen jardunean. Arestian aipatutako Muleyren gutunari esker —*Che* Guevarari idatzitakoa alegia—, jatorrizko plana hiru hiritan atentatuak aldi berean egitea zela jakin dezakegu, baina azkenean, Madrilen besterik ez zituzten egin, “baliabide eskasia” zela eta. Agintari frankistek esku artean zituzten iturrien arabera, Habanan bizi zen hispaniar-kubatar batek, Santiago Martínez Donosok, Graciela izeneko neska gazte baten gutuna jaso zuenean hasi zen dena. Espainiako hiriburura lehenbailehen etortzeko eskatu zion Gracielak, bai eta hegazkin-txartel bat erosteko beharrezko dirua eman ere. Hala ere, bisaren eskaeran “senideak

<sup>33</sup> Álvarez (1994: 257-259 eta 267) eta Santidrián (2000: 131-192). *Mundo Obrero*, 1960-XI. *L'Humanité* egunkariari egindako aipamena *Euzko Deyan* (Paris), 1960-III-1. *Le Monde*, 1960-II-22 eta 24.

<sup>34</sup> Raby (1995: 71). DRILi buruzko txostena, 1960-V-17koa, honako web-orri honetan: <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFFondo/iruj/11119.pdf>. «Informe confidencial sobre la agitación terrorista y subversiva», 1960?, FFFN, 4374 biribilkia. «Circular 3. Secretaría a todas las secciones y grupos departamentales», 1961-XI-10, Largo Caballero Fundazioa, Benito Alonso Funtsa, 137/21. PSOE erbestean. Informazio eta Prentsako Kontseilariak Kanpo Arazoetarako Ministerioari bidalitako 10. txostena, Habana, 1960-III-5, AAN, 54/5360 kutxa.

bisitatzeko” bidaiatzen zuela idatzi zuen. Edozein kasutan, Habanako Negozioen arduradunak “erakunde terroristaren gunea Kuban eta operazio-gunea, berriz, Madrilén zegoela” ondorioztatu zuen, “eta Martínezen ustezko neska-lagunak aparotasunez zerabilen dirua (...) hemendik zetorrela”<sup>35</sup>.

Dokumentazio judizialak agerian jartzen duen bezala, Gabriela ez zen existitzen: Martínez Donosori zuzendutako gutuna idatzi zuena ez zen emakume bat, ezta DRILEko kidea ere. Ángel Martín Ferreras zen, *Cabezón* goitizena zuen proxeneta bat. Espainiako hiriburutik bidali zuen gutuna, han bizi baitzen, Abderramán Muleyk hala eskatuta: 1953tik ezagutzen zuten elkar, Martín Ferrerasesk Muleyren emaztearen ahizparekin harreman sentimental bat izan zuenetik. Geroztik, adiskidetasun harreman bat izan zuten, elkarri bidalitako gutunek frogatzen duten bezala<sup>36</sup>. Datuak Ikerketa Sozialeko Brigadaren hipotesia indartzen du: lehen kanpainaren eragilea Abderramán Muley izan zen, “DRILEn ordezkaria Europan eta Iberiar Penintsulan egin beharreko ekintza terroristen buruzagi goren, Venezuelatik eta Kubatik zetozen diru-funtsak erabiltzen zituena”<sup>37</sup>.

Operazioa Muleyri bururatu ahal izan bazitzaion ere, Madrileko nondik norakoa Santiago Martínez Donosoren esku egon zen. 1959ko urrian heldu zen Espainiara, nahiz gero bi bisitaldi egin DRILEn historiarekin hertsiki lotua dagoen Toulouse (Frantzia) hirira. Martínez Donosok Habanako *La Calleren* kazetaritzat aurkeztu zuen bere burua: zenbait artista elkarrizketatzera heldu zen ere. Estalgarri horrekin eta harremanak “oparotasunez” zituela, zenbait komando sortzen saiatu zen. Gutxienez bi ingurune ezberdinetan hala egin zuela ziur dakigu. Lehenaren erdigunea Ángel Martín Ferreras izan zen. Poliziaren iturrien arabera, “hura eta bere lagunak “edaritegietara, dantzalekuetara joaten ziren, eta moralik gabeko eta eskrupulu gutxiko gazte gisa agertzen ziren”. Izan ere, hilabete batzuk geroago poliziaren aurrean aitortuko zuen bezala, Martín Ferrerasesk ez zuen inolako apeta iraultzailerik. Haren helburu nagusia Santiago Martínez Donosorengandik dirua lortzea zen, eta azken hau bere ustezko mendekoa luzamendutan zebilela ohartu zenean, harreman oro moztu zuen harekin. DRILEko mandatariak zorte handiagoa izan zuen Luzón tabernaren jabe zen Justiniano Álvarez Monterorekin,

<sup>35</sup> «Carta manuscrita de M. Rojas a Ernesto Guevara sobre las acciones del DRIL en España», 1960, FFFN, 5164 biribilkia. «Telegrama del Encargado de Negocios de España al Ministro de Asuntos Exteriores», 1960-III-9, FFFN, 4356 biribilkia. «Telegrama del Encargado de Negocios Habana al Ministerio de Asuntos Exteriores», 1960-II-29, FFFN, 4365 biribilkia.

<sup>36</sup> Muturreko Jardueren Auzitegi Nazional Bereziaren 971/1960 kausa, Defentsako Artxibo Orokor eta Historikoa (DAOH).

<sup>37</sup> Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1961-II-23, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53102 espedientea. Bisa-eskaera, AAN, 82/16232 kutxa.

eta Madrilen egon bitartean taberna hartara joan zen sarritan. Gerra Zibilean matxinatuek eraildako senar-emazte batzuen semea zen ostalariari Fidel Castrori zion debozioaz eta DRILaz hitz egin zion, eta “Madrilen eta Portugalen gerrilla batzuk Erregimenaren aurka iraultza egiteko prest zeudela” esan zion, Kubaren eta Venezuelaren babesa zutenak. Era berean, Martínez Donosok bere lehengusua bera, Antonio Abad Donoso, errekrutatu zuen, eta arrazoi politikoengatik baino gehiago, Habanara berarekin eramango zuelako promesarekin konbentzitu zuen. Justu Frantziara bere bigarren bidaia egin aurretik, Pavón zinemaren goraguneetan etxean egindako bonba bat jartzeko agindua eman zion, “eraikin zaharra zenez, erraza baitzen sute bat sortzea”, baina Abad Donoso ez zen ausartu. 1960ko otsailaren hasieran Martínez Donoso plan berri batekin, lehergaien kargamentu batekin —Álvarez Monterok bere lokalean ezkutatu zuena— eta DRILEko beste militante batekin, José Ramón Pérez Juradorekin, itzuli zen Espainiako hiriburura<sup>38</sup>.

1960ko otsailaren 18an Antonio Abad Donosok eta José Ramón Pérez Juradok lau bonba jarri zituzten Madrilen (ikus eranskinak), alde aurretik Martínez Alonsok egindakoak. Lehena egunsentian lehertu zen langileen espedienteen tramitaziora irekitako korridore batean, Madrileko Udaletxearen behe aldean. Kristalak hautsi zituen, kalteak eragin altzarietan, eta suhiltzaileek itzali behar izan zuten sute bat. Guztira, 128.168,144 pezetatan (gaur egungo 29.500 euro) zenbatetsi zituzten kalteak. 8:10ak aldera beste leherketa bat egon zen Toledo kalean. Polizia heldu zenean, gizon bat topatu larriki zaurituta baina oraindik bizirik. Pérez Jurado zen. Eskatutako anbulantzia atzeratu zenez, agenteek berek handik igaro zen kamioi batean eraman zuten Probintziako Ospitalera, eta han hil zen 12:00tan. Haren gorpuan Toulouseko hiru posta-helbide topatu zituzten<sup>39</sup>.

Geroago, Ordena Publikoaren Indarrek bi bonba desaktibatu zituzten. Bata Cánovas del Castillo plazan Iberiak zituen bulegoen gizonen komunaren uraren deposituan ezkutatua zegoen. Garbiketako emakumeak aurkitu zuen. Laugarrena eta azkena Velázquezaren estatuaren azpian aurkitu zuten, El Prado museoaren ondoan. Lehergailuak berdinak ziren: barruan iratzargailu bat, pila bat, detonagailu elektronikoko bat eta tolamitako bost kartutxo —bakoitza 100 gramokoa— zituen egurrezko kutxa bat. Tolamita, Frantziako konpainia batek egina, “amonio nitratoz, nitroglizerinaz, bentzeno mononitratoz, nitrozelulosaz eta egur-irinez egindako nahasketa bat zen”<sup>40</sup>.

<sup>38</sup> Muturreko Jardueren Auzitegi Nazional Bereziaren (MJANB) 971/1960 eta 207/1960 kausak.

<sup>39</sup> Montanyà (2004: 9-20), Suárez Fernández (1987: 229-233), Jiménez Redondo (2003: 99) eta Fernández Vázquez (1978: 83-86). 207/1960 kausa, DAOH. ABC, 1960-II-20 eta 27. *The New York Times*, 1960-II-21.

<sup>40</sup> Montanyà (2004: 9-20), Suárez Fernández (1987: 229-233), Jiménez Redondo (2003: 99)

Santiago Martínez Donosok Frantziara egin zuen ihes, baina Antonio Abad Donosok eta Justiniano Álvarez Monterok ez zuten ihes egitea edo Kubako Enbaxadan babestea erabaki, komandoko arduradunak “egoera larrian egonez gero” gomendatu bezala. Aitzitik, beren bizitza normalarekin jarraitu zuten biek. Poliziak luze gabe atxilotu zituen. Tolamitako 150 kartutxo, 8 detonagailu eta metxa azkarreko 2 metro konfiskatu zituzten baita ere.

Atxilotuen aitortzek jakitera ematen dutenez, hasiera batean DRILeko komandoak lehergailuak jartzea aurreikusi zuen Madrileko Udaletxean, Iberian, Seguritasuneko Zuzendaritza Orokorrean eta Gorteen Jauregian, brontzezko bi lehoietako baten azpian, deflagrazioaren ondorioz metraila bihur zedin. Antonio Abad Donosok eta José Ramón Pérez Juradok ez zuten inolako zailtasunik topatu Udaletxean. Are gehiago, Justiniano Álvarezen esanetan, “ekintza horrengatik zoriondu eta besarkatu egin zituzten bai Santiagok bai adierazpen-egileak”. Bigarren kasuan arrakasta eduki zuten ere. Dena den, beste bi lekuetara joatean, horrenbeste jende topatu zuten, planak aldatzea erabaki zutela. Jende asko zegoen baita ere Etxe Sindikalaren inguruan, Sustapeneko Ministerioan eta Kanpo Arazoetarako Ministerioan. Aukera faltaren aurrean, hirugarren bomba Velázquezen estatuaren azpian jartzea erabaki zuten, Pradoren ondoan. Madriletik bueltaka aritu, eta Manzanasesera botatzea baztertu ostean, hirugarren lehergailua Toledo kaleko 154. zenbakiaren parean zeuden galtzada-harri batzuen artean ezkututzen saiatu zen Pérez Jurado. Manipulazioak mekanismoa aktibatu zuen, eta detonazio bat sortu zen, hiltzeraino zauritu zuena. Abad Donosok aitortu zuenez, “Ramón atzeraka erortzen zela ikusi zuen, eta laborriak jota, oinez joan zen Justinianoren etxera, hau da, tabernara, non gertatutakoa kontatu zuen”<sup>41</sup>.

Prentsak jasotakoaren arabera, “soldatapean dauden gizabanako batzuek, herritartasun kubatarra dutenek, antolatutako plan iraultzaile bat”en zati bezala ikusten zituzten agintari frankistek atentatu horiek. Terroristen aurrekontua milioi eta erdi dolarrekoa izango litzateke, eta kopuru hori bat zetorren Parradasek 1959ko apirilean emandakoarekin. Zelularen buru Martínez Donoso “kubatarra” egongo litzateke, Toulousetik La Calle egunkariaren kazetari gisa Espainiara etorria. Haren etxean lehergai plastiko eta suntsigarriko 150 kartutxo topatu omen zituzten, “guztiak ere frantses jatorrikoak”. Ekintzaileak kubatarrek ziren, baina “Espainiako osagai deserrotuak” zeuden tartean, “nazioarteko komunismo terroristaren aginduen mende zeudenak”. Bi ohar ezkutukok adierazten zuten, atentatuen prestaketa Frantzian burutu zelako frogak zeuden, eta, ondorioz,

---

eta Fernández Vázquez (1978: 83-86). «Carta manuscrita de M. Rojas a Ernesto Guevara sobre las acciones del DRIL en España», 1960, FFFN, 5164 biribilkia. ABC, 1960-II-20 eta 27. *The New York Times*, 1960-II-21.

<sup>41</sup> 207/1960 kausa, DAOH.



Kanpo Arazoetako Ministerioak “protesta kementsua” egin zion herri horrek Madrilen zuen Enbaxadari: “lasaitasunaren eta espainiarren bizitzaren aurka burututako terrorismoko ekintzak Toulousen antolatutako eta prestatuak izan dira materialki”<sup>42</sup>.

Frantziar konexioa egon arren, berriro agertuko dena, Espainiako dokumentazio diplomatikoak erakusten zuenez, “aztarna guztien arabera, kubatarren parte-hartzea kablegrametan islatzen dena baino askoz zabalagoa da”. Lisboan zegoen enbaxadore castristaren kolaborazio zuzenari buruzko susmoak ere izan zituzten, Madriletik igaro baitzen. Hala ere, litekeena da herrialde horri behin eta berriz egindako aipamenek egoera oso jakin bati erantzutea ere. 1960ko urtarrilaren 20an, atentatuak baino hilabete bat lehenago, telebistak zuzenean emititutako programa batean, Fidel Castrok bere erregimenaren oposizioarekin —uharte barruan sabotaje ekintzak egiten ari zena— elkarrekin lan egin izana leporatu zion diplomazia frankistari. Suminduta zegoen Espainiako enbaxadoreak, Juan Pablo Lojendiok, platoon agertu, eta aurre egin zion. Castrok hura kanporatzeko agindu zuen. Tentsio diplomatikoak egon ziren Kubaren eta Espainiaren artean, baina Francok uko egin zion enbaxadorearen keinuari babesa emateari, eta negozioen arduradun zuhurrago batengatik ordezkatu zuten. Bien desadostasun ideologikoak eta AEBen presioak gorabehera, diktadura frankistak inoiz ez zituen harremanak hautsi diktadura castristarekin. Hala ere, 1960. urtearen hasieran, Direktorioaren lehen kanpaina terroristarekin batera, hala egiteko puntuan zegoela ematen zuen<sup>43</sup>.

DRILen Gaztelako Komandoen Buruzagitza irreal batek hartu zituen bere gain bonbak, baina, sintomatikoki, zenbait komunikabide kubatarrek komunikatua errepikatu zuten. “1960an heroiak edo martiriak izango gara”, izan zen operazioak buru izan zuen entseina, Fernando Queirogari bidean atzemandako gutunaren arabera bederen. Baina “martiriak” baino ez ziren egon: dagoeneko hilik zegoen José Ramón Pérez Jurado eta Antonio Abad Donoso. Enrique Eymar koronelaren Muturreko Jardueren Auzitegi Nazional Bereziak, Ordena Publikoaren Auzitegiaren aurrekari zuzena zenak, prozesu sumarisimo bat ireki zuen,

<sup>42</sup> ABC, 1960-II-27. *The New York Times*, 1960-II-27. *Euzko Deya* (Paris), 1960-III-1. «Nota reservada al embajador en París», 1960-II-29, eta «Nota verbal del Ministerio de Asuntos Exteriores a la Embajada francesa en España», Madril, 1960-II-25, AAN, 82/16232 kutxa.

<sup>43</sup> Paz Sánchez (1997: 302-304 eta 2006a: 222-224) eta Hosoda (2010). ABC, 1960-I-24 eta 2016-XI-30. «Nota del Director General de Plazas y Provincias africanas al Subsecretario de Asuntos Exteriores», Madril, 1960-III-14, AAN, 82/16232 kutxa. Informazio eta Prentsako Kontseilariak Kanpo Arazoetarako Ministerioari bidalitako 9. eta 11. txostenak, Habana, 1960-II-27 eta 1960-III-12, AAN, 54/5360 kutxa.

2076/60 kausa, akusatuentzat inolako bermerik eduki ez zuena. Abad Donosori heriotza zigorra ezarri zioten “terrorismoko delitu burutu batengatik”. 1960ko martxoaren 8ko goizeko 5:00etan egin zen fusilamendua. Beste akusatuari, Álvarez Monterori, 30 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. Azken finean, Direktorioaren lehen kanpaina-terrorista porrot handia izan zen. “Hauxe da egin duguna”, aitortu zion Muleyk Che Guevarari. “Gutxi. Baina ondorio handikoa maila psikologikoan, geuk aurreikusi bezala”. Zentzu horretan, Abad Donosoren exekuzioak oposizioaren zati batek DRILekiko elkartasuna erakusteko balio izan zuela aipa daiteke, eta, antza denez, indartuta atera zen erakundea, Frantzian eta Belgikan zeuden erbesteratu espainiar batzuk hartan sartu zirelako. Bestalde, Camilo Mortágua Direktorioko buruzagi portugaldarraren hitzetan, bere kideen heriotzak “*obrigou os responsáveis a concluir que essa estratégia de querer “mandar predadas” de uma margem para outra do Atlântico, na prática, só servia para mandar “borregos” para o matadouro*”. Irakaspen hori oso gogoan izan zuten bere hurrengo kanpaina terroristan<sup>44</sup>.

“*Aquelas explosións eran o primeiro engado para atraer a atención do mundo, sobre unha ditadura de 24 anos*”, idatzi zuen José Velok bere oroitzapenetan. Espainiako Kanpo Arazoetarako Ministerioaren ezkutuko zirkular baten arabera, Velo bera zen “DRILeko presidentea 1960ko hasieran, eta Espainian otsailean eta ekainean gertatutako ekintza terroristak zuzendu zituen”. Edozein kasutan, Direktorioak bere burua ezagutzera eman zuen. Caracasen 1960ko apirilaren 9an ospatutako mitin batean Velok iragarri zuen bere borroka modu bortitzean hasi zela egoerak hala behartuta: Iberiako herrialdeak erabateko hondamenetik salbatzeko modu bakarra zen. Dena den, Direktorioaren epe motzeko helburuak ezagutzeko, baliagarriagoa da Muleyk Guevarari idatzitako gutuna: “Francoren Egonkortze Ekonomikoko Plana porrot eginarazi eta Espainia NATOn sar dadin eragotzi”. Hori lortzeko, DRIL erakundea “turismoaren atzerakuntza (gaur egun Francoren dibisa iturri ezin nagusiagoa) eragingo duten ekintzak” prestatzen ari zen, “baita kapitalen inportazioa gutxitu eta atzerriko kapitalen ihes-prozesua bizkortuko dutenak ere”. “Hiri

<sup>44</sup> Mortágua (2009: 197), Raby (1995: 69) eta Paz Sánchez (2001:154). ABC, 1960-III-9. *The New York Times*, 1960-III-9. «Carta nº 156 del Embajador en Lisboa (Ibáñez Martín)», 1960-II-26, FFFN, 4362 biribilkia. *Boletín de Información de la Unión de Intelectuales Españoles*, 1960-VI/VII. «Carta manuscrita de M. Rojas a Ernesto Guevara sobre las acciones del DRIL en España», 1960, FFFN, 5164 biribilkia. «Telegrama del Encargado de Negocios en la Habana al Ministerio de Asuntos Exteriores», 1960-II-26, FFFN, 4361 biribilkia. Avilako Artxibo Militar Nagusia (AAMN), 23.162 kutxa. «Informe sobre el DRIL» en arbera, Madril, 1961-III-14, AAN, 82/16257 kutxa, Direktorioko kideek “protomartirtzat jotzen dute Ramón Pérez Jurado terroristat”.

handietan petardo alarmistak leherraraztea eta atzerriko kapitala duten industrien [ezabatua: fabriken] eta komunikazioen aurka sabotajeak [ezabatua: lehergarriekin] burutzea” izango litzateke kontua”<sup>45</sup>.

Madrileko atentatuek kezka eragin zuten agintari frankisten artean. 1960an Kanpo Arazoetarako Ministroak, Fernando María Castiellak, martxoan Segur-tasuneko Zuzendaritza Nagusiari Direktorioari buruzko informazioa eskatu zionak, AEBetako Estatu idazkariari aitortu zionez, erregimena kezkatuta zegoen Kubara erbesteratutako espainiarren jarduerarekin. Ez da harritzekoa, beraz, DRILi buruzko datuak biltzen hasia<sup>46</sup>. Hala, Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletin batek 1960ko apirilko Caracasko mitinaren berri jaso zuen, non taldeak laguntza ekonomikoa eskatu baitzuen bere jarduerarako. Informazioaren kalitate eskasa ikusita, ziur asko Venezuelako prentsak argitaratutakoan oinarritzen zen. Gutunez eta oharren batez gain, erregimenak zuen informazio iturri bakarrenetakoa Santiago Martínez Donosoren aita zen, Manuel Martínez Álvarez, zeina Habanako Enbaxadan agertu zen bere semea atentatueta nahastuta zegoela jakiterakoan. Egiatan, ez zekien ia ezer Santiagoren militantziak: duela “zenbait urte” harekiko aginpidea galdu zuela, “haren jarduna minez” ikusten zuela eta dirudienez giro komunistetan mugitzen zela baino ez, iraganeko uneren batean Batistaren diktadurarekin kolaboratu zuen arren. Kanpo Arazoetarako Ministerioari Latinoamerikako prentsak Direktorioari buruz argitaratutako albiste guztiak eman zizkioten baita ere, batez ere Kubakoak argitaratutakoak, nahiz eta ez ziren oso sinesgarriak. Adibidez, Habanako egunkari batek DRILEk 37 milioi pezeta (gaur egungo 8,5 milioi bat euro) zituela iragarri zuen, “kanpaina terrorista egiteko, eta erregimenari egindako erasoei erantzunez herriaren aurkako errepresaliak hartzen dituen edonor heriotzara kondenatuko du”. Gobernuak ez zuen askoz gehiago. “Asaldura terrorista eta iraultzaileari buruz”ko ezkutuko txosten batek ohartarazten zuen bezala, ziur asko 1960koa, “Hispanoamerikan, arazo honi dagokionez, agintari espainiarren pasibotasuna

---

<sup>45</sup> Gai Kontsularrei buruzko Zuzendaritza Nagusiaren 71 zenbakidun ezkutuko zirkularra, Madril, 1961-III-10, AAN, 54/11869 kutxa. Veloren aipua Martiz Crespon (2016: 23), Piñeron (2000: 92) eta Rabyn (1995: 70). «Carta manuscrita de M. Rojas a Ernesto Guevara sobre las acciones del DRIL en España», 1960, FFFN, 5164 biribilkia.

<sup>46</sup> «Nota del Servicio de Información de la Dirección General de Seguridad», 3130. zenbakiduna, 1960-III-28, AAN, 82/15003 kutxa. «Memorandum of Conversation», 1960-III-23, Office of the Historian, <https://history.state.gov/historicaldocuments/frus1958-60v07p2/d323>. Ordu arte, OPIek Bayori eta UCERi buruzko informazio urria zuten, Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletinetan ikus daitekeen bezala, 1959-III-17, 1959-III-28 eta 1959-XII-30, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53100 espedientea.

handia izan da. Madrilen berriki gertatutako pizte terroristaren ondorioz —bistan denez, atzerritik zuzendua—, horretaz gehiago kezkatuko direla suposatzen dut”. Txostenaren egileak, funtzionario anonimo batek, bere burua eskaini zuen hiriburura bidaiatu eta “honetaz guztiaz Francori zuzenean berri emateko. Presazkoa da etsaia Hispanoamerikan egiten ari dena ezagutzea eta hari modu egokian aurre egitea”<sup>47</sup>.

Portugalgo gobernuak homologo espainiarraren interesa partekatzen zuen. Bi diktadorek DRILi buruzko informazioa trukatu zuten, hala nola *Estado Novoko* Kanpo Arazoetarako ministroak Lisboako enbaxadoreari eman zion Queirogaren gutuna. Aipatu dokumentuak “urte honen lehen seihilekoan Espainian eta Portugalen lehertuko den iraultzaren prestaketak” aipatzen zituen. Lehen epealdia “plastikozko bonbekin terrorismoko ekintzak eragitea” izango litzateke, “eta diotenez dagoeneko badituzte”. José Ibáñez Martín enbaxadoreak Kanpo Arazoetarako Ministerioari ohartarazi zionez, “benetako egitatea da bonbak Madrilen lehertu direla, baita hirian aurkitutako tresneria terrorista guztia ere, eta horiek garbi adierazten dute zerbait zinez benetakoa eta egiazki kriminala dela”<sup>48</sup>.

Dena den, DRILa, iturri diplomatiko eta polizialei kasu egitera, erregimen frankistak gainean zituen itzal askotariko bat baino ez zen. Batzuk benetakoak ziren, beste batzuk ez horrenbeste. Adibidez, 1960ko otsailean eta martxoan Erromako enbaxadoreak behin eta berriz ohartarazi zuen ontzidi bat Espainiara zihoala “Txekoslovakiatik estilografiko itxurako lehergai txikiz betea, nihilistek hasitako kanpaina baterako”. Ohikoa zen zenbait diplomatikok zurrumurru hutsei bidea ematea eta armetarako deia egiten zuten taldexka antifrankisten benetako ahalmena puztea. Taldexka horien hotsandiko planak, penintsula indarrez hartzeko eta gerrillen borroka berpizteko, inoiz ez ziren gauzatu. Gainera, kontuan izan behar dugu ezen, orduan Ikerketa Sozialeko Brigadako inspektore zen José Sanzen hitzetan, “garai hartan antzematen ziren jarduera iraultzaile guztietatik (...) poliziaren arreta gehien jasotzen zutenak Alderdi Komunistarenak eta bere sateliteenak ziren”. Lan mota horretan “perfekzionatuenak ziren, eta, hortaz, aurkitzeko zailenak guretzat”. Ustezko

<sup>47</sup> Paz Sánchez (2001: 154) eta Pardo Sanz (2007). Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1960-IV-27, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53100 espedientea. “Telegrama del Encargado de Negocios La Habana al Ministerio de Asuntos Exteriores”, 1960-II-29, FFFN, 4365 biribilkia. «Telegrama del Embajador en Tegucigalpa al Ministro de Asuntos Exteriores», 1960-III-1, FFFN, 4358 biribilkia. «Informe confidencial sobre la agitación terrorista y subversiva», 1960?, FFFN, 4374 biribilkia.

<sup>48</sup> «Carta del embajador en Lisboa al Ministerio de Asuntos Exteriores», 1960-II-26, FFFN, 4362 biribilkia.

eraginkortasun hori diktadoreak eta honen eskuin eskuak, Luis Carrero Blanco almiranteak, zeukaten obsesio antikomunistari gehitzera zetorren, erregimena PCEk antolatutako nazioarteko konspirazio baten mehatxupearan zegoela uste baitzuten. Ez da harritzekoa Poliziak komunisten aurkako borrokari “ikerketa-lan handiena” eskaintzea. Edo beste erakunde batzuen krimenak leporatzea, nahiz eta nahasmen horretan ezin den kalkulu interesatu bat baztertu. Edozein modutan, DRILa ez zen haien lehentasuna. Francok 1960ko martxoaren 18an Eisenhower presidenteari bidalitako gutun batek baieztatzen du hori, non diktadoreak Kuba aipatzen duen gero eta hurbilago dagoen mehatxu sobietarraren engranaje bat gehiago bezala. Beharbada, horregatik ez zitzaion jaramon handiegirik egin Eduardo Groizardek, Habanako Negozioen arduradunak, Kanpo Arazoetarako Ministerioari 1960ko maiatzean bidalitako telegrama bati: “Jerónimo Buggedarekin (Kuban erbesteratua dagoen enpresari eta politiko ohi sozialista espainiarra) hizketaldia honek dio konfiantzazko pertsona bat Espainiarantz atera dela Alberto Bayo kapitain ohiak emandako diruarekin zortzi terrorista misio jakin batzuekin”<sup>49</sup>.

## **4. AMARAKO GELTOKIA, 1960KO EKAINAREN 27A**

1960ko ekainaren 20an eta 21an Franco eta Salazar diktadoreen arteko topaketa bat egin zen Meridan, eta biek ondoan izan zituzten zegozkien kanpo

---

<sup>49</sup> Erice (2017: 55), Moradiellos (2018: 49), Suárez Fernández (1987: 230-233), Sainz González (1994: 127) eta Erice (2017). Espainiak Erroman zuen enbaxadorearen gutunak eta telegramak Kanpo Arazoetarako Ministroari, 1960ko otsaila eta martxoa, FFFN, 4355, 4357 eta 4364 biribilkiak. «Telegrama del Encargado de Negocios en La Habana al Ministerio de Exteriores», 1960-V-13, FFFN. «Letter From Chief of State Franco to President Eisenhower», 1960-III-18, Office of the Historian, <https://history.state.gov/historicaldocuments/frus1958-60v07p2/d320>. 1960ko maiatzean Espainiako eta SESBeko selekzioek partida bat jokatu behar zuten Madrilan, baina bertan behera geratu zen (ABC, 1960-V-26). DRILen mehatxu zehaztugabeak bertan behera uztearekin zerikusia izan zuela planteatu izan da, nahiz eta batzuetan nahastu egiten den gertaera hura Franco Generalísimoaren Koparen inaugurazioan erailtzeko planarekin. Itxura denez, plana burutzeko ardura zuen Direktorioko ekintzailearen zalantzagatik kale egin zuen planak (Fernández Vázquez, 1978: 86-90, Suárez Fernández, 1987: 233, Jiménez Redondo, 2003: 101, Castro Moral, argitaragabea). Hala ere, badirudi 1960ko nazioarteko partida bertan behera geratzeko erabakia arrazoi politiko eta propagandistikoengatik hartu zuela diktadurako Ministroen Kontseiluak segurtasun arrazoiengatik baino gehiago (Ramos, 2013, eta Franco Salgado-Araujo, 1976: 291).

arazoetarako ministroak eta enbaxadoreak. Elkarrizketak Hitzarmen Iberikoa sendotzeko balio izan zuen<sup>50</sup>. Bileratik astebete baino gutxiago igaro zenean, atentatu terrorista sorta bat gertatu zen Espainiaren ipar-erdialdean.

Ekainaren 26an, 20:30ak aldera, lehergailu batek Bartzelona-Madril ibilbidea egiten zuen tren baten ekipajeen bagoian eztanda egin zuen, Quinto eta Pina de Ebroko (Zaragoza) geltokien artean. Furgioia erre egin zen. Hurrengo egunean, ekainaren 27an, leherketak izan ziren trenbideko lau terminalen ekipajeen kontsignan, bai eta suteak piztu ere lauetan: goizeko 8:00tan Bartzelonako Norteko geltokian; 17:25etan Donostiako Norteko geltokian; 19:10etan Donostiako Amarako geltokian eta, arratsalde horretan bertan, Madrilgo Norteko geltokian. Azkenik, ekainak 29an, 6:30tan, beste atentatu bat izan zen Bilboko Atxuriko geltokian<sup>51</sup>.

Ekainaren 28ko prentsak Gobernazio Ministerioaren ohar bat errepikatu zuen, zenbait xehetasun ematen zituena. Adibidez, bomba su-eragileak zituzten maleten bidez egin zela kanpaina. Egiletzari dagokionez, testua nahiko anbigua da. “Atzerriko zenbait pertsonak, Espainiako separatistekin eta komunistekin lankidetzan, behin eta berriz defendatzen ari diren kontsigna terroristak bete nahi izan dituzte gertaera horiekien”<sup>52</sup>.

Ondotik etorri zen Bizkaiko Gobernu Zibilaren komunikatuak ez zuen ezer argitu horri dagokionez: Atxuriko lehergailua “terrorismoko ekintza bat gehiago” zen, “Gobernazio Ministerioak berriki argitara emandako ohar batean aipatzen zituen horietako bat”. Abiadura handiko merkantzien biltegian Donostiatik zetorren maleta batek eztanda egin zuen, “komunikatu ofizial hartan aipatutako beste maleta horiek fakturatuak izan ziren egun berean fakturatua. Leherketak sute bat eragin zuen, eta nahiz eta berehala itzali, han utzia zegoen ekipajearen zati bat kaltetu zuen”. “Ordena eta lasaitasun publikoaren etsai batzuen jokabidearen

<sup>50</sup> ABC, 1960-VI-22 eta 23. *Diário da Manhã*, 1960-VI-22. Meridako elkarrizketaren espediente AANn aurki daiteke, 82/16257 kutxa. Horri buruzko informazioa dago baita ere Nafarroako Unibertsitateko Artxibo Nagusia (NUAN), 39/646 kutxa. Bonbak bilera horri emandako erantzun gisa interpretatu izan dira, edo Antonio Abad Donosoren exekuzioagatik egindako mendeku gisa, baina ezin da baztertu ekintza-ondorio estrategiaren proba bat izatea: “badakigu Espainiako Polizia bere onetik ateratzeko informazioa dagoela, ‘atxiloketa-boladak’ egon daitezten, eta horiek, era berean, gazteriaren eta apaizeriaren zati batengan ondoez larria eragin dezaten” (Informazio eta Prentsako Kontseilariak Kanpo Arazoetako Ministeriora bidalitako 25. zenbakidun Txostena, Habana, 1960-VII-2, AAN, 54/5360 kutxa).

<sup>51</sup> *La Vanguardia*, ABC, *El Diario Vasco* eta *La Voz de España*, 1960-VI-28. *Oficina de Prensa de Euzkadi*, 1960-VII-1. *Alderdi*, 1960-VI. *Resumen Informativo de Prensa* (RENFE), 1960-VII-1.

<sup>52</sup> *Ibidem*.

froga”tzat jo zuten agintariak, “baina jarrera kriminal horrek hiritarren protesta ekarri du, ahobatezko gaitzespen bihurtu dena”<sup>53</sup>.

Suteak eta txikizioak gorabehera, atentatu gehienetan ez zen zoritxar pertsonalik deitoratu behar izan. Salbuespen bakarrak sinbolismo handia duen Donostiako hirian gertatu ziren, Francok bertan pasatzen baitzuen udaldia. Erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzaren organo ofiziala zen *Oficina de Prensa de Euzkadiren* arabera, Norteko geltokiko bonbak “egongelako kristalak hautsi zituen, nasarantz eta trenkadetarantz ziztu bizian atera zirenak, eta horrek sute txiki bat eragin zuen gainera, suhiltzaileek itzali behar izan zutena. Kontsignaren arduraduna den Carlos Iñigo Acevedo (...) arinki zauritua gertatu zen kopetan, eta sorospen-etxean sendatu zuten”<sup>54</sup>.

Amarako geltokiko kontsignan lehertu zen lehergailuaren ondorioak askoz ere tragikoagoak izan ziren. *Oficina de Prensa de Euzkadiren* arabera, “jende asko zegoen egongelan, eta txintxorrek eta sugarrek zenbait pertsona harrapatu zituzten. Leherketak departamenduko trenkadak jausarazi, eta sute bat eragin zuen han zeuden maletetan; ondorioz, suhiltzaileek esku hartu behar izan zuten”. Sei hiritar gertatu ziren zaurituak, haietatik bost arintasunez: Baleren Bakaikoa Azurmendi, Pascual Ibáñez Martín, Francisco Sánchez Bravo, María García Moral eta Soledad Arruti Echegoyen<sup>55</sup>.

Soledad Arruti Amarako ekipajeen kontsignako arduraduna zen. María Begoña Urroz Ibarrola, 20 hilabeteko haren biloba-iloba zen pronostiko larriena zuena: erredurak zituen gorputz-adar guztietan, zauri makatuak ezkerreko hankan eta oinean, eta erredurak aurpegian. Sortzez Nafarroako Beintza-Labaien herrikoak ziren senar-emazte batzuen lehen alaba zen, eta bikoteak Lasartera jo zuen lan bila. Aita, Juan Urroz Gragirena, etxetresna elektrikoien Moulinex fabrian enplegatua zegoen. Amak, Jesusa Ibarrola Tellecheak, bere izeba Soledad Arrutiren ardurapean utzia zuen txikia. Amaren hitzen arabera, “izebari laguntzera joaten nintzen pezetatxo batzuk irabazteko. Egun hartan, nire umea harekin utzi, eta Nafarroara joateko zapatatxo batzuk erostera joan nintzen txikiarentzat inguruko denda batera. Itzuli nintzenean sekulako nahaspila zegoen. Bomba batek eztanda egin zuen! Nire alaba guztiz errea zegoen, eta beste zenbait pertsona, horien artean nire izeba, zaurituta. Izugarria izan zen”. Geltokiko kanpoko zerbitzuko

<sup>53</sup> *La Voz de España*, 1960-VII-1. *El Diario Vasco*, 1960-VII-1.

<sup>54</sup> *Oficina de Prensa de Euzkadi*, 1960-VII-1. Francok Donostiarekin zuen harremanerako, ikus Estornés (2013: 99) eta Luengo Teixidor (2018). Hiri horretako indarkeria terroristari buruz, ikus Cibrián (2015).

<sup>55</sup> *Oficina de Prensa de Euzkadi*, 1960-VII-1. Baleren Bakaikoa Azurmendiri egindako elkarrizketa web-orri honetan irakur daiteke: [http://www.euskonews.com/0537zbk/elkar\\_es.html](http://www.euskonews.com/0537zbk/elkar_es.html)

mutil batek, Emeterio Ríos Gómezek, erreskatatu zuen Begoña, eta Gipuzkoako gobernadore zibilak, José María del Moralek, publikoki zoriondu zuen bere ekintzagatik. Zoritxarrez, beranduegi heldu zen<sup>56</sup>.

Polizia Armatua ere ez zen garaiz iritsi. “Premia handienaz”, irakur daiteke Gobernu Zibilaren urte hartako Txostenean, “jeep bat eta hainbat Indar, Ofizial bat buru zutela, bidali genituen zaurituei laguntzera eta ordena publikoa mantentzera”<sup>57</sup>.

Begoña Urroz egoera larrian heldu zen Betiereko Sorospenaren klinikara. Gurasoak gau guztian egon ziren alaba beilatzen. Donostiako orduko alkate Antonio María Vega de Seoane Barrosoren emaztea, María Isabel Etayo, izan zuten ondoan. *Hoja del Lunes*en arabera, gau hartan bertan “hainbat mediku arduratu ziren María Begoñaz (...). Astearte goizean hobekuntza txiki bat izan zuen, baina arratsean berriz erori zen larritasunean eta Zientziaren sorospenek atera ezin izan zuten egoera batean. Gaueko hamaiketan hil zen María Begoña, Amarako geltokian jasandako erreketeta eta zauri ikaragarrien erruz. Medikuen sorospenak alferrikakoak izan ziren, eta ez zuen ezertarako balio izan geltokiko kanpoaldeko mutilak, Emeterio Ríos Gómezek, bere bizia jokoan jartzeak”<sup>58</sup>.

1960ko ekainaren 28a zen. “Heriotzaren albisteak”, zioen ABCk, “zirrara sakona eragin du hiriko sektore guztien artean, eta zirrara hori doluzko eta heriotza eragin duen ekintza terrorista doilorraren aurkako herri-sumindurazko manifestazio ikaragarri baten bidez adierazi dute”. Ildo beretik jo zuen *El Diario Vascok*. “Antza denez, atzerriko aginduak betetzen ari zirela, terrorista horiek izua eta nahasmena erein nahi izan dituzte. Baina ez dira oso psikologoak izan. Gertaera basatiaren aurrean egon den erreakzioa ahobatezkoa eta orokorra izan da. Pertsona zibilizatu orok arbuioz gaitzetsi du atentatu kriminala”. *La Vanguardiak* satirizatzen jo zuen: “Krimenaren egilea bere gordelekura joango zen korrika babestera, eta handik ikusiko ditu bere ‘balentria’ren ondorioak: neska gajo bat hilik; dolua da nagusi jende zintzoaren artean; familia-lantua; delituaren lastura. Eta besterik ez”. Bonbak, “alde batetik, politika jakin baten zerbitzura dagoen sen kriminalen iraunkortasuna adierazten ari ziren; eta, bestetik, gure mugetatik harago dauden Espainiaren etsaiak behin eta berriz egin eta errepikatzen ari diren hutsegite psikologiko ikaragarria. Neska hilak; sakrifikatutako María Begoñak; gurdi zuri bat duen ehorzketa bat. Politika ederra! Esferak dardarka jartzeko

<sup>56</sup> *Oficina de Prensa de Euzkadi*, 1960-VII-1. *Hoja del Lunes* (Donostia), 1960-VII-4. Begoña Urrozen amaren eta anai-arreben lekukotza *El País*en, 2010-I-31. *Diario de Navarra*, 2010-II-7. Umea 1958ko urriaren 21an jaio zen.

<sup>57</sup> *Memoria del Gobierno Civil de Guipúzcoa de 1960*, 1961, GPAH (Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa), 3673/0/1 kutxa. Baita AANn ere, 44/11.310 kutxa.

<sup>58</sup> *Hoja del Lunes* (Donostia), 1960-VII-4.



modukoa!”. Portugalen, non egun batzuk lehenago DRILek matxinadarako deia egin zuen, ahobatezkoa izan bai gaitzespena bai Delgado eta Galvãoen taldeari leherketak leporatzea. Adibidez, *O Seculo* egunkariak “*actos que envergonham a Humanidade*”tzat jo zituen atentatuak. Espainiako enbaxadorearen arabera, Salazarren gobernu beldur zen —eta susmo handiak zituen horretarako— kanpaina terroristaren hurrengo helburua izango zela<sup>59</sup>.

Ekainak 30eko goizeko 9:00tan neskatxaren hileta egin zen Lasarteko parroki-elizan. José María del Moral Pérez de Zayas Gobernadore Zibila buru zelarik, probintziako eta bertako agintari nagusiak bildu ziren bertan, eta “Lasarteko herri guztia batu zitzairen, nabarmenki hunkituta”. *El Diario Vasco*k argazki bat erreproduzitu zuen, non gobernadore zibila Begoña Urrozen aitari dolumina adierazten ari zaion. Dena den, une hartako solemnitatea lausotua geratu zen, zeren eta, Begoñaren ahizpak gogoratzen duen bezala, “egun haietan herriko jaiak ziren. Amak askotan kontatu digu ehorzketaren egunean etxetik kutxa zuriarekin atera zirela, eta jendea kantuan eta dantzaz zihola kaletik”<sup>60</sup>.

Jesús Duvak *El Países* egindako erreportajeari esker, badakigu Begoñaren amak, alaba hobiratu ondoren, ekipajeen kontsignaren beraren ardura hartu behar izan zuela, bere alaba hil zen lekuarena alegia: “Nire izeba Soledad zauritua zegoen, eta ezin zuen lanik egin. Hortaz, neuk ordezkatu nuen sendatu arte”. Bizirik zirauten senar-emazteen bi seme-alabek, Jonak eta Begoñak —azken honek hildako alabaren izen bera jaso zuen— kontatu dutenez, beren gurasoek “asko sufritu zuten txikitxoaren heriotzarekin. Nire aitari, bizitza erdia kendu zion horrek. Begoña zen bere neska kuttuna. Hain zen kuttuna, ezen bera hil baino apur bat lehenago, duela urtebete baino gehiago, zera esan zigun: ‘Orain nire alabarekin topo egingo dut.’ Nire gurasoek ez zuten sekula ahaztu kolpe latz hura”. Gainera, Amarako atentatua ez zen izan terrorismoak Jesusa Ibarrolari eragin zion azken aldia. “Zapata-denda bat nuen, eta nire dendaren parean zegoen Banco Bilbao Vizcayaren sukurtsal batean eztanda egin zuten bonbek bitan suntsitu zidaten”<sup>61</sup>.

Gertaera hori, informazio egitiaren falta eta Donostiak jasan zuen atentatu kopurua (batez ere ETarenak) —2004ko martxoak 11ko Madrileko sarraskira arte, Donostia zen terrorismoko biktima mortal gehien zituen hiria— kontuan izanda, ulertzekoa da Urroz-Ibarrola familiak neskatxaren heriotzaren atzetik ETA zegoela susmatzea. El Paísesi kontatu zioten bezala, “[atentatua gertatu eta]

<sup>59</sup> *Hoja del Lunes* (Donostia), 1960-VII-4. *El Diario Vasco*, 1960-VI-29. *ABC*, 1960-VII-1. *La Vanguardia*, 1960-VII-3. *Oficina de Prensa de Euzkadi*, 1960-VII-1. *El País*, 2010-I-31. *O Seculo*, 1960-VII-1. «Carta del embajador en Lisboa», 1960-VII-2, AAN, 82/15003 kutxa. «Carta del embajador en Lisboa», 1960-VI-28, NUAN, 139/646 kutxa.

<sup>60</sup> *El Diario Vasco*, 1960-VII-1. *El País*, 2010-I-31.

<sup>61</sup> *El País*, 2010-I-31.

handik gutxira, gu konbentzituta geunden Amarako bonba ETAko norbaitek jarri zuela. Eta jende askok gauza bera uste zuen. Baina inork ez zuen horretaz hitz egiten. Urte haietan inork ez zuen gauza horiez hitz egiten, eta gure drama familiar-tean eramatea erabaki genuen”. Terrorismoaren biktimek Euskadin nozitu duten estigmaren erakusgarri garbi bat da. Biktimek, Reyes Mate filosofoak adierazi bezala, “beren mina pribatizatu behar zuten, eta politikoki ikusezin bihurtu behar zuten: une publiko bakarra ehorzketaren eguna zen, hain zuten ere”. Halaber, euskal hiritargoari (zati bati) eragin dion isiltasun kiribilaren adierazgarri bat da: nazionalista ez denari. Begoñaren iritziz, “duela urte batzuk ez zen gauza huez hitz egiten, mundu guztiaren aurka jartzea bezalakoa baitzen”. “Bizi ziren gizartearen ezin zen hitz egin. Nire gurasoentzat sekretu bat, zauri bat bezalakoa zen, gainera errudunak haiek balira bezala”<sup>62</sup>.

Familiak minari eta beldurrari bakarrik ez, babesgabetasunari ere aurre egin behar izan zion. Agintari frankistak Begoña Urrozen hiletan egon ziren, baina hor amaitu zen haien konpromisoa. Terrorismoko gainerako biktimekin gertatu bezala, diktadurak neskaxa eta haren sendia baztertu zituen. Zoritxarrez, kolektiboaren egoerak ez zuen hobera egin demokraziaren etorrerarekin. Biktima gehienek 1999ko legea heldu arte itxaron behar izan zuten. Beste batzuek, Urroztarrak bezala, beranduagora arte. Jesús Duvaren esanetan, senideek “ez zioten inori ezer erreklamatu. Duela zenbait urte abokatu bat kontratatu zuten, besterik ez, kontua mugi zezan, baina ez zuten ezer lortu, eta nekatu, eta amore eman zuten”. 2010eko hasieran, ia mende Erdiko mututasunaren ondotik, familiak hitz egitea erabaki zuen. Jon Urrozen esanetan, “horrenbeste denboraren ondotik, une jakin batean gure arrebari gertatutakoa kontatzea historiarekin eta oroimenarekin genuen betebehartzat jo genuen. Asko kostatu zitzaigun pausoa ematea, baina aurre egin beharreko betebeharrak bat zela sentitu genuen”. 2011ko abendura arte Begoña Urroz ez zuten terrorismoko biktimatzat aitortu<sup>63</sup>.

## 5. NORK HIL ZUEN BEGOÑA URROZ?

Bere komunikatuan, Gobernazio Ministerioak nazionalistak eta komunistak nahastu zituen atentatuetan, eta, logikoa denez, azken horiei ez zitzaien gus-

<sup>62</sup> *El País*, 2010-I-31. Cuesta (2000: 220), Domínguez Iribarren (2003), Jiménez Ramos (2018b: 305), Mate (2006: 9), Fernández Soldevilla eta López Romo (2012), López Romo (2015) eta Leonisio (2017).

<sup>63</sup> *El País*, 2011-XII-11. *Diario de Navarra*, 2010-II-7. Diktaduran zehar terrorismoko biktimek izan zuten egoerari buruz, ikus Jiménez Ramos (2018a).

tatu. “Polizia, bada, gaitz guztiak publikoki ‘gorri-separatistei’ egozteko ohitura frankista zaharrera itzuli da”, zioen ironiaz *Oficina de Prensa de Euzkadik*. Izan akats huts bat, lehen orduko informazio faltaren erruz, edo intoxikazio bat, gobernuaren oharrek ez zuen oinarririk. DRILen lerroetan ez ziren galegistikak falta, baina haien nazionalismoa molde federalistakoa zen, ez independentistakoa. Egia da baita ere pare bat euskaldun bazegoela gutxienez: Javier Lastra, Donostiakoa, eta José Antonio Domínguez, Pasaian jaioa. Hala ere, ez ziren nazionalistak, eta ez zeuden erakunde abertzaleekin lotuak. Erregimenak “Berradiskidetze Nazionala”ren zintzotasunaz susmo txarrak bazituen ere, ez zegoen PCEri errua egotzen zion aztarnarik. Haren Batzorde Betearazleak berehala eman zuen komunikatu bat non “biribilki” gezurtatu zuen “Gobernazio Ministerioaren adierazpena, duela gutxi Espainiako zenbait tokitan lehertu diren bonben erantzukizuna komunisteri egotzen diena”. Erakundeak ez zuen “inolako zerikusirik jatorri ilun eta probokatzailako gertaera horiekin. Alderdi Komunistak behin baino gehiagotan adierazi izan du metodo terrorista horiek kaltea baino ezin diotela ekarri frankismoaren aurkako herri-borrokarari”. Hilabete batzuk geroago, Bayo jeneralaren adierazpenak erruz aipatu ostean, *Mundo Obrero* behin eta berriz jo zuen DRILen jarduera “probokatzailatzat, polizia-zerbitzu frankista, portugaldar eta amerikarretan oinarritua, herria nahasteko eta errepresio frankistaren bidezko itxura bat emateko joera duena”. PCEk bultzatzen zuen bidea “terrorismo indibidualaren aurkako” zen: “masen ekintzen bidea da, greba nazional baketsua”. *Nuestra Bandera* aldizkariaren 1960ko urriko zenbakian alderdiak bere burua zoriondu zuen biztanleriaren zati bat “ekintza terroristen” “izaera polizialaz, probokatzailaz” konbentzitu zuelako, eta beste zati bat, gutxienez, “ekintza arduragabe horiek komunistekin inolako zerikusirik ez izateaz”. Berak “jende serioa” ziren, “atentatu terrorista indibidualen” etsai. Mezu bera errepikatu zen Radio España Independienteren emisioetan. PSOEek, bere aldetik, Direktorioa benetan existitzen zela zalantzan jartzen jarraitu zuen, nahiz eta erakundeak “operazioen parte” bat zabaldua zuen dagoeneko, bere burua leherketen arduradun eginez. PNVko buruzagi Javier Landáburuk gutun bat idatzi zion alderdikide bati, Santiago de Pablok aipatzen duena: “Ez da komeni gure lagunek edo gugandik oso gertu dagoen zenbait jende burututako indarkeria moldeak haienekin nahastea. Hemen ditugun beste zenbait informaziok diotenez, atentatu horien egileek gure herrialdea aukeratu dute ondoz ondoko zenbait esperientziatarako, turistak ikaratzeko eta dibisen sarrera mozteko aitzakiaz baino ez. Ez dugu onartu behar horrelako ekintzak Euzkadin burutzea gure ezagutzarik eta kontrol gabe”<sup>64</sup>.

<sup>64</sup> Raby (1995: 71-72) eta Santidrián Arias (2000: 139, oharrean). Santiago de Pablo: «¿La primera víctima de ETA?», *El Correo*, 2010-VI-19. *Mundo Obrero*, 1960-VIII eta XI.

Atentatuek alerta-egoeran jarri zituzten Ordena Publikoaren Indarrak. “Ekainaren 28an, hiriburu honetako Norteko eta Amarako geltokietan bonba bana lehertu zela eta”, zioen Gipuzkoako Gobernu Zibilaren 1960ko Memoriak, “zaintza zerbitzu bereziak ezarri genituen laguntza emateko eta ordena publikoari eusteko; izan ere, albistea zabaldu zenean, pertsona dezente elkartu zen ingurumarietan”<sup>65</sup>.

Poliziak jakin zuenez, lehergailuak Donostiatik fakturatu zituzten maleta batzuen edo bestelako fardel batzuen barruan. Taktika hura onuragarria zen erasotzaileentzat, puntu bakar batetik tenporizadoredun bonbak bidal baitzitezaketen trenbidearen sare osoan zehar (ikus eranskinak). Frantziako muga gertu zegoenez, ezta daren aurretik ihes egin zezaketen. Antzeko kanpaina bat errepika zedin saihesteko, agintariek segurtasun-neurri berriak ezarri zituzten geltokietan. Diktadorearen lehengusu eta laguntzaile pertsonala zen Francisco Franco Salgado-Araujoren esanetan, bere aginduak zorrotzak izan ziren: “Hemendik aurrera tren ezberdinetan fakturatuak izateko kontsignan uzten diren ekipaje guztiak miatuko dira, baita posta-paketeak ere, eta era guztietako neurriak hartu dira ekintza horren bandalikoak errepika ez daitezen, kalte materialaz gain, biktima errugabeak eragiten dituztenak”. Jesusa Ibarrolak, Begoña Urrozen amak, hala gertatu zela aditzera eman zuen Amarako geltokian bere izeba Soledad ordezkatzeko egon zen bitartean: “ez nion inori maleta kontsignan sartzen uzten lehenago ireki eta barrukoa erakusten ez bazidan. Jendea kexatu egiten zen, eta hori zergatik egiten nuen galdetzen zidaten. Norbaitek aurka egiten bazuen, guardia batzuk etortzen ziren ekipajea aztertzeraz”<sup>66</sup>.

Neurri horiez gain, atentatuetatik bi hilabete baino gutxiagora, Gobernu frankistak Altxamendu Militarri, Bidelapurretari eta Terrorismoari buruzko 1794/1960 Dekretua, irailaren 21ekoa, promulgatu zuen, 1943ko martxoaren 2ko Legea eta 1947ko apirilaren 18ko Lege-dekretua berrikusten eta bateratzen zituena. Adierazgarria da terrorismoaren aurkako legedia justu une horretan eguneratzea<sup>67</sup>.

---

*Nuestra Bandera*, 1960-X. *Oficina de Prensa de Euzkadi*, 1960-VII-1. *El Socialista*, 1960-VII-7. Espainiak atzerrian dituen enbaxadetan dauden agregatu militarrei zuzendutako barne-informazioko buletina, 1960-VI eta XII, AGMA, 21.978 kutxa. Ikus baita ere DRILI buruzko txostena, 1961-II-17koa, Gutiérrez Menoyo eta Frantziako agintarien konplizitatea sartzen dituen: <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDF/Fondo/iruj/6270.pdf>. Hala ere, Eloy Gutiérrez Menoyori egin zitzaion galdeketa luzean zehar ez dago ustezko agente frankista horiei buruzko ezer AEBetan sortutako dokumentazioan. Ikus NARA Record Number: 124-90135-10313..

<sup>65</sup> *Memoria del Gobierno Civil de Guipúzcoa de 1960*, 1961, AAN, 44/11.310 kutxa.

<sup>66</sup> Franco Salgado-Araujo (1976: 291). Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1961-II-23, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53102 espedientea. *El País*, 2010-I-31.

<sup>67</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1960-13701> Terrorismoaren aurkako legediaren bilakaerari buruz, ikus Martínez Dhier (2015).

Begoña Urrozen heriotzaren berri ematean, *El Diario Vasco* honako oharpen hau egin zuen: “terrorismoko krimen hau ez da zigorgabe geratuko. Lehenago edo geroago, pertsona baino gehiago piztien antza duten horien gainean eroriko da justizia”. Badakigu justizia ez zela inoren gainean erori, baina ba al dakigu ziurtasunez zeintzuk ziren errudunen izenak? Jada arestian aipatutako Gobernazio Ministerioaren oharrean atzerriko agentei leporatu zitzaaien errua, eta nazionalista periferikoen eta komunisten laguntza izan zutela zehazten zen. Franco Salgado-Araujo teniente-jeneralaren ustez, Francok berak aitortu zion “ziur zegoela Frantzia bizi ziren komunisten eraso bat zela, Espainiari ospea kentzeko eta Espainiako herriarengan ezkortasuna eriteko eta hura larritzeko”. Hala ere, egunkariak gehitzen zuenez, halako arerio batek “zenbait pertsonen laguntza zuen, zehazki komunistak izan gabe, haiekin bat egiten zutenak gure herrialdean asaldura sartzeko eta kezka eragiteko maniobran”. Zentzu horretan, DRILek Madrilen egindako lehen kanpaina gogora ekartzen zen. “Jarduera horiekin aldi bereko, Amerikako zenbait Errepublikatan kanpatuta dauden erbesteratuen tribuek zenbait diru-bilketa eta amarru antolatu zituzten —zaletasun handia diote horri— ‘Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación’i, kartzelara eramatea merezi duten monipodioaren adiskidez osatutako multzo horri, leiala zaion terroristen komando batek Espainiara egin behar zuen bidaia ordaintzeko, hainbeste leherketa bakoitzeko. Denek gogoratzen dute abentura kriminal horren amaiera zorigaiztokoa. RAEren hiztegiaren arabera, monipodio bat “legez kontrako helburu baterako elkartzen den eta elkar aditzen duen pertsonen hitzarmen” bat da<sup>68</sup>.

1960ko ekainaren 29an Caracaseko *El Nacional* egunkariak izenburu nabariko artikulua bat argitaratu zuen: “DRILek Espainian lehertzen ari diren bonbak bere gain hartzen ditu”. Haiek errebindikatzeko arduraduna Galvão kapitaina izan zen. PCEn erasoei erantzunez adierazi zuenez, “tirano iberikoek, Francok eta Salazarrek, gure herriengan eragin zuten eta eragingo zuten errepresio olatuaren ardura” Direktorioari leporatzea “umekeria” bat zen. “Begi bistakoa da ez dutela motiborik behar”. Gainera, “gure erakundea faxismoaren agente probokatzaileekin lotzeko” ahaleginetatik babestu zuen bere burua. Beste buruzagi batek —zeinaren izena ez zen ematen— argudiatzen zuenez, DRILek ez du “bonba hutsaren kirol kriminala” burutzen, “eta ez du pertsonen bizitzaren aurka atentaturik egiten, eta badaki nola desartikulatu aditu frankistek eta salazaristek beren herriak herstura handiago batera kondenatzeko asmatutako Egonkortze Ekonomikoaren plan krudela, gose eta miseria gehiago ekarriko dituen, langabezia handiagoarekin”. Azkenik, “munduko gobernu guztiei” jakinarazten zitzairen ez zituztela atentatuak

<sup>68</sup> Franco Salgado-Araujo (1976: 291). *El Diario Vasco*, 1960-VI-28 eta 29. *ABC*, 1960-VII-1. *La Voz de España*, 1960-VI-29.

burutuko turista atzerritarren aurka, baina, era berean, atentatu horiek sor zitzaketen deserosotasunak ezin zitzaizkiola Direktorioari egotzi. Aitzitik, esanguratsua da DRILen ordezkariak Begoña Urroz eta Donostiako zaurituak ere ez aipatzea. Ez zituzten kontuan hartzen<sup>69</sup>.

Espainiak Lisboan zuen enbaxadorearen hitzetan, “normala dirudi (...) DRILeko antolatzaileen adierazpenak ontzat jotzea, zeintzuen artean Henrique Galvão kapitaina dagoen nagusi-magusi nagusi gisa”. Ez zegoen “inolako zalantzarik” Direktorioaren “esku hartze aktibo eta grinatsuaz”, eta, gainera, “ekintza horiek guztiak antolatzeaz harro agertzen zen”. Portugalgo Kanpo Arazoetarako Ministroak, Marcello Mathiasek, ekaineko atentatuak zirela-eta Espainian instruitzen ari zen sumaria Galvãoaren adierazpenak gehitzeko gomendatu zion. Adierazpen horiei *El Nacionalen* ekainaren 14an egindako beste agerraldi bat gehitu behar zitzaion, antzeko tonua zuena: “tiranoak uzkaitezko iraultzak ez dira tearekin eta begikotasunarekin egiten, ezta bonboiekin ere. Indarkeria erabili behar da hura erabiltzen dutenei erantzuteko”. Ekimen judizial horrekin, Espainiako Gobernuak DRILeko buruzagiaren estradizioa eska zezakeen Venezuelara. Eskaeraren eraginkortasunaz zalantza handiak izan arren, Rómulo Betancourten gobernu progresista “miserable horien sokakoa” baitzen, enbaxadoreak uste zuen agian etorkizuneko kabinete batek bai onartuko zuela, edo, gutxienez, Galvão, “krimen horien guztien inspiratzailea den deabruzko burua”, presionatzeko balioko zuela. Enbaxadorea horrenbeste tematu zen, arazoa aztertu egin zutela, baina baztertu egin behar izan zuten susmagarriaren nazionalitate portugaldarra dela eta. Edozein kasutan, Espainiako Enbaxadak Caracasen egin zituen protesten ondorioz, Venezuelako Gobernuak “gogor kargu hartu zion” Direktorioko buruzagiari. *La Religión* egunkariak aditzera ematen duen bezala, ohartarazi zioten Venezuela ezin zitekeela izan “borroka-metodo gisa terrorismoa erabiltzen duten erakundeen basea”, eta “ezin zitekeela inola ere onartu Venezuelako lurraldean plan terroristak edo haiekin bat zetozenak burutzea”. Horretan jarraitzen bazuen, herrialdetik kanporatuko zutela. ABCk berretsi zuen: “Galvão [atentatu] egilea izateaz harro agertu zen, eta horren ondorioz, Venezuelako Kanpo Arazoetarako Ministroak kargu hartu zion, eta, asilo-eskubidea galdu nahi ez bazuen, erbesteratuei exijitzen zitzaizkien betebeharrak eta jokabidea gogorarazi zizkion”<sup>70</sup>.

<sup>69</sup> *El Nacional*, 1960-VI-29. Artikuluaren ebakin bat, Portugalek Caracasen zuen Enbaxadaren zigiluarekin, topa daiteke AANn, 82/15003 kutxa. 82/16232 kutxan aipatu egunkariaren bi aleren eskaeraren frogagiriak daude, Enrique Eymar koronelaren Muturreko Jardueren Auzitegi Nazional Bereziak egina. Montanyà (2004: 79-80), Jiménez Redondo (2003: 101) eta Martiz Crespo (2016: 25).

<sup>70</sup> Sotomayor (1978: 90). *La Religión*, 1960-VII-16. ABC, 1961-I-28. *El Socialista*, 1960-

Ez zen izan Galvão 1960ko ekaineko leherketa-katearen egiletza bere gain hartzen zuen azken aldia. Zenbait komunikabidek jasotakoaren arabera, 1961eko otsailean elkarrizketa bat eskaini zion L' Aurore egunkari frantziarrari, eta "1960an Madrilan, Bartzelonan eta Donostian izandako ekintza terroristetan parte hartze zuzena" izan zuela ezagutzera eman zuen. ABCren esanetan, "ekintza-arau gisa terrorismoaren aldeko irimo bezala" definitu zuen bere burua, eta "taktika terroristak iritzi publikoa erasateko beharrezkoak direla adierazi zuen"<sup>71</sup>.

Adierazpen horiek egin eta hilabete geroago, 1961eko martxoan, Portugalgo Kanpo Arazoetarako Ministroak Espainiako enbaxadoreari aurpegiatu zion "zein erraza izango zatekeen Espainiak —bertan izandako jokabide terroristen egilea zela esanez Galvão behin eta berriz egindako adierazpenetan oinarrituta— haren aurka zegokion prozesuari hasiera eman izan balio, eta, prozesu horren ondorioz, Venezuelako Gobernuari estradizioa eskatu izan balio Galvão Espainian epaitzeko, berak bultzatutako krimenen erantzule izateagatik —hala adierazi baitzuen hitzez—, zeinetako batean neskata bat hil zen". Berandu zen, une horretan DRILeko buruzagia Recifen (Brasilen) babesa hartua baitzegoen<sup>72</sup>.

1978an argitaratutako bere oroitzapenetan, atentatuen atzean DRIL egon zela baieztatu zuen José Fernández Vázquezek: "1960ko udan, *Madril Operazioa* egin zenetik urtebete baino gutxiago igaro zenean, DRILek hedadura handiagoko zenbait sabotaje ekintza burutu zituen: su eman zien zenbait probintzietako hiriburuetako tren geltokiei, baita Madril-Bartzelona tren espresari ere. Baina oihartzun handiena izan zuena Bilboko geltokiaren sutearen operazioa izan zen, bi urteko neskata bat hil baitzen, bomba su-eragilea lehertu zenean bere amarengandik urruti batera eta bestera korrika zebilena. Sabotaje guztietatik biktima errugabe bakarra izan zen. DRILek ez zuen inolako baxarik eduki: ez hildakorik, ez atxilotutakorik".

---

VII-7. «Carta del, 1960-VIII-24, «Nota del Ministerio de Relaciones Exteriores», Caracas, 1960-VIII-6, AAN, 82/15003 kutxa. «Carta embajador en Lisboa al Ministro de Relaciones Exteriores de Venezuela», 1960-VII-2, AAN, 54/11861 kutxa. «Carta del embajador en Lisboa al Ministerio de Asuntos Exteriores», Lisboa, 1960-VII-11, «Actividades políticas del DRIL en Venezuela», Madridel embajador en Lisboa al Ministerio de Asuntos Exteriores», Lisboa, 1960-VII-25, NUAN, 139/647 kutxa. «Carta del embajador en Lisboa al Ministerio de Asuntos Exteriores», Lisboa, 1960-VII-13, NUAN, 139/648 kutxa. «Henrique Carlos Mata Galvão», 1961, Archivo Diplomático (AD). Estradizioa eskatzeko egindako kudeaketei buruz, badago dokumentazioa AAMN, 23.162 kutxa. Galvãoi buruz, ikus <http://casacomum.org/cc/visualizador?pasta=07420.020>

<sup>71</sup> *El Diario Vasco*, 1961-II-10. ABC, 1961-II-10.

<sup>72</sup> «Carta nº 245 del Embajador en Lisboa al Ministro de Asuntos Exteriores», 1961-III-7, FFFN, 4402 biribilkia. Portugalgo beste zenbait iturrik DRILen egiltza baieztatzen dute («Henrique Carlos mata Galvão», 1961, AD).

Liburuan akats ugari dauzka, baina ezin argiagoa zen 1960ko ekaineko kanpainan erakundeak zuen erantzukizunari dagokionez. Zentzu berean, ezin argiagoa zen baita ere DRILEko kide eta erakundearen buruzagietako baten —José Velorena— semea zen Víctor Velo Pérezek 1996an argitaratutako lan bat<sup>73</sup>.

Orena Publikoaren Indarrek arrazoi gutxi zuten Direktorioaren ondoko ondoko aldarrikapenak zalantzan jartzeko. “Bitxia da nabarmentzea”, irakur zitekeen Ikerketa Sozialeko Brigadaren 1961eko buletin batean, “zer gogo dagoen erbesteko zenbait erakunderen gehiengoaren artean joan den urtean Espainian, eta, ondoren, Belgikan eta Portugalen burutu ziren subertsio eta terrorismoko ekintzen antzezle edo arduradun nagusi bezala agertzeko”<sup>74</sup>.

Ezerk ez zuen lotzen abertzaletasuna DRILEkin. Ziurtasunez dakigu bi kide euskaldun zituztela, baina ez ziren nazionalistak. Hortaz, ez zegoen pisuzko inolako arrazoirik atentatuaren errudunak Euskadin bilatzeko. Eta, hain zuzen ere, ez zuten horrela egin. José Sainz Gonzálezek berresten du hori. 1960ko ekainetik Bilboko Ikerketa Sozialeko Brigadaren buru zebilen, eta “molde marxista, anarkista, muturrekoa eta abar zuten legez kontrako jardueretan” espezializatua zegoen. Bere oroitzapen zehatzetan ez ditu Atxuriko geltokiaren atentatuari buruzko ikerketak aipatu ere egiten, hari egokituko zitzaizkionak bertako erakunde baten lana izan balitz. Une hartan, gogoratzen zuen Sainzek zehaztasunez, bere unitatea Nicolás Redondo bezalako euskal sozialisten atxiloketan zentratua zegoen<sup>75</sup>.

Polizia-ikerketa bat zabaldu zen Norteko eta Amarako geltokiko bonbei buruz, Donostiako epaitegi militarreko 90/60 sumarioari bidea eman ziona, “bidelapurreriako eta terrorismoko ustezko delituagatik, egile ezezagunen aurka”. Data berean, honako hau irakur daiteke espedienteen: “antzeko ezaugarriak dituzten beste [leherketa] batzuk izan ziren Nazioaren zenbait herrialdetan, eta hori muturreko erakunde baten kontsignekin bat etor daiteke”. Aldi berean, Bilboko auzitegi militarrek 91/60 kausa sumarisimoa bideratu zuen Atxurin izandako atentatuagatik. Litekeena da beste kausa batzuk irekitzea kanpaina terrorista nozitu zuten leku ezberdinetan, baina ezinezkoa izan zaigu horiek aurkitzea. Edozein kasutan, eraso-kate berari zegokionez, sumario bakar batean bateratu zituzten: Muturreko Jardueren Auzitegi Nazional Bereziaren 954/60a. Badira kausa honi aipamena egiten dioten dokumentuak Administrazioaren Artxibo Nagusian, Avilako Artxibo Militar Nagusian eta 43. zenbakidun Lurraldeko Epaitegi Togadun Militarrean (Burgos), baina ez DRILEkin lotura duten sumarioak gordetzen dituen Defentsako Artxibo Orokor eta Historikoan.

<sup>73</sup> Fernández Vázquez (1978: 86 eta 1999: 64-65), Martiz Crespo (2016: 25) eta Velo (1996).

<sup>74</sup> Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1961-III-24, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53102 espedientea.

<sup>75</sup> Sainz González (1993: 121).



Zoritzarrez, orain arte ezinezkoa izan da 954/60 kausa bezalako dokumentu horren erabakigarri bat topatzea, eta absentzia horrek hutsune esanguratsu bat utzi du ikerketan. Hala eta guztiz ere, eskura baditugun iturriei esker, 1960ko ekainaren 27tik aurrera gertatutakoa berreraikitzen saia gaitzke<sup>76</sup>.

Uztailean Ikerketa Sozialeko Brigadak buletin monografiko bat argitaratu zuen DRILen ustezko eskuliburu “gerrillariarekin”, benetan Kubako prentsan argitaratu zen Alberto Bayoren liburu baten laburpena dena, “talde errebelde armatuei jakituria egokia emateko”. Bonben planoak sartzen ziren, hala nola niplearena, niple juniorrena (edo “nipletxoa”), denborazko niplearena, patrikako bonba su-eragilearena edo molotov koktelarena, esku-granadarena, motorretan sabotajea egiteko bonbena... Badakigu Direktorioko kide batzuek lan horren aleak zituztela, eta Poliziaren ustez eredu horiek “bat zetozen, formari eta osarari dagokionez, Espainian jazotako zenbait gertaerekin, DRILEk prestatutakoak zirenak”<sup>77</sup>.

*Le Monde* jaso zuen bezala, Ordena Publikoaren Indarrek Direktorioari egotzi zioten 1960ko kanpaina. Kubako terroristez osatua omen zegoen Direktorioa, eta beren kuartel nagusia Frantzia zegoen. Santiago Martínez Donoso jotzen zuten sarearen antolatzaile gisa. Barne izaerakoak ziren Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletinek egotze bera baieztatzen dute. Era berean, Gipuzkoako Gobernu Zibilak “Ferrocarriles Vascongados eta Norteko (RENFE) geltokietan, kontsignan zeuden maleten barruan, jarritako lehergailuen leherketa” 1960ko hiru gertaera “garrantzitsuenetako bat bezala” jo zuen, “ordena publiko eta politikoei eragin diena, eta garrantzi gutxiko kalte materialak eragin dituena, nahiz eta lehen leherketaren erruz adin txikiko neska bat hil zela deitoratu behar den. DRILEko lagunek (Directorio Republicano [sic] Ibérico de Liberación) prestatu eta burutu dute terrorismo ekintza hori”. Hori gutxi balitz, Espainiako prentsak norabide bera seinalatu zuen<sup>78</sup>.

Ordena Publikoaren Indarrak atentatuen egile materialak harrapatzen saiatu ziren, baina haien ikerketa guztiek kale egin zuten. Lehen ikerketa Madrilen egin zuten. Abderramán Muley eta Santiago Martínez Donosorekin zituzten loturak

<sup>76</sup> Donostiako 90/60 sumarioaren eta Bilboko 91/60 sumarioaren lekukotzak, 43 zenbakidun Lurraldeko Epaitegi Togadun Militarra, Burgos, AAMN, 23.162 kutxa. AAN, 82/15003 eta 82/16232 kutxak.

<sup>77</sup> Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1960-VIII-10, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53101 espedientea.

<sup>78</sup> Paz Sánchez (2001: 157) eta Hordago (1979, I. alea: 188). Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1961-II-23, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53102 espedientea. *Memoria del Gobierno Civil de Guipúzcoa de 1960*, 1961, Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (GAHP), 3673/0/1 kutxa. *ABC*, 1961-I-28 eta 1962-XII-4. *Le Monde*, 1960-VI-30. Haren edukia Goi Estatu Nagusiaren prentsa-buletinean ere jasotzen da, 1960-VII-9, AAMN, 21.823 kutxa. *Oficina de Prensa de Euzkadi*, 1960-VII-1.

aurkitu ondoren, Gai Arabiarren Brigada Bereziak 35 egun eman zituen Ángel Martín Ferreras (*Cabezón*), honen maitalea eta beste hiru lagun zaintzen. DRILen “etorkizunerako ekintzen erreserba talde baten” zati zirela uste zuten. 1960ko uztailaren 1an, bigarren kanpaina terroristak erakunde horren sinadura zeramala baieztatu ostean, susmagarriak atxilotu eta galdekatu zituzten. Muturreko Jardueren Auzitegi Nazional Bereziak sumario bat ireki zuen, 1971/60a. Hala ere, berehala garbi geratu zen ez zutela atentatuekin zerikusirik izan, eta, ondorioz, atxilotutako guztien aurkako jarduketa judizialak artxibatu zituzten, Ángel Martín Ferrerasen aurkakoa izan ezik. Azken honek adierazi zuenez, kopiagailu bat egin, eta langile eta ikasleen artean propaganda antifrankista banatzeko eskatu zion Muleyk 1959an, baina ez zuen horrelakorik egin; Madrilera heldu zenean, Martínez Donosok kaleetako argia moztea proposatu zion, iluntasuna baliatuta suteak eragiteko, baina ez zuen horrelakorik egin ere; eta hispaniar-kubatar “grinatsuarekin” zuen harremanari dagokionez, bere helburu bakarra DRILen lepotik aberastea zen, eta hori ez zuen inoiz lortu. Hain zen sinesgarria haren aitorpena, Eymar koronela ere konbentzitu zuela. Martín Ferrerasesek “[1960ko otsaileko atentatueta] inolako parte hartzerik ez zuela izan” idatzita utzi zuen koronelak, “Santiago Martínez Donosok lekua kendu baitzion zer pertsona mota zen ohartzean”. Hala eta guztiz ere, Ángel Martín Ferrerasesek oso garesti ordaindu zuen Direktorioari iruzur egiteko ahalegina: 1960ko azaroaren 18an 6 urteko kartzela zigorra ezarri zioten “burutze graduan egindako altxamendu militarragatik”<sup>79</sup>.

Ordena Publikoaren Indarren lupa ez zegoen soilik Espainian jarria, Liejan (Belgika) ere jarria zegoen, non 1960ko irailean topaketa bat gertatu baitzen DRILeko kideen eta Eloy Gutiérrez Menoyo hispaniar-kubatarren artean. Iraultzaren buru ibili zen komandanteetako bat zen, eta, Ikerketa Sozialeko Brigadaren arabera, “Kuban ia heroi nazionaltzat jotzen zuten”. Uharteak komunismora eta SESB-rengana egiten ari zen hurbilketak Gutiérrez Menoyoren pixkanakako desilusia eragin zuen, eta 1961eko urtarrilean AEBetara ihes egin zuen. Dena den, 1960ko irailean oraindik erregimen castristaren konfiantza zuen, eta Belgikako bidaiarako estaldura diplomatikoa emateaz gain, borroka antifrankistarako laguntza-bonuak saltzeko baimena eman zion ere. Horixe zen Gutiérrez bera buru zuen Espainiaren Askapenerako Gudarosteak egin zuen ekarpen ekonomikoa DRILen barruan integratzeko. Ez zen astirik egon bateratzea gauzatzeko: Belgikako Poliziak eten zuen, eta hamalau pertsona atxilotu zituen,

<sup>79</sup> Muturreko Jardueren Auzitegi Nazional Bereziaren 971/1960 kausa, Defentsako Artxibo Historiko Nagusia (DAHN). Ikerketa Sozialeko Brigadako informazio-buletina, 1961-II-23, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53102 espedientea. AAMN, 23.162 kutxa.

horien artean Eloy Gutiérrez Menoyo, Abderramán Muley, Rafael Rojo Ruiz, José Antonio Domínguez, Arturo González Mata-Lledó, Reyes Marín Novoa, Miguel Anguita Sánchez edo Javier Lastra. Belgikako hiritar kopuru zehaztugabe bat atxilotu zuten ere. Bai batzuei bai besteei armak eta lehergailuak konfiskatu zizkieten. Espainiako diktadurak espetxeratutako espainiarren estradizioa eskatu zuen, baina Belgikak eskaera baztertu zuen. Alde batetik, lepora zekiekeen delitu bakarra armen jabetza zen. Bestetik, prentsak eta ezkerreko alderdiek haien alde presionatu zuten. Hilabete eta erdiko epean aske zeuden DRILeko militante guztiak, eta, José Antonio Domínguezen salbuespenarekin —han bizi baitzen eskuarki—, gainerako guztiak herrialdetik kanporatu zituzten. Gehienek Kuban amaitu zuten<sup>80</sup>.

Gertaera honen inguruan sortutako dokumentazio diplomatiko eta polizialak zenbait datu interesgarri ematen dizkigu. Hala, Direktorioko militanteek Belgikako Poliziari egindako adierazpenak erregimenak eskuratu zituela egiazta dezakegu, eta horrek herri hartako agintarien aldetik nolabaiteko lankidetzeta maila bat iradokitzen du. ISBren ikuspuntutik, Muley “DRILeko buruzagi nagusia” zen, “eta, bere bidaia ugarietan, Espainiaren aurkako jardunean babes-puntuak bilatzeko jarduera handia erakutsi du”. Polizia frankista beldur zen Liejako atxiloketek “gizabanako horien eta bere erakundearen egitasmo terroristen garapenaren gelditze bat baino ez zutela ekarriko”, “baina, oztopo hori gaindituta, zalantzarik gabe Erregimenaren uzkailean lanean jarraituko dute atzerrian, gure Aberrian erabili beharreko baliabideez ezer gutxi arduratu gabe, indarkeria ekintzei dagokienez”<sup>81</sup>.

---

<sup>80</sup> Castro Moral (argitaragabea) eta Fernández Vázquez (1978: 97-100). Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1961-II-23, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53102 espediente. «Carta nº 245 del embajador en Lisboa al Ministro de Asuntos Exteriores», 1961-III-7, FFFN, 4402 biribilkia. «Revista de prensa», 1960-VIII-12, AAN, 54/11396 kutxa. «Informações obtidas recentemente na Brasil», datarik gabe, AAN, 82/16243 kutxa. «Caso do Santa Maria», 1961, [http://hdl.handle.net/11002/fms\\_dc\\_79386](http://hdl.handle.net/11002/fms_dc_79386)

<sup>81</sup> Ibidem. «Le DRIL», 1960-XII-3, AAN, 8620 kutxa. Geroago, Ikerketa Sozialeko Brigadak Eloy Gutiérrez Menoyoren desagertzearen berri eman zuen. Fidel Castrok azken honi Espainian erasotzeko agindua eman zuen. Era berean, Espainiaren Askapenerako Gudarostean bilera baten berri eman zuen Ikerketa Sozialeko Brigadak, otsailaren 25ean ospatua, non Muleyk hartu zuen hitza, honako hau azpimarratzeko: “[DRILeko kideak] Europako alderdi sozialista eta komunistei esker aske geratu ahal izan ziren, azken hauek beren kexu-ahotsa altxatu baitzuten Belgikako agintariak atxilotuak Espainiari emateko zuten asmoaren aurka”. (Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1961-III-24, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53102 espediente). 1961eko hasieran Bruselan zegoen Espainiako enbaxadoreak alerta jo zuen: Kubako

Ikerketa Sozialeko Brigadaren susmoen arabera, 1960ko ekainean “gure Aberrian burututako indarkeria ekintzen arduradun nagusiak” Reyes Marín Novoa eta Arturo González-Mata Lledó ziren, besteak beste. Azken hau Muleyk errekrutatu zuen DRILerako, “bere adierazpenetik ondoriozta daitezkeen datuen arabera”. “Santiago Martínez Donosorekin elkarrizketatu zen gure Aberrian, eta harentzat Muley Moréren jarraibideak zekartzan, baina otsaileko atentatuetak bakar batean ere parte hartu ez zuela ziurtatu du”. Hala ere, bai parte hartu zuen ekainekoetan. “Erakundearen aginduei jarraiki”, González Mata-Lledó “Frantziara eta Belgikara itzuli zen, eta han Muley Morék dirua eman, eta Bartzelonara itzultzeko agindu zion, zegozkion jarraibideak eman eta gero. Konde-hirian gizabanako batekin topo egin behar zuen, eta honek maleta bat eman behar zion lehergaiekin. Haiekin lau lehergailu egin behar zituen: horietako bi Bartzelonako bi geltokitan jarri behar zituen, eta beste biak, berriz, tren bidez fakturatu. Joan den ekainaren 26an bete zituen jarraibideak, baina Bartzelonako ipar aldeko geltokian izandako leherketaren berri baino ez zuen izan, eta ez zekien beste bonbek nahi izandako ondorioak eragin ote zituzten”. Marín Novoari buruz informazio gutxiago zegoen: “González Mataren aspaldiko adiskidea, azken honek DRILen sartzeko egindako iradokizuna onartu zuen, baina, dirudienez, aginduak betetzeko beldurra izan, eta atzerrira ihes egin zuen are González Matak baino lehen”. Estatu Batuetako inteligentzia iturriek ere biak lotzen dituzte atentatuekin<sup>82</sup>.

1960ko txosten baten arabera, operazioan Toulouseko Yvon Valaten “laguntza handia” funtsezkoa izan zen. “Erabili beharreko lehergaiak Espainian sartu ostean, Javier Lastrak fabrikatutako arkatz detonatzaileak erabiliz prestatu zituzten bonbak. Atentatu horiek burutzeko, Guillermo Santoro Sánchez eta Arturo González-Mata Lledó etorri ziren Espainiara, eta azken honek Reyes Marín Novoaren lankidetzat izan zuen”. Dokumentu honen arabera, Santorok jarri zituen Donostiako bonbak, eta beste bonba bat fakturatu zuen Madrilera zihoan maleta batean; Bartzelonakoak, aldiz, González-Mataren erantzukizuna izan ziren, eta bonba pare bat Zaragozara eta Espainiako hiriburura bidali zuen<sup>83</sup>.

pasaporte diplomatikoarekin zihoazen hiru gizonen DRILeko militanteei ziurtatu zieten erregimen castristak haiei laguntzeko prest jarraitzen zuela. “Belgikako Poliziarekin harremanetan nago, Kubako diplomatiko horiek aipatu dituzten gure herrialdearen aurkako jarduera subertsiboak neutralizatzeko”. («Telegrama cifrado del embajador en Bruselas al Ministerio de Asuntos Exteriores», 1961-II-10, AAN, 82/16232 kutxa).

<sup>82</sup> Ibidem. «Documento 2. Document transfer and cross reference Menoyo Eloy Gutierrez», 1960-IX-8, NARA Record Number: 104-10172-10007 [https://www.maryferrell.org/archive/docs/156/156527/images/img\\_156527\\_1\\_300.png](https://www.maryferrell.org/archive/docs/156/156527/images/img_156527_1_300.png) «Addendum to the Study on the Directorio Revolucionario Iberico de Liberacion (Iberian Revolutionary Directorate of Liberation)-DRIL», 1960-X-1, RIF 104-10172-10362, <https://maryferrell.org>

<sup>83</sup> «Informe sobre actividades DRIL», 1960-IX-21, AAN, 82/20952 kutxa.

1961eko urtarrilean Eymarren Muturreko Jardueren Auzitegi Nazional Bereziak Guillermo Santoro Sánchez, Reyes Marín Novoa eta Arturo González-Mata Lledó auzitegiaren aurrean agertzea errekeritu zuen “bost eguneko epean”. Hiruak 954/1960 kausan prozesatuak zeuden, “altxamendu militarreko ustezko delituagatik”. Jarraian, haiek bilatzeko eta atzemateko eskatu zitzairen agintari zibil eta militarrei. Bilatu zituzten, baina ezin izan zituzten atzeman<sup>84</sup>.

Konfidente baten lanari esker, Andorran zegoen Guardia Zibilaren Talde Espedizionarioaren Informazio Zerbitzuak Reyes Marín Novoa aurkitu zuen. Gutxi gorabehera 1960ko uztailaren 12tik Frantzian bizitzen eta margolari bezala lan egiten ari zen. Egunero gurutzatzen zuen muga Andorrako El Pas de la Casa herriko Cims hotelean bazkaltzeko. “Urduri eta kezkatuta” zegoen. Poliziaren kolaboratzaileak animoak eman zizkion, eta Andorran ez zuela ezeren beldur izan behar ziurtatu zion. Beti ere eskura dugun txostenaren arabera, orduantxe aitortu zion Marín Novoak “Donostiako geltokian bomba bat jarri zuela, eta, jarraian, Frantzian sartu zela, Toulousen, erakundea bertan baitago”. Itxura denez, erakundeak bi milioi dolar zituen une hartan. Guardia Zibilak egiaztatu zuenez, susmagarriak 500 pezetako igorpen bat (gaur egungo 114 euro) egin zion emakume bati, bai eta telegrama bat bidali ere beste emakume bati. Haren emaztea atxilotu egin zuten. Datu horiek ezagutu ostean, Benemeritak ordena publikoaren magistratu arduraduna zen *apezpiku-veguer*-ari Marín Novoa atxilotzeko eskatu zion. Honek onartu egin zuen, eta uztailaren 14an Andorrako Marín Novoak bazkaria hartzen zuen hotelean agertu zen Polizia. Hala ere, DRILeko militantea ez zen egun hartan azaldu. Mugaren beste aldean zegoen, ostatua hartua zuen txaleta margotzen, Frantziako tren konpainiaren jabegoaren pean zegoena. Andorrako Poliziaren buruzagiak Marín Novoaren egonlekuaz galdetu zion inspektore frantziar bati, eta honek baieztatu zion “egiatan han espainiar bat zegoela beraiantzat lanean, baina M. Valaten adiskidea edo gomendiopekoa zela, eta ez zela Frantziako lurraldetik ezertarako ere ateratzen”. Susmagarria atzemateko Andorrako poliziak elkarlanean aritzea proposatu zionean, bere kide frantsesak “espainiar hura han babestua zegoela esan zuen, eta ez zuela ezer gehiago jakin nahi”<sup>85</sup>.

Nor zen Valat hura? Arrasto guztien arabera, arestian aipatutako Yvon Valat hura zen, nazien okupazioaren aurkako erresistentzian (*groupe Morhange*) zeregin nabarmena izan zuen polizia ohi bat. Ideologiaz komunista, agintari frankistek

---

<sup>84</sup> *Boletín Oficial de la Provincia de Madrid*, 1961-I-23. Eymar koronelari eta haren auzitegiari buruz, ikus Águila (2001) eta <https://justiciaydictadura.com/tema/coronel-eymar/>

<sup>85</sup> Leidako Gobernu Zibileko Andorrako Negoziatuaren informazio-oharra, 1960-VII-19, AAN, 82/16232 kutxa.

eskutan zuten informazioaren arabera, DRILek Toulousen zuen babes-taldearen ageriko burua zen. Valaten babesari esker, kartzela saihestu, eta Belgikara joateko aukera izan zuen Marín Novoak. Ikusi dugunez, han atxilotua izan zen, baina luze gabe berreskuratu zuen askatasuna<sup>86</sup>.

Hortik aurrera, haren lorratza galdu zen, Guillermo Santoro Sánchez eta Arturo González-Mata Lledórekin gertatu bezala. Ez dakigu zer gertatu zitzaien. Ez dakigu ziur hirutatik nork jarri zuen bonba Amarako geltokian. Ez zen epaiketarik izan, eta 1977ko Amnistia Legeak krimenaren erantzukizuna ezabatu zuen. Zigorgabe geratu zen. Dena den, egia judizial behin-betiko bat egon ez arren, iturri dokumental guztiek norabide bera iradokitzen dute: Begoña Urroz hil zuen bonba jarri zutenak DRILeko kideak izan ziren.

## 6. KARIBEKO PIRATAK.SANTA MARIAREN BAHIKETA

1961eko urtarrilaren 22an Portugalgo Santa María transatlantikoa garai horretan Antilla Herbeheretarren zati zen Curazao irlako portutik atera zen Lisboa bidean. Companhia Colonial de Navegação delakoari zegokion, eta gutxi gorabehera 610 bidaiari eta 350 tripulante zeramatzan. Egun horretan DRILeko komando batek ontzia eraso zuen: armatutako 24 gizon, Portugalgo eta Espainiako nazionalitatearekin, gehienak Venezuelatik zetozela. Galvão, Velok eta Fernández Vázquezek zuzentzen zituzten<sup>87</sup>.

---

<sup>86</sup> «Informe sobre actividades DRIL», 1960-IX-21, AAN, 82/20952 kutxa. Jiménez Redondo (2003: 96). Garai hartan zehar, Muñoz Alonsok (1982: 14) adierazi bezala, ohikoa zen frankismoak oposizioaren sektore bortitzenaren gune garrantzitsuena Toulousen zegoela salatzea, PCEk zuzenean edo zeharka inspiratua. Ikus, adibidez, *Las escuelas terroristas de Toulouse* (Prieto Solanes, 1965) eleberria. Valatek Frantziako erresistentzian burutu zuen zereginari buruz, ikus [http://polices.mobiles.free.fr/biographies/bio-Morhange%20\(3\).pdf](http://polices.mobiles.free.fr/biographies/bio-Morhange%20(3).pdf)

<sup>87</sup> Jiménez Redondo (2003: 102-105), Moreira eta Gonçalves (2008), Mortágua (2009: 189 eta hurr.) eta Recio García (2005). AANn bahiketari buruzko dokumentazio oso interesgarria dago, 54/11868 eta 54/11869 kutzak, AD, ANTT eta [http://casacomum.org/cc/arquivos?set=e\\_3130](http://casacomum.org/cc/arquivos?set=e_3130). RNEko irati-dokumental bat entzun daiteke ere, «Operación Dulcinea», 2017ko apirilaren 8an emana. <http://www.rtve.es/alcarta/audios/documentos-rne/documentos-rne-operacion-dulcinea-secuestro-del-trasatlantico-santa-maria-contra-dictaduras-franco-salazar-08-04-17/3972931/> Lehenago ere: <http://www.rtve.es/alcarta/audios/ayer/ayer-cincuenta-anos-del-secuestro-del-trasatlantico-santa-maria-dril-21-05-11/1109041/> Ikus baita ere Assalto ao Santa Maria (Francisco Manso, 2010) pelikula.

Operazioan zehar, erasotzaileek bidaiari bati eta tripulazioko bi kideri tiro egin zieten: Cícero Campos Leite medikuari, João António Lopes de Sousa pilotu praktikatzaileari eta ontziko hirugarren pilotua zen João José do Nascimento Costari, une horretan aginte-zubian zaintzako ofizial bezala zegoenari. Hiru bala inpaktu jaso zituen: ezker besoan, eskuin lepauztaiaren eta sabelean. Hogeita bost urteko marinel hura aita izan berria zen, baina ez zen bere alaba Maria da Silva ezagutzera iritsi, eraso eta apur bat geroago hil baitzen. *“Sofreu terrivelmente durante varias horas”*, kontatu zuen geroago lekuko batek, eta Durães izeneko portugaldar bati egotzi zion João José do Nascimento Costaren bizitzarekin amaitu zuten tiroen egiletza. Hala ere, gugana heldu diren zerrendetan ez dago izen edo abizen hori duen inor. Nor izan zen, orduan, hilketa horren arduraduna? *“O assalto ao “Santa Maria” (1974) izenburuko bere liburuan, Galvão kapitainak adierazi zuenez, “o grupo de Sotomayor (...) encontrou inesperada resistência por parte do oficial que estava na ponte do navio (...). Uma breve troca de tiros na escuridão da ponte resultou na morte deste oficial e ferimentos em outro”*. Hain zuzen ere, Sotomayorrek berak —José Fernández Vázquezek— onartzen duen bezala, bere komandoa izan zen “aginte-zubia hartzeko arduraduna, istriborreko hegaletik jardunez”, eta Víctor Velo eta José Mazo komando horretako kide ziren. “Iluntasunean norbaitek makineta telegrafoetako batekin estropezu egin zuen”, kontatu zuen *Yo robé el Santa María* (1978) bere lanean. “Eskuin besaurretik heltzen zidatela sentitu nuen; baina nire eskua aske zegoen armari eragiteko. Hala ere, erreakzionatu ahal izan baino lehen, tiro bat entzun zen; bala nire buruaren gainetik pasatu zen txistuka (...); lekuaren iluntasunarekin nahasten zen itzalari tiro egin nion; beste zenbait tirok eztanda egin zuten, eta balek manparetan jo zuten, eta oihartzuna handitu egin zen (...) Ababorreko sarreran tiro gehiago etorri ziren bata bestearen atzetik, eta nire laguntzaileak —geroago kontatu zidan bezala— lurlean luze etzateko eta tiro egiteko agindu zien bere kideei. Nire gizonak kanporantz bultzatu, eta, posizio horretatik, zubiaren barrualdea balaz josi genuen atetik eta leihotik zehar”. Hortaz, gertaerek erakusten dutenez, Nascimento hil zuenak edo hil zutenek espainiar naziotasuna zuten. Hori baieztatzen datoz Francisco Ricoren —tiroketan parte hartu zuten DRILetako kide bat— oroitzapenak eta Portugalgo Polizia Judizialaren txosten bat, erantzulezat Víctor Velo Pérez jotzen zuena. Lisboako Enbaxada frankistako agregatu militarrek gauza bera egin zuen, eta Espainiako Gudarosteko informazio-zerbitzuak, Estatu Nagusi Zentraleko Bigarren Sekzioak, akusazioaren berri eman zuen. Velok bertsio oso ezberdina eman zuen: bi talde ezberdinek eraso zuten aginte-zubia aurkako aldeetatik. *“Un tiro efectuado por uno dos grupos provocou a reacción do xefe do outro grupo, que acabou, disparando, no escuro, ó interpretar que houbera reaccioóns dos tripulantes da sala de mando. Ó se prenderen as luces*

da ponte, verificouse que dous oficiais estaban gravemente feridos. Foron levados, de inmediato, polos comandos á enfermería do barco. Un, desgraciadamente, veu falecer de alí a pouco”. Santa Mariaren bahiketara partaide izan zirenak epaitu bazituzten ere (auzi-ihesean), hilketa ez zen inoiz argitu. Oraindik ere ez dira tiroen egile materialaren identitateari buruzko aztarna fidagarriak aurkitu. DRILEko kide bat zela, horretan ez dago zalantzarik<sup>88</sup>.

Edozein modutan, albistea luze gabe heldu zen Portugalgo hiriburura, Nascimentoren emazteari ezkutatu bazioten ere, oraindik eriondo baitzegoen erditzearen ostean. Diário de Lisboa kazetari bat hildakoaren gurasoen etxera joan zen, eta familiaren aieneak entzun zituen: “Coitadinho! Coitadinho! Nem chegou a ver a sua filhinha... Nem ao menos a vi na fotografia que em carta lhe mandamos para Curaçao”.<sup>89</sup>

Ziur asko kontsolamendu gutxikoa izan zen Galvão *O Jornal* egindako adierazpena: “bravo Nascimento Costa morto em combate”, “único de toda a tripulação de oficiais que era um homem e que, como homem, merecia viver”. Kapitainak laudorio horiek errepikatu zituen bere liburuan: “o único indivíduo corajoso e varonil que encontramos entre os 350 elementos da tripulação do Santa Maria”<sup>90</sup>.

DRILEko bigarren biktima mortalak *Estado Novo*aren nolabaiteko aitortza jaso zuen gerora, Santa Mariaren bahiketarekin nozitutako umiliazioaren ordaina

<sup>88</sup> Galvão (1974: 173), Fernández Vázquez (1978: 50-52), Rico (1966: 43-46) eta Velo Pérez (1996). *O Jornal*, 1961-I-26 eta 1961-II-4. Diário de Lisboa, 1961-I-26 eta 29. La Vanguardia, 1961-II-9 eta III-1. «Nota oficiosa da Presidência do Conselho», 1961-II-4-II, ANTT. Poliziaren txostena (d. g.), «Assalto ao Pacote Santa Maria», [http://hdl.handle.net/11002/fms\\_dc\\_79393](http://hdl.handle.net/11002/fms_dc_79393). Espainiak Lisboan zuen Enbaxadaren agregatu militarren idatzia, 1961-IV-27, AAMNn, 21.802 kutxa. Hartan oinarritzen zen Bigarren Sekzioaren informazio-oharra, 1961-V-30, AAMN, 21.802 kutxa. Erasoari buruzko erreportaje bat: <https://www.defensa.com/ayer-noticia/enero-febrero-1961-caza-transatlantico-santa-maria>.

<sup>89</sup> *Diário de Lisboa*, 1961-I-24.

<sup>90</sup> *O Jornal*, 1961-I-26 eta II-4. Galvão (1974: 173). Azken honen iritzia eta Fernández Vázquezena (1978: 166) bestelakoa da: “soldatak [Santa Mariako tripulazioko kideena] baxuak ziren, eta tratua, kasu askotan, despotikoa zen. Horretan —ganberetako zerbitzuko emakumeen esanetan— José do Nascimento nabarmentzen zen, urtarilaren 22an, goizaldeko ordu bat eta laurdenean, nabigazioko zubiaren aurkako erasoan hila. Tripulante askok esan zigutenez, aipatu ofizial hori Portugalgo mugimendu faxistaren kidea (azulejukoak esaten zieten, zeramikaz egindako esmalte txiki bat zeukatelako papar-hegalean, fondo zuri baten gainean urdin koloreko Aviseko Gurutzea zeramana) eta PIDEko isilpeko agentea zen”. Ez dago horren inolako ziurtasunik, eta, ondorioz, Fernández Vázquezen hitzek DRILEko bigarren biktima mortalaren oroimena iluntzeko ahaleginari erantzuten diotela dirudi, bere buruaren erantzukizuna gutxitze aldera.



hartzeko beharra baitzuen. 1961eko otsailean João José do Nascimento Costaren hileta-elizkizuna eman zen Estrelako basilikan, eta Espainiako enbaxadorea joan zen hartara. Errepublikako presidentek, Américo de Deus Rodrigues Tomás almiranteak, Cavaleiro da Ordem Militar da Torre e Espadaren intsigniak jarri zituen hilkutxaren gainean, maila hori eman baitzioten hildakoari. Gainera, hildakoaren omenez, haren izena jarri zioten bi kaleri, bata Lisboan eta bestea Vila Franca de Siran. Oraindik ere izen hori dute. Dena den, DRILen historiari buruzko kontakizunetan, João José do Nascimento Costaren hilketa ia oharkabean pasa zen, Begoña Urrozena bezalaxe<sup>91</sup>.

Dulcinea Operazioak aurrera jarraitu zuen. Ontzia Fernando Poo uharte espainiarra —gerora Santa Liberdade berrizendatua— eramatea zen egitasmoa, non armak eskuratuko baitzituzten. Angola zen amaierako helmuga, oraindik Portugalgo kolonia zena. “Portugalen barrualdean matxinada armatu bat piztea zen helburua, eta, ondorioz, baita Espainian ere, Salazarren eta Francoren diktadorekin amaituko zuena”, dio Jiménez Redondok. “Une horretan, Delgado jeneralak hartu behar zuen boterea Lisboan, bai eta prozesu iraultzailea burutu ere”<sup>92</sup>.

SFantasia bat zen, baina Espainiako Gobernuak nolabaiteko urduritasuna erakutsi zuen. “Caudillo”ak berak honako hau aitortu zion bere lehengusuari: “Kezkatuta naukate Galvão kapitain ohiaren eta bere pirateria plana burutzeko ontziratu zituen jarraitzaileen asmoek; jarraitzaile horien artean zenbait espainiar egongo dira, eta, agian, Gineako gure probintziako uharteen aurka etsaitasunezko ekintzaren bat egin nahiko dute. *Canariasen* [gurutzaontzia] irteera agindu dut arrisku oro saihesteko eta inolako ustekaberik ez izateko”. Rosa María Pardo Sanzek azpimarratzen duen bezala, “beldur ziren gertaera hura, penintsulako diktadurak ezegonkortzeko prestatutakoa, Espainian eta Karibean antolatutako mugimendu subertsibo batean amaituko ote zen”<sup>93</sup>.

AEBetako Armadak Santa María aurkitu eta gero, DRILek bere planak bertan behera utzi, eta bere abenturaren amaieraren baldintzak negoziatu behar izan zituen. Otsailean ontziko bidaiariak eta bahitzaileak Recifen (Brasilen) lehorreratu ziren. Direktorioko kideek asilo politikoa jaso zuten herrialde hartan<sup>94</sup>.

<sup>91</sup> *Diário da Manhã*, 1961-II-18. *O Seculo*, 1961-II-18. *O Jornal*, 1961-II-19. *Diário do Governo*, 61. zkia., 1961-III-13. Dokumentazioa AAMNn, 21.802 kutxa. Santa María Portugalera itzuli zenean jaso zuen João José do Nascimento Costak lehen omenaldia. Ikus <https://www.youtube.com/watch?v=f6zkkAwAlic>

<sup>92</sup> Jiménez Redondo (2003: 102-105). Fernández Vázquezek (1978: 95-96 eta 100-101) baieztatzen ditu Ginea Espainiarreko eta Angolako planak.

<sup>93</sup> Pardo Sanz (2007) eta Franco Salgado-Araujo (1976: 309). «Nota informativa de la Dirección de Asuntos Políticos de África», 1961-I-26, FFFN, 6163 biribilkia. «Nota informativa», Madril, 1961-III-9, AAN, 82/16257 kutxa.

<sup>94</sup> *Le Monde*, 1961-II-3, -4 eta -7. Pedro Manuel Ferreira: «Enero-febrero de 1961. La

Egun batzuk geroago, Santa Mariaren hartzearekin kausa-ondorio harreman bat ezarri ezin delarik, Angolaren Askapenerako Mugimenduak Luandako kartzelari eraso egin, eta presoak askatu zituen. Ekintza hori independentziaren gerraren hasieratzat jo izan da. 1961eko maiatzaren 12an DRILEk Sao Paulon antolatutako mitin batean Angolako ordezkari batek hitz egin zuen<sup>95</sup>.

Santa Mariaren bahiketa positiboa izan zen DRILentzat hainbat alderditan. Batetik, nazioarteko prentsan lortu zuen eragin handiari esker, kolpe gogorra izan zen Salazarren diktaduraren ospearentzat. Bestetik, agerian geratu zen Salazarrek ez zuela AEBetako presidente berriaren, John F. Kennedyren, babes baldintzarik gabekoa. PIDEren (*Polícia Internacional e de Defesa do Estado*) barne dokumentazioaren arabera, haren jokabide amore emaileak “*causou espanto*”. Pixkanaka, Iberiako diktaduren oposizioarengana hurbilduko zela iragartzen zen<sup>96</sup>. Azkenik, Lorenzo Castroren esanetan, “Espainiako erbesteratuen artean berehalako efektua” izan zuen. Antifrankismoaren sektore adierazgarri batek —hala nola Gazteria Libertarioek eta PSOEk—, ordu arte Direktorioarekiko distantziari eutsi ziona edo bestela haren izena belztu zuena, balentria itxaropentsu gisa hautematen zen ekintza hura goraiatu zuen. Nabarmentzekoa da erbestean zegoen Errepublikaren Gobernuaren babesa, zeinarekin DRILEk lankidetzak akordio bat sinatu zuen, Santa Mariaren hartzearen ondotik jakitera eman zena<sup>97</sup>.

Arrakasta partzialak gorabehera, operazioa porrot bat izan zen. Amaierako helburuak ez lortzeaz gainera, egitasmoaren lehen fasea ere ez zen gaudititu. Bestalde, Iberiako diktaduren arteko lotura ahuldu ordez, kontrako erreakzioa eragin zuen: mehatxu komunaren aurrean, beren arteko harremanak estutu zituzten. Gortetan emandako hitzaldi batean, Portugalen etsaiak Espainiarenak

---

caza del transatlántico “Santa María”, <https://www.defensa.com/ayer-noticia/enero-febrero-1961-caza-transatlantico-santa-maria>

<sup>95</sup> Jiménez Redondo (2003: 115-116). Portugalgo Atzerriko Negozioen Ministerioaren ohar konfidentziala, 1961-VIII-22, ANTT. *La Vanguardia*, 1961-II-7 eta -22.

<sup>96</sup> Informação nº 242/61-GU, 1961-III-2, AD.

<sup>97</sup> Montanyà (2004: 47-49), Paz Sánchez (2006b: 193), Alberola eta Gransac (2004: 9 eta 42), Raby (1995), Matos Ferreira (2015: 93-96), Moreira eta Gonçalves (2008), Castro Moral (argitaragabea), Fernández Vázquez (1978: 185-186), Jiménez Redondo (2003: 99-110 eta 120-121), Cabeza Sánchez-Albornoz (1999: 305-312). *Gudari*, 1961-IV. «Opposition in Portugal», 1961-II-8, <https://www.cia.gov/library/readingroom/docs/CIA-RDP85T00875R002000190004-2.pdf>. «Anejo a una carta dirigida por el Embajador de Brasil al Ministro de Asuntos Exteriores», 1961-II-20, FFFN, 23742 biribilkia. Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1961-II-23, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53102 espedientea. Informação nº 410/61-GU, 1961-III-30, eta nº 936/61-GU, 1961-VI-3, ANTT. «Acuerdo luso-español», 1960, Betanzoseko Udala Artxiboa, Alvajar Funtsa, Erbestean dagoen Errepublikako Gobernuak.

ere bazirela azpimarratu zuen Francok. Ez da harritzekoa Portugalgo Kanpo Arazoetarako Ministroak bere kide espainiarrari bere esker ona helaraztea, “Espainiako Gobernuak Portugaletik, bere historiako une zail hauetan, erakutsi duen jarrera prestu eta eskuzabalagatik”. Hurbilketa hori prentsan eta iritziz publikoan nabaritu zen baita ere. Espainiak Lisboan zuen enbaxadaren arabera, “orain dela nahiko gutxira arte gure herrialdeari eginiko aipamen jarraitu eta txiki gutxi gorabehera desatsegin eta injustuak entzutea ohikoa bazen ere, gaur esan daiteke aipamen horiek desagertu egin direla, eta haien ordez begikotasunezko eta aitortzazko adierazpen irekiak direla nagusi”<sup>98</sup>.

## **7. AMESKERIAREN AMAIERA. DRILEN GOREN UNEA ETA ERORIALDIA**

Santa Mariari egindako erasoak protagonismo labur eta ez ohiko bat eman zion DRILi. Prentsan eta dokumentazio diplomatiko eta polizialean haien ustezko egitasmoei buruzko albiste alarmistak agertu ziren etengabe: gerrillak entrenatzen ari ziren Buenos Airesen, beste ontzi baten harrapatzea prestatzen ari ziren... 1961eko otsailean CIAk agintari frankistei jakinarazi zenez, DRILEk “beste ustekabeko kolpe bat burutu nahi du Llivian [Gerona], han kokatzeko eta Espainiak bidaltzen dituen indarren aurka leku hura babesten saiatzeko, ‘Santa Mariá’ren antzeko beste propaganda-arrakasta bat lortzeko”. 1961eko martxoan Lisboan zegoen Espainiako enbaxadoreak zera ohartarazi zion Kanpo Arazoetarako Ministroari: “modu arduragabe eta grinatsuan, terroristen moduan, jokatzeko ari den talde bat da, eta orain, horrenbeste bideren bidez dakigun bezala, bere jardura areagotu nahi du Portugalen eta Espainian”. Adibidez, PIDEren eraikuntza leherrarazteko asmoa zuen. Apirilean, kidego horren beraren esanetan, José Fernández Vázquez 1,5 milioi dolarreko balioa zuen armategi baten erosketa negoziatzen ari zen estatubatuar batekin, eta, horretarako, Mexikoko banketxe pare baten finantzazioa lortu zuen. Era berean, Salazarren erregimenak erregimen frankistari iragarri zionez, itsaspekoetatik armak eta munizioak lehorreratu zituzten, eta Galvão Espainiako lurretan zegoen. 1961eko maiatzean Portugalgo Gobernuko presidentea erailtzeko konplot bat zegoela ohartarazi zuen PIDEk, bi hilabete atzera *Sunday Express*ek (Johannesburgo) jaso zuena; *Le Monde*ek, berriz, Franco Andaluzian hiltzeko ustezko plan bat atera

<sup>98</sup> Ibidem. *Diário Popular*, 1961-XI-28. *Diário Carioca*, 1961-VI-6. «Información diplomática de la Embajada española en Lisboa», 273. zkia., 1961-V-2, eta 828. zkia., 1961-XI-29, AAN, 82/16257 kutxa.

zuen argitara, baina bertan behera geratu omen zen atxiloketa mordo bat egon zelako. Ekainak 3ko CIAren memorandum batek baieztatzen duenez, Direktorioa Portugaletik Sierra Morenara “talde” bat infiltratzea planteatzen ari zen. Hilabete horretan berean PIDEko txosten batek ohartarazten zuen erakundeak Portugalgo hegoaldeko kostaldea aurreikusten zuela “*como a sua ‘Sierra Maestra’*”. “*Segundo consta, o movimento revolucionario que está preparado para Portugal e Espanha pelo ‘DRIL’ que se iniciará por atentados a Salazar e Franco*”. Brasilen, Kubaren, Jugoslaviaren eta beste zenbait errepublika sozialisten babesaren omen zuen, baita Marokorena ere; taldeak hantxe ezarri behar zuen bere basea. PIDEn beste dokumentu batek terroristen lehorreratze bat iragarri zuen Portugalen, tren geltokiak bezalako hil edo biziko guneetan atentatuak egiteko. Espainiako Gudarosteko Goi Estatu Nagusiak, aldiz, DRILeko 64 gizonez osatutako ontzi bat Galiziarantz zihoala uste zuen. Zerrenda luzea da, baina puztuta dago; egitateak puzteekin eta zurrumurruekin nahasten dira, Direktorioko bozeramaileen hitzaldi hotsandikoei elikatzen zituztenak. Bien bitartean, antifrankismoaren eta Latinoamerikako ezkerren sektore zabal batek harrera arranditsua eskaini zien. Ikerketa Sozialeko Brigadaren buletin batek jasotzen zuenaren arabera, Sao Pauloko Gune Demokratiko Espainiarrean ohorezko koktel bat ospatu zuten Santa Mariaren bahitzaileen ohoretan, eta 500 eta 600 pertsona bitartean bertaratu ziren. Erbestean zegoen Errepublikaren Gobernuko ordezkariak adierazi zuenez, “ohore handia da bere gobernuaren izenean halako balentria batean parte hartu zuten eta iberiar herrien askatasunaren borroka bezalako goi eginkizun batean tematuta dauden heroiei harrera egitea”. Galvão adierazi zuenez, ontziari egindako erasoak “ez zen izan gertaera isolatu bat, herri askeek diktadore eta despoten aurka lortutako garaipen baten hasiera baizik”<sup>99</sup>.

<sup>99</sup> Raby (1995: 74) eta Jiménez Redondo (2003: 120-127). *Le Monde*, 1961-IV-17, 1961-V-6 eta 1961-V-30. *Sunday Express* (Johannesburgo), 1961-III-12. *La Vanguardia*, 1961-III-1. «Nota informativa», 1961-II-17, FFFN, 4423 biribilkia. «Carta nº 245 del Embajador en Lisboa al Ministro de Asuntos Exteriores», 1961-III-7, AAN, 82/16257 kutxa. «Telegrama del Embajador en Lisboa al Ministro de Asuntos Exteriores», 1961-IX-20, FFFN, 10613 biribilkia. «Telegramas del Embajador en Rabat y del Consúl General en Tánger al Ministro de Exteriores», 1961-IX-28, FFFN, 14889 biribilkia. Informação nº 410/61-GU, 1961-III-30, nº 362/61-GU, 1961-III-23, nº 410/61-GU, 1961-III-30, nº 944/61-GU, 1961-VI-6, eta nº 988/61-GU, 1961-VI-12, ANTT. Informação nº 411/61-GU, 1961-III-30, nº 450/61-GU, 1961-IV-7, nº 552/61-GU, 1961-IV-18, nº 802/61-GU, 1961-V-20, nº 853/61-GU, 1961-IV-25, nº 1319/61-GU, 1961-IX-13, eta nº 1493/61-GU, 1961-IX-11, AD (artxibo horretan DRILek 1961an zehar egin zuen jarduerari buruzko informazio zehatza dago). Goi Estatu Nagusiaren oharra, 1961-IX-22, AAMN, 21.802 kutxa. Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletinak, 1961-II-23, 1961-VI-6, 1961-VII-27 eta 1961-X-30, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53102 espedientea.

Informazio-ohar espainiar batean onartzen zenez, DRILak eta Afrikako kolonietako askapen mugimenduek “kezka larria eragin dute Portugalgo gobernu-mailetan”. Neurri txikiagoan bada ere, Francoren diktadurak herstura hori partekatzen zuen. Oinarririk gabeko kausei erantzuten zion, baina ondorio odoltsuki benetakoak izan zituen: kateatutako gezurren ondorioz eragindako heriotza bat, zabartasunak, akatsak eta gaizki-ulertuak. 1961eko martxoan “informazio-zerbitzuetako zenbait konfidentzia eta albiste” heldu ziren, “muturreko lagun batzuek, atentatu terroristen bidez, gure Aberrian burutu nahi zituzten planei buruzkoak, efektu kolperen bat lortzeko, beste zenbait herrialdetan ikusgarriro gertatu zirenen antzekoak”. Hilabete horretako 26an porrot egindako enpresari batek, berme gisa jokabide-oneko ziurtagiri bat bilatzen zuenak, salaketa faltsu bat egin zuen Gasteizko Guardia Zibilaren komandantzian. Frantziatik zetorren komando bateko kideen elkarrizketa bat entzun omen zuen ustekabea, “Madril eraso” aurretik, distrakzio gisa, zenbait probintzietako gune ofizialetan bonbak jartzeko asmoa zutenak. Gezur baldar bat baino ez zen, baina, hurrengo egunean zinpeko zaintzaile batek salatzaileak adierazitakoaren antzeko auto bat identifikatu zuenean Gasteizen, alarma orokorra piztu zen Araban eta probintzia mugakideetan. Bilboko sarreran zegoen polizia-kontrol batean gerarazi zuten autoa. Ez dakigu nor izan zen, ezta zergatia ere, baina agenteetako batek tiro egin zuen. Tiroa entzutean, eraso terrorista batetik babesten ari zirelakoan, gainerako poliziek eta guardia zibilek tiro egin zieten susmagarriei. Ondorioa dramatikoa izan zen: biktima mortal bat, Javier Batarrita, eta zauritu larri bat, José Antonio Martín-Ballester, elbarri geratu zena. Gizon haiek lan-bidaia batean zihoazen Gasteiza. Ez zuten inolako zerikusirik DRILarekin. Ezta posizio antifrankistarekin ere. Are gehiago, Martín-Ballesteroren familia oso ondo kokatua zegoen erregimenean. Kasuak ohi ez bezalako iskanbila eragin zuen garai hartarako. Poliziak eta guardia zibilak auzipetu zituzten, haietako bat bi aldiz, baina, azkenean, absolbitu egin zituzten<sup>100</sup>.

Franco eta Salazarren artegatasuna gorabehera, Direktorioa barne-zatiketa bete-betean zegoen. Santa Mariaren itsasaldian agerian jarri ziren dagoeneko tirabirak, hainbestearino non Direktorioko buruzagi espainiarrek hiltzeko mehatxua egin baitzioten Galvãori ustezko traizioagatik. Porrotak arazoak areagotu, eta elkarri esandako gaitzespenak biderkatu zituen. Gainera, litekeena da Castoren babesaren galerarekin batera gertatzea, nahiago izan baitzuen Francoren diktadurarekin zituen harremanak babestu<sup>101</sup>. Fernández Vázquezentzat, “traidore

«Documento 1», 1963-I-18, NARA Record Number: 124-90135-10074, [https://www.maryferrell.org/archive/docs/166/166986/images/img\\_166986\\_8\\_300.png](https://www.maryferrell.org/archive/docs/166/166986/images/img_166986_8_300.png)

<sup>100</sup> Fernández Soldevilla (2018a). «Informe sobre el DRIL», Madril, 1961-III-14, AAN, 82/16257 kutxa.

<sup>101</sup> Suárez Fernández (1987: 229 eta hurr.).

ezkutuak zeuden, eta beste batzuk inkontzientek; DRILen nano politikoak zeuden, postu gorenetara helduko zirela uste zutenak. DRILEk ez zuen batasun ideologikorik, eta, horregatik, heriotzara zigortua zegoen”. Taldearen arazoak aspalditik zetozen: doktrina-kontraesanak, desadostasun estrategikoak, diru arazoak, espainiarren eta portugaldarren arteko tirabirak, zeloak eta ia-ia elkar jasaten ez zuten buruzagien arteko protagonismo nahia. Susmoak, irainak, mehatxuak, desleialtasun edo are traizio salaketak eta garbiketak bata bestearen ondotik etorri ziren. Labur esanda, denak denen aurka zeuden. Fakzio batek zein besteak Abderramán Muley, José Fernández Vázquez, José Velo, Henrique Galvão, Humberto Delgadoren... kanporatzea iragarri zuten. Azken bi horiei ez zien minik eman ere, Portugalgo sekzioa modu autonomoan funtzionatzen hasi baitzen berriz, bere lehengo deitura berreskuratuta: *Movimiento Nacional Independiente*. 1961eko uztailean Delgadok zera berretsi zuen, “*que o MNI não está representado no DRIL. Confirmo que mais de uma vez com o senhor Secretário Geral [Galvão] consertei para estarmos fora dele, excepto na parte de solidariedade humana*”. Hurrengo hilabetean Galvão berak DREL bezala bataiatu zuen DRILA: Directorio Revolucionario Español de Liberación<sup>102</sup>.

Hain zuzen ere, Direktorioari egotzi zitzaizkion zenbait ekintzek ez zuten haren sinadura, *Movimiento Nacional Independiente* delakoarena baizik. 1964ko azaroak 10an Galvão kapitainaren jarraitzaileek Casablanca-Lisboa ibilbidea egiten zuen hegazkin bat bahitu zuten. Portugalgo hiriburuaren gainera Salazarren aurkako panfletoak botatzeko desbideratu zuten ontzia, herrialdean “hauteskudeen” ihakin bat egiteko puntuan zeudela baliatuta. Apenas bi hilabete geroago, 1962ko urtarrilaren 1an, Bejako (Portugal) kuartelari egindako eraso batek, zeinean militarrek zein zibilek parte hartu zuten Humberto Delgadoren agintepean, huts egin zuen. Hiru hildakorekin itxi zen saioa: erasotzaileetako bi, Antonio Pedro Correia Vilar eta David da Silva Abreu, eta Gudarosteko Estatuko idazkariorde zen Jaime Felipe de Fonseca teniente-koronela. Azken honen heriotza ezin zaio DRILI leporatu, Portugalgo taldea dagoeneko erakundetik banandua baitzegoen<sup>103</sup>.

<sup>102</sup> Jiménez Redondo (2003: 121-124), Raby (1995: 72-83), Castro Moral (argitaragabea), Corbacho (2009: 444) eta Martiz Crespo (2016) eta Fernández Vázquez (1978: 327 eta hurr.). Xurxo Martínezek Fernández Vázquezi egindako sarrera (2010: 28-32). Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1961-VIII-4, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53102 espedientea. Informação nº 410/61-GU, 1961-III-30, ANTT. Informação nº 910/61-GU, 1961-V-30, AD. ABC, 1961-VII-7. «Actividades del llamado Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación», 1961, AAN, 82/16232 kutxa. Henrique Galvão José Fernández Vázquezi idatzitako gutuna, 1961-VIII-1, AEG. DRILen amaierako krisiari buruzko informazioa, AEGn, Sotomayor funtsa, AAN, 82/18949 kutxa, eta AAMN, 21.802 kutxa.

<sup>103</sup> Vaz (2012), Jiménez Redondo (2003: 128), Santos (2012), Santos Vargas (2016) eta

1962ko martxoan Caracasen zegoen Espainiako enbaxadoreak Kanpo Arazoetarako Ministerioari emandako informazioaren arabera, bonba bat aurkitu zuten kantzilergoan, lehertzera heldu ez bazen ere. Uztailean, diplomatiko horrek berak ohartarazi zuenez, erbesteko euskal nazionalisten medioetan zurrumurru bat zebilen, DRILeko kideak Espainian sartzen ari zirela “fabriketan, trenbideetan eta abarretan ekintza terroristen kanpaina ikusgarri bat burutzeko”. Ez da harritzekoa prentsak, une jakin batzuetan, 1962ko ekainetik aurrera hainbat lekutan izan ziren atentatuen arduraduna Direktorioa zela susmatzea: Bikariotza Orokor Militarrean, banketxeen sukurtsaletan, ikastetxe nagusietan, bulego publikoetan, argindar posteetan, Erorien Haraneko basilikan, Aieteko Jauregirako errepidean (Donostia) —Francok uda ematen zuen lekua alegia—, egunkariaren egoitzetan, Gipuzkoako Gobernu militarrean, eta abarren. *El Diario Vasco* egunkariaren arabera, azken leherketa honek “hiriaren ondoriozko gaitzespena jaso du, non ez dituzten ahaztu aurretik gertatu diren antzeko kasuak, horien artean Amarako geltokian adin txikiko neska errugabe bati bizitza kendu ziotenekoa”. Ekainaren 13an bonba horietako batek Manuel Eleuterio Liáñez Benítezi bizitza kendu zion Madrilgo Sagasta pasealekuko nasa nagusian. Prentsaren kontakizunari jarraiki, biktimari diru-zorro batean ezkutatuta zegoen bonba batek eztanda egin zion. Diru-zorro hura aurrez lapurtu zuen Instituto Nacional de Previsión delakoan, barruan zer zuen jakin gabe. Nor izan zen Liáñez Benítezen heriotzaren arduraduna? Atentatuak DRILen kanpaina terroristekin antza duen arren, ez zen DRILa izan. Defensa Interior erakundea izan zen krimenaren arduraduna. Talde anarkista hori berehala erori zen ahanzturan. Zoritzarrez, halabehar bera izan zuen haren biktima bakarrak, Barne Ministerioak ez baitu halakotzat jo<sup>104</sup>.

---

Cabeza Sánchez-Albornoz (1999: 308). *The New York Times*, 1961-XI-11. Haren jarduerari buruzko dokumentazio interesgarria ADn. 1965eko otsailean PIDEk Humberto Delgado jenerala eta honen idazkaria, Arajaryr Moreira de Campos, hil zituen Espainian. Portugalgo nazionalitatea zuten DRILeko beste kide ohi batzuk, hala nola Herminio da Palma, beste talde batzuetan sartu ziren, 1967an *Liga de Unidade e Acção Revolucionária* delakoan elkartuko zirenak. Ikus Santos (2011: 37-38). Gurucharri eta Ibáñez (2010: 116-117) arabera, 1961eko amaieraren eta 1962ko hasieraren artean Defensa Interior-ek harremanak izan zituen Delgadoren taldearekin, baina “ez zen ezer nabaria atera”.

<sup>104</sup> Batista (2015: 80-101), Guerrero Lucas (1979: 28), Herrerín López (2004 eta 2006), Montanyà (2004: 229-256) eta Alberola eta Gransac (2004: 75-78). *ABC*, 1962-VI-14, VI-16 eta 1962-XII-4. *El Diario Vasco*, 1962-XII-4. «Carta del embajador en Caracas al Ministerio de Asuntos Exteriores», Caracas, 1962-IV-24, AAN, 54/11871 kutxa. «Carta del embajador en Caracas al Ministerio de Asuntos Exteriores», Caracas, 1962-VII-26, AAN, 82/17035 kutxa. Carmen Albak berraurkitu zuen Manuel Eleuterio Liáñez Benítezen kasua, Auzitegi Nazionaleko Terrorismoaren Biktimen Arretarako

1962an Direktorioa hautsita zegoen. “*Que é a final o DRIL?*”, galdetzen zion gutun ironiko batean Galvão Fernández Vázquezi. “*Parece haver tantos DRIL como pulgas numa caserna. Um DRIL expulsa o Velo e Rojas, outro DRIL expulsa Sotomayor, Galvao, Delgado, outro DRIL tira o Quiroga por um alcapa o do lodo para as estrelas. Onde é a sede do manicómio?*”. Noizbehinkako ekintza baten salbuespenarekin, sigla horiek aldarrikatzen zituzten taldexkak komunikatuak ematera eta anbizio handiko proiektu iragartzera mugatzen ziren, gainerako oposizioak “handikeria zentzugabetzat” jotzen zituenak. Adierazpen demagogikoek, jarduera ezak, jendaurrean izandako borrokek eta zatiketek taldeak Santa Mariaren bahiketarekin pilatutako kapital politikoarekin amaitu zuen. Ez zuen sinesgarritasunik indar antifrankista berrien artean ere. 1962ko martxoan Direktorioko ordezkariak Frente de Liberación Popularreko (1958-1969) ordezkariekin bildu ziren. Azken horiek Cazorlako (Jaen) mendilerroan gerrillarien gune bat sortzearen inguruko eztabaida bat ere izan zuten. Lehenek bat-egitea proposatu zietenean bigarrenei, FLPko delegatuek, uko egiteaz gain, harremanak moztu zituzten DRILEkin. Krisia hilurrenekoa zen. Velok gutun batean onartu zuen hori, 1962koa baita ere: “sortzen lagundu nuen DRILen bukaera, jende on eta soilez betetako DRIL harena, erremediorik ez duen gertaera bat da, eta, horren adierazgarri —ergelkeria eta eraginkortasunik eza eta posta bidezko ikara eta hiltzera etsitua ez dagoen probokazioa ezkondata eta zabuka dabilzan arren—, bi ‘dril’ guztiz txikiagotueta dagoeneko ezinezkoa da perkalina disimulatzea. Honako hau izenpetzen ari denak ez du zuzentzen ‘hirugarren DRIL’ bat, ez du hartan militatzen ere”<sup>105</sup>.

Arquivo da Emigración Galegak ziur ezagutzen dugun Direktorioaren azken dokumentua gordetzen du. Kontseilu Nagusiaren 3. zenbakidun akta da, 1964ko azaroaren 24koa, Marokon ordezkari bat sortu zuena. José Fernández Vázquezek sinatu zuen idazkari nagusi gisa, Federico Ramosek idazkari sindikal gisa, Ricardo Graellsek antolaketa idazkari gisa, Francisco Ruizek idazkari militar gisa eta Agustín Albak kanpo harremanetarako idazkari laguntzaile gisa. Data

---

Bulegoaren buru zegoenean.

<sup>105</sup> Hernández Sánchez (2005: 314), García Alcalá (1992), García Rico (1998: 48, 92, 93 eta 96) eta Jiménez Redondo (2003: 129-130), García Alcalá (1997: 625) eta Corbacho (2009: 454). Henrique Galvão José Fernández Vázquezi idatzitako gutuna, datarik gabea, AEG. Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1962-VI, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53103 espediente. *Sotomayorrek* zuzendutako DRILen zatiketari buruzko dokumentazioa, AEGn. Haren arreta erakarri nahian, DRILa Jesús María Leizaola lehendakariarekin harremanetan jarri zen, baina ez dirudi erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzarekin harreman estua lortu zuenik. Ikus gutuna, 1961-IX-19, <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFFondo/iruj/6245.pdf>



horren ondotik ez da beste ezer gordetzen. Ziur asko, DRILetik geratzen zena apur bat geroago desagertu zen<sup>106</sup>.

## ONDORIOAK

António Salazarrek eta Francisco Francok molde autoritarioko eta antidemokratikoko diktadurak gidatzen zituzten, hiritarren eskubide oinarritzkoenak urratzen zituztenak. Biktima arrasto luzea utzi zuten atzean. Espainiaren kasuan bakarrik, matxinatuak 130.000 heriotza baino gehiagoren erantzule izan ziren Gerra Zibilean eta hurbileko gerraondoan. Abdón Mateosek eta Manuel Rederok nabarmentzen duten bezala, berrogeita hamarreko urteen erdialdetik “errepresioa mailakatzen joan zen, selektiboagoa bihurtu zen, eta hainbat neurri, zehapenekoak eta polizia-kontrollekoak, izan ziren nagusi”<sup>107</sup>. Dena den, gogoratzen dutenez, inoiz ez zen desagertu haren aurpegiak basatiena. Nahikoa da gogoratzea honako txosten honek aipatzen duen epealdian zehar, erregimen frankistak lau pertsona exekutatu zituela bidezko epaiketak gabe: DRILeko kide zen Antonio Abad Donoso 1960ko martxoaren 8an; Julián Grimau buruzagi komunista 1963ko apirilaren 20an eta Francisco Granado eta Joaquín Delgado anarkistak, Defensa Interiorreko militanteak, 1963ko abuztuak 17an<sup>108</sup>. Hortaz, ez dago inolako zalantzarik diktaduraren legitimitasunik ezaz. Eta haren uzkaileza nahi izatea erabat legitimoa zela ere ez dago zalantzan jartzerik. Hala ere, tiraniaren aurka borroka egiteko hainbat modu zeuden.

Kubako iraultzaren oso eraginpean, DRILa espainiar antifrakistez eta portugaldar antisalazaristez osatutako erakunde bat zen, erbestean erradikalizatu zena, gehiengoaren oposizio pasiboarekin itxaropena galdu eta gero. Ekintza-sorta zabal samar baten artean aukera zezaketen, eta indarkeriaren erabileraren alde egin zuten. Testuinguruak baldintzatuta egon arren, ez zituen indarkeriara bultzatzen. *Haien* logika arrazionaletik hartutako erabakia izan zen: Direktorioak aurreikusten zuenez, atentatu terroristek, ontzien bahiketak eta gerrillak Francorekin eta Salazarrekin amaituko zuen herri altxamendu baten pizkailu gisa jardun behar zuten<sup>109</sup>.

---

<sup>106</sup> «Carta del embajador de España en Argel al Ministerio de Asuntos Exteriores», 1964-II-19, AAN, 82/18381 kutxa. DRILen Kontseilu Nagusiaren 3. zenbakidun akta, 1964-XI-24, AEG.

<sup>107</sup> Mateos (2008).

<sup>108</sup> Erice (2017). Grimau kasuari buruz, ikus Rodríguez Armada eta Novais (1976). Delgado eta Granadori dagokionez, ikus Fonseca (1998).

<sup>109</sup> Talde jakin batek arrazionalki indarkeria terrorista aukeratzeari buruz, ikus Crenshaw (1981 eta 2011). ETArek kasurako, Fernández Soldevilla (2016).

DRILen estrategia armatuak bi biktima mortalen emaitza utzi zuen: 20 hilabeteke neskatxa bat, María Begoña Urroz Ibarrola, bonba baten leherketa pairatu zuena Donostian; eta Santa María ontziko hirugarren pilotua, João José do Nascimento Costa, erasotzaileen tiroak jaso zituena. Gainera, Madrilako bonbak jarri zituen komandoko bi kide hil ziren: José Ramón Pérez Jurado, lehergailuetako batek eztanda egin zionean, eta Antonio Abad Donoso, epaiketa summarisimo baten ostean exekutatua<sup>110</sup>.

Ikuspegi moral batetik, bizitza bakar bat prezio onartezina da: helburuak ez ditu inoiz bitartekoak justifikatzen. DRILen historia Begoña Urrozen argitan behatzen badugu, ondorioa agerikoa da. Sebastián Castellio parafraseatuz, neskatxa bat hiltzea ez da doktrina bat defendatzea, neskatxa bat hiltzea da. Eta beste bat umezurtz uztea. Zentzu horretan, Albert Camus gogoratzea komeni da, zeinak, Reyes Materen hitzetan, honako hau zioen: “errugabe bakar baten sufrimendua kontuan hartzen ez bada, gizartearen zati bat salbatzeko tentazioa izango genuke beste zati bat sakrifikatuz. Historia aurreraka bultzatzea lortuko genuke orduan, biktima berrien prezioa ordainduta (...) Camusentzat historia ez dago biktima bakar baten gainera ere”. Matek zera gehitu zuen: “Guztien ongiaren alde biktima errugabe bat sakrifikatzeko prest dagoena, kontzentrazio eremuari atek irekitzen ari zaizkio”<sup>111</sup>.

Beste ikuspegi jelatuki praktiko batetik, geure buruari galde diezaiokegu ea indarkeriazko baliabideak erabiltzeak zerbaitetan lagundu al zion Direktorioak bilatzen zuen helburuari. Erantzuna ezezkoa da: lau heriotza horiek ez zuten bizkortu penintsulako diktaduren behea jotzea. Ezta segundo bakar batez ere. Baliteke kontrakoa gertatzea ere. Diego Murok dioen bezala, beren helburuak lortzeko ezgauza izateaz gainera, banda terroristek sarritan helburu horiek kaltetzen dituzte<sup>112</sup>. Zentzu horretan, Direktorioaren atentatuek Franco eta Salazarren arteko Hitzarmen Iberikoaren sendotzea erraztu zuten, eta oposizioaren gainerakoari —batez ere joera komunistakoari— zilegitasuna kentzeko eta hura erreprimitzeko aitzakia bat esku-eskura jarri zieten bi diktadoreei. DRILen jarduerak agintarien alarmismoa ekarri zuen baita ere, eta egoera horretan gertatu zen Javier Batarritaren heriotza Poliziaren eskuetan.

Direktorioaren bide armatuaren hondamenak arrazoia eman zion indar antifrankista tradizionaleri, indarkeriaren erabilerari dagokionez jarrera askoz ere

---

<sup>110</sup> Matek (2006: 22) dioen bezala, “bi printzipio hauek (...) ezin dira begien bistatik galdu: a) nozitzen duen oro ez da biktima. Biktima errugabea da; b) ezein sufrimenduren aurrean ezin gara axolagabe geratu”.

<sup>111</sup> Zweig (2001: 196). Mate (2018: 99). Biktimak “beharrezko prezio” gisa, horri dagokionez, ikus Zamora, Mate eta Miso (2016).

<sup>112</sup> Muro (2018).

errealistagoa zutenak, makiaren esperientziari esker. Halaber, erbesteko bultzada agortzen ari zela iradokitzen zuen. Espainiaren barrualdean sortu zen oposizioak, bere estrategia propioa eta iraganetik heredatutako oztopo gutxiago zituenak, erreleboa hartu zuen: sindikatu klandestinoak, mugimendu sozialak, alderdi politiko berriak, eta abar. Egia da protestek, grebek edo manifestazioek ez zutela erregimena uzkailldu, baina hura ahultzen joan ziren, eta, azken finean, 1977an berrezarritako demokrazia parlamentarioaren oinarriak jartzen lagundu zuten<sup>113</sup>. Jakina, salbuespenak egon ziren, ETarena kasu.

Begoña Urroz eta de João José do Nascimento-ren heriotzen erantzukizuna DRILi dagokio. Ez dagokio ez PCeri, ez erregimenari; ezta ETari ere. Ez dago aztarna bakar bat ere 1960ko ekainaren 27an Amarako tren geltokian gertatu zen atentatuan banda horrek parte hartu zuela iradokitzen duenik. Zenbait egileren nahasmena ulergarria da neurri batean, hala inguruabarrak nola gertaeraren sinesgarritasuna edo hasierako ETaren indarkeriari buruzko lan fidagarrien falta kontuan hartuta. Dena den, bertsio hori defendaezina da gaur egun<sup>114</sup>.

1958ko urriaren 21an Donostian jaioa, Begoña Urrozen bizitza tragikoki laburra izan zen: urtebete, 8 hilabete eta 7 egun. Hiletaren ondotik, erakundeek ez zioten jaramonik egin haren familiari, eta galeraren mina nozitzeaz gain, babesgabetasunarena ere nozitu zuen, bai Estatuaren aldetik, bai gizartearen aldetik. Historiak ahanzturan lurperatu zuen hala Amarako atentatua nola atentatu haren biktima, eta hamarkadetan zehar ikusezina izan zen: neskatzaren hurbilekoek baino ez zuten gogoratu behin hura existitu zela. Zehazki gauza bera gertatu zen 1962an bonba baten biktima izandako Manuel Eleuterio Liáñez Benítezekin. Dena den, Liáñezekin gertatu ez bezala, Begoña Urrozen oroimena suspertu zuen zerbait egon zen: akatsa.

Hutsegiteak gorabehera, José Antonio Pagolaren oin-oharrak eta Javier Pagola, Jesús María Zuloaga, Ernest Lluch eta Jesús Duvaren testuek bertute bat izan zuten: Amarako geltokiko atentatuari berriro jaramon egitea lortu zuten, eta, horri esker, zeharka, Begoña Urruz gogoratzea ere. Zizeron (*Filipikak*, 9:5) parafraseatuz, neskatzaren bizitza bizien oroimenean berritu zen. Reyes Mate filosofoak dioen bezala, oroimena eta justizia sinonimoak dira<sup>115</sup>. Eta zenbait aldi bakanetan lerro okerre zuzen idazten dela gehi daiteke. Azken finean, aipatu egileen akatsari esker, 1960ko data-muga ezarri zen 2011ko Legean. Haien parte hartzerik gabe, agian inoiz ez zuketean Begoña Urroz terrorismoaren biktima bezala aitortuko.

---

<sup>113</sup> Juliá (2017).

<sup>114</sup> Domínguez (2017), Alonso, Domínguez y García (2010) y López Romo (2015). <http://www.europapress.es/nacional/noticia-censo-interior-reconoce-10181-victimas-terrorismo-cifra-853-asesinados-eta-20170618102154.html>

<sup>115</sup> Mate (2006: 14).

Terrorismoaren biktimak oroitzeko eta omentzeko ekainak 27a aukeratu izanaren atzean errakuntza egon zen baita ere. Urtero, 2011tik, Kongresuak solemnitaterik ospatu izan du data hori. Hala egiten jarraitu behar dugu. Barne Ministerioak terrorismoaren 1.400 biktima mortal baino gehiago aitortu ditu ofizialki: Urrozena horien artean bat gehiago da. Zentzu horretan, ekainaren 27a, haren hilketaren urteurrena, haiek guztiak gogoratzeko egun erabat baliozkoa da. Reyes Materen arabera, “norbaitek biktima bat aitortzen badu, guztiak aitortu behar ditu”. Bestela, biktima bakar bat ere ulertu ez duela erakusten du. Horrek, jakina, edozein terrorismo motakoak barnebiltzen ditu, baita Gerra Zibilarenak edo horren luzea izan zen diktadura frankistarenak ere. Guztiak dute dimentsio unibertuala<sup>116</sup>.

Gertatutakoa ikertzea, jendarteratzea eta gogoratzeko prozesu konplexu, zorrotz eta sarritan problematikoa da. Merezki al du begirada atzera botatzeko ahaleginak? Vasili Grossman idazle eta kazetari errusiarrak bezala, baiezkotan gaude gu ere: “Idazlearen eginbeharra egia izugarria kontatzea da, eta irakurlearen eginbehar-herritarra, hura ezagutzea”<sup>117</sup>. Eginbehar zibiko bat izateaz gain, historialari profesionalen ikuspuntutik, beharrezkoa da iraganari buruzko ezagutzan modu zorrotz eta mailakatuan aurrera egitea. Funtzio zientifiko bat betetzea da kontua, beste zenbait diziplina akademikoen antzekoa. Bere garrantzi eztabaida ezina gorabehera, ikuspegi hori zabalagoa den beste batekin osa daiteke. Izan ere, Martín Alonso saiakera-idazlearen arabera, indarkeria politikoak eragindako kaltetuen oroimena herritar guztientzat onuragarria da. Alde batetik, misio ordaingarri eta terapeutiko bat da biktimentzat eta haien bihotzkoentzat. Bestetik, oroimenak zeregin proaktibo eta profilaktikoa du: fanatismoaren eta erradikalizazioaren aurkako txerto bat da; gizarte demokratiko eta tolerante baten suspengarria. “Balore horiek oroimenaren konstelazio semantiko deritzogun horretan gauzatzen dira”: egia, justizia, ordaina eta berradiskidetzea. Azken batean, “iragan ilunarekin egindako alderatze moralak” “inoiz gehiago ez”arekin konprometitutako etorkizun bat eratzeko balio du<sup>118</sup>.

Horregatik da hain garrantzitsua Begoña Urroz gogoratzeko. Ondo gogoratzeko ere.

<sup>116</sup> Mate (2013: 281). Santiago de Pablo: «¿La primera víctima de ETA?», *El Correo*, 2010-VI-19.

<sup>117</sup> Grossman (2014: 55).

<sup>118</sup> Alonso (2012: 193-194).

## EPILOGOA. BA AL DUTE INOLAKO OINARRIRIK DRILI BURUZKO KONSPIRAZIO TEORIEK?

“Leku lasai horrek beti indarberritu nau: artxiboez ez dute gezurrik esaten. Hautsez betetako frogak gure arretaren zain daude, beren lekukotza emateko”.

Laurence Debray: *Iraultzaileen alaba*

1960ko uztailak 11n Venezuelako *El Mundo* egunkaria aurreko hilabeteko atentatuen egiletza erregimen frankistari leporatzen saiatu zen, zeina era odoltsu horretan prestatzen ari omen zen Kanpo Arazoetarako bere Ministroak Londretera egin beharreko bisita: “Falangea bonbak jartzen ari da oposizioari ospea kentzeko”. S. H. O’Brien delako batek sinatutako artikulua arabera, Falangeak, Poliziak eta Francoren Guardiak batera gauzatu omen zuten egitasmoa. Hortaz, ondorioztatzen zuen artikulugileak, Begoña Urrozen heriotza Gernikako bonbardaketaren biktimen zerrendara gehi zitekeen. Agerikoa den bezala, Latinoamerikako eta erbestean zegoen Espainiako ezkerren zati handi baten ikuspegitik, zaila zen *beretako bat* neskata bat hiltzeko gai zela onartzea. Eta hori DRILEko ordezkariak dagoeneko bonbak bere gain hartu zituztela<sup>119</sup>.

Gaitzespen ia unibertuala eragiteaz gain, Direktorioaren terrorismoa bere mesederako erabili zuten arerioek. Alderdi komunistak indarkeriarekin lotzeko eta laidoztatzeko erabili zuten bi diktadura iberikoek, nahiz eta alderdi komunistek indarkeriari uko egin. Babes gisa, komunistek berek frankismoaren agente probokatzailetzat salatu zituzten Direktorioko kideak, lehiakide desatsegin zirenak. Lorratz horri jarraituz, iturririk kontsultatu gabe eta datu berririk eman gabe, zenbait propagandistek konspirazioaren teoria berrartu dute<sup>120</sup>.

PCERen eta 1960ko kanpaina terroristen artean loturarik ote zegoen, ez dago horren ebidentziarik. Gobernazio Ministerioaren oharra gorabehera, poliziaren

<sup>119</sup> *El Mundo*, 1960-VII-11. «Nota del Servicio de Información de la Dirección General de Seguridad», 1960-VII-22, AAN, 82/16232 kutxa. Esanguratsua da PNVk ere ETaren lehen hilketen egiletza zalantzan jartzea, bandak komunikatu batean baieztatu zuen arren: urrian etakideek beste komunikatu bat eman behar izan zuten “erbestean dauden zenbait sektore nazionalista immobilisten” “gezur, zurrumurruru, albiste anbiguoak” aurre egiteko. Ikus Fernández Soldevilla eta Domínguez Iribarren (2018: 108).

<sup>120</sup> Adibide berriena Iñaki Egaña Sevilla (2011: 456-459) eta honen artikulua dira: «Cómo se construye una mentira», *Gara*, 2010-II-12, «Memoricidio», *Gara*, 2010-XII-4, «Begoña Urroz, la Policía Española estaba infiltrada en los comandos que pusieron las bombas», *Gara*, 2010-XII-18, eta «¿Son iguales todas las víctimas?», *Gara*, 2011-X-30. Haren lanaren kalitate eta asmoei buruz, ikus Fernández (2018a).

ikerketak beti zuzendu ziren Direktoriorantz. Susmagarri bakarrak izan ziren<sup>121</sup>. Diktadura frankistak lagundutako bandera faltsuko operazioak izan ote ziren, ez dago horren inolako frogarik ezta ere. DRILa ez zen izan trama gorri edo beltz baten fruitua. Aitzitik, benetan existitu zen, eta haren kideek beren erabaki propioak hartu zituzten<sup>122</sup>.

Dokumentazioak ziurtatzen duenez, Agustín Parradas Habanako enbaxada frankistarekin elkarlanean aritu zen 1959ko apirilean, Direktorioaren eraketa baino lehen. Ez dakigu ondoren horretan jarraitu ote zuen. Gudarosteko Estatu Nagusiko Bigarren Sekzioaren idatzi bat aurkitu dugu baita ere, honako hau agerian jartzen duena: 1961eko urrian Eduardo Rodríguez Rueda delako bat prest egon zen “Galvãooren erakundean bete-betea sartzeko, erakundeko kideek uste osoa baitzuten Espainiatik arrazoi politikoak direla eta ihes egin zuela. Berentzat lan egin nahi ote duen iradoki diote, baita, une jakin batean, Espainian zenbait norbanakoren ondoan gestio batzuk —aldez aurretik emango dioten pasaporte baten laguntzaz— egin nahi ote dituen ere. Gestioak amaitu ostean, Tangerretik doala abisatuko luke”<sup>123</sup>. Ordurako, Galvãoak eta bere gizonak DRILa utzia zuten dagoeneko. Bi data horien artean, taldea jardunean egon zen artean, konfidenterik egon ote zen, ez dago horren inolako arrastorik. Ezin dugu baztertu polizia frankistak eta/edo salazaristak informatzaileak edukitzea, Direktorioaren barruan edo haren ingurumarietan. Azken batean, zeregin mota horiek beren eginkizunaren zati ziren. Hala ere, ez dago horri dagokion ebidentziarik. Eta historiagileek horiekin lan egiten dugu, ez usteekin. Ondorioz, kontrakoa dioen dokumentaziorik agertu ezean, alde batera utzi behar ditugu.

Besteak beste, Abderramán Muley Moré (*Manuel Rojas*), Santiago Martínez Donoso eta Arturo González-Mata Lledó diktadura frankistaren kolaboratzaile

---

<sup>121</sup> Gainera, bi herrialdeetako agintariak bazekiten alderdi komunistek behin eta berriz esan zutela ez zeukatela inolako zerikusirik atentatuekin, ezta DRILekin ere («Carta del embajador en Lisboa al Ministerio de Asuntos Exteriores», Lisboa, 1960-VIII-23, NUAN, 139/647 kutxa).

<sup>122</sup> Gerora, probokazio polizialtzat jo izan dira ETaren, FRAPren (Frente Revolucionario Antifascista y Patriota), GRAPOkoen (Grupos de Resistencia Antifascista Primero de Octubre) edo beste talde terroristen atentatu jakin batzuk. Antzeko zerbait gertatu zen Italian Brigada Gorriekin. Nahiz eta talde horiek beren lerroetan infiltratuak eta Poliziaren kolaboratzaileak izan, ez dago zantzurik agente horiek agente probokatzaile gisa jardun zutenik, baizik eta informatzaile gisa. Bestalde, ez da falta izan agintariak lagundutako trama beltzak ikusi ordez, trama gorriak ikusi dituenik ere. Adibidez, jada prentsa frankistak esku artean erabili zuen hipotesi baten arabera, PNVren sektore batek SESBen tresna huts bat izatea leporatu zion ETari. Ikus Fernández Soldevilla (2016: 275).

<sup>123</sup> Gudarosteko Estatu Nagusiko Bigarren Sekzioaren idatzia, Afrikako Iparraldeko Gudarostea, 2429 zkia., 1961-X-25, AAMN, 21.802 kutxa.

gisa markatuak izan dira, edo bestela Ikerketa Sozialeko Brigadako inspektore gisa edo are AEBko Gobernuaren isilpeko agente gisa. Arerioen edo kide ohi batzuen salaketak kenduta, nabariki etsaitasunezkoak, ez dago hori berrets dezakeen ezer. Ikerketa luze baten ondotik, ez da lorratz fidagarri bakar bat ere aurkitu. Are gehiago, kontrakoa gertatu da: aztarnek libratu egin dituzte. Adibidez, Liejako atxiloketen ardura Muleyri eta Eloy Gutiérrez Menoyori egotzi izan zaizkie. Hala ere, Portugalgo Serviços de Informação ezkutuko txosten baten arabera, Frantziako Poliziak eta Portugalgoak, hurrenez hurren, Gutiérrez Menoyok Europan zehar egindako mugimenduak zaindu zituzten. Abuztuaren 6an Polizia judizialak espainiar familien dozena bat bizileku miatu zuen. DRILEko buruzagiak haietako batean zeuden, José Antonio Domínguezenean. Instrukzio-epaile batek, Muraille delako batek, galdeketa egin zien. *“É assim que se soube que a ideia do apresamento do “Santa Maria”, nasce uma prisão Sanint Leonard, onde os referidos indivíduos foram recolhidos até a su expulsão do território”*. Geroago, erbestean, hasierako zalantzazko epealdiaren ondotik, Eloy Gutiérrez Menoyo AEBtako zerbitzu sekretuekin elkarlanean aritu zen, baina DRILEkin izandako harreman laburrean zehar ere elkarlanean aritu ote zen, ez dugu horren frogarik<sup>124</sup>.

Iturri diplomatikoen agerian jartzen dutenez, Santiago Martínez Donoso ez zen agintariekin elkarlanean aritu. Bai aritu zela haren aita, Manuel Martínez Álvarez, Kuban zegoen Iberiako langile bat. Espainiak Habanan zuen enbaxadarekin topaketak izan zituen, baina soilik bere semea DRILen Madrileko atentatuatan nahastuta zegoela jakin ostean. Edozein kasutan, zehazgabetasunak baino ez zituen eman<sup>125</sup>.

<sup>124</sup> Erreserbatua, 1962-IV-2, AD. «Caso do Santa Maria», 1961, [http://hdl.handle.net/11002/fms\\_dc\\_79386](http://hdl.handle.net/11002/fms_dc_79386). <https://gaizkafernandez.com/2014/01/24/mapa-del-terror-de-covite/> web orriari egindako iruzkinetan Abderramán Muleyren semearen lekukotza irakur daiteke.

<sup>125</sup> «Telegrama del Encargado de Negocios La Habana al Ministerio de Asuntos Exteriores», 1960-II-29, FFFN, 4365 biribilkia. «Telegrama del Encargado de Negocios de España al Ministro de Asuntos Exteriores», 1960-III-9, FFFN, 4356 biribilkia. <https://helenasubirats.blogspot.com/2014/10/dril-ceremonia-de-la-confusion.html> Litekeena da AEBetan zegoen enbaxadore frankista, Mariano de Yturralde, Santiago Martínezi buruz aritzea Fernández izeneko norbait aipatu zuenean, zeina Habanan Iberiarentzat lan egiten zuen morroi baten semea baitzen. Erbesteratutako informatzaile castrista baten (¿Eloy Gutiérrez Menoyo?) arabera, Fernández 1960ko bonben egileetako bat izan zen. Une horretan Habanara bidean omen zegoen, non harrera hotz bat izan zuen, bere burua salbatzea DRILen misioaren aurretik jarri baitzuen (benetan salaketa hori egin zioten Santiago Martínezi Madriletik ihes egin zuela eta). Yturraldek haren atsekabea baliatzea iradoki zuen, kolaboratzaile gisa erakartzeko. Ez dakigu norabide horretan urratsik eman ote zuten, oharrak ordu arte halakorik gertatu ez zela adierazten duela dirudien arren. Dena den, erbesteratu kubatar honen lekukotza fidagarritasun

Ahaidetasunarekin izandako beste errakuntza batek Arturo González-Mata Lledóri eragin zion. Luis Manuel González-Mata Lledó (*Cisne*) espia frankistaren abizen berbera zuenez, anaiak zirela uste izan zuten, eta, halaber, ugazaba berarentzat lan egiten zutela, diktaduraren zerbitzu sekretuentzat alegia. Hala ere, *Cisneren* oroitzapenak irakurtzeko lana hartzen duen edonor ohartuko da Arturo ez zela haren anaia, haren lehengusua baizik, DRILEko kide zena eta ideologia anarkista zuena. Luis Manuel González-Matak berak 1963ko abuztuan aitortu bezala, Frantzia bere lehengusu Arturori iruzur egin zion —azken honek ez baitzekien norentzat ari zen bere lehengusua lanean— Direktorioarekin harremanetan sartzeko eta haren kideak txanpona faltsutzen saiatzeko ari ote ziren jakiteko. Ez dago gehiago<sup>126</sup>. 1908an Gilbert K. Chesterton idazleak bere leberri ezagunenetako bat argitaratu zuen, *Ostegun izan zen gizona*. Tramari dagokionez, Scotland Yardeko sekzio berezi bateko arduradun anonimoak Gabriel Syme izeneko poeta bat errekrutatzen du zibilizazioa suntsitzeko asmoa duen talde terrorista batean infiltratzeko. Zorte kolpe bati eta bere hitzaldi sutu bati esker, bertako zelulak Kontseilu Anarkista Nagusiko zazpi kideetako bat bezala izendatzen du protagonista. Dena den, zenbait peripeziaren ostean, Kontseiluko beste sei buruzagietako bost isilpeko agenteak direla jakitea lortuko du Symek (*Ostegun ezizenarekin*). Antzaenez, benetako terrorista bakarra dago haien artean. Baina benetan terrorista al da? Amaierako norabide aldaketa itzel batean, konspirazioaren buruzagi nagusia, *Igande*, infiltratu polizialak errekrutatu zituen Scotland Yardeko goi kargua dela jakitea lortuko dute sei satorrek. *Ostegun izan zen gizona* lan bikaina da, fikziozkoa baina. Hala ere, haren argumentuak DRILEn konspirazioari buruzko teoriaren antz handia dauka, ETAREN zenbait apologistek defendatzen dutena. Froga irmorik gabe defendatzen dute, artxibo lanik gabe eta iturriak egiaztatu gabe, alde batera uzten baitute historialariaren metodologia zientifikoa, lanbide hori mespretxatzen dutelako. Besterik gabe, isilpeko agenteen hipotesia komenigarriagoa da milaka urteko “euskal gatazka” bati buruzko beren kontakizunarentzat. Horri esker, erruduntasun transferentzia baldar bat egiten dute<sup>127</sup>: benetako egileak atentatuetatik (eta haien ondorioetatik) salbuetsi, eta

gutxikoa da. Adibidez, erbesteratu horrek zioenez, 1959 eta 1960 urteen artean DRILEk hiru kontrabando-karga sartu zituen Europako Mendiak mendilerroan, eta horietako bakoitzak 200 tona arma eta lehergai zituen («Carta del embajador de España en Washington al ministro de Asuntos Exteriores», 1961-VII-21, AAN, 82/20923 kutxa).

<sup>126</sup> González-Mata Lledó (1977: 153-160 eta 211).

<sup>127</sup> Tugwellen (1985: 74) arabera, “erruduntasun transferentzia” “arreta publikoaren desbideraketa bat” da. “Arreta publiko gatazka hasi zuen horren ekintza konprometigarrietatik alden, eta arerioarenetara zuzentzen da, lehenarenak ahaztuak edo barkatuak izan daitezten, eta bigarrenaren ekintzek alde horren konfiantza eta legitimitatea higa dezaten (...) Baina propagandaren jardura bere goenera heltzen denean, erruduntasun



Francoren diktaduraren kontuari bizkarreratzen dizkiote. Propagandista horien asmoa ez da bakarrik Begoña Urrozen infantizidioa bezalako krimen gorrotagarri bat ETaren historialetik ezabatzea, baita taldeak indarkeria terroristaren alde gerora egindako hautua justifikatzea ere. Hein batean, operazioak ETaren eta bere inguruaren antzeko beste batzuk gogorarazten ditu, eta, hainbat kasutan, atentatuak onartzeari uko egin diote (hiru langile galiziarren desagertzea 1973ko martxoan, edo Correo kaleko sarraskia 1974ko irailean, hamahiru biktima mortal eragin zituen); agintarien ustezko zabarkeriaz baliatu dira (Barajaseko aireportuko bonbak eta Chamartín eta Atochako tren geltokietakoak 1979ko uztailean, zazpi hildakorekin, edo Hiperkorreko triskantza 1987ko ekainean, hogeita bat biktima mortalekin); edo polizia-agenteak egin dituzte beren okerkerien erantzule. Adibidez, ETaren propagandak Guardia Zibilari egotzi zion Fermín Monasterio Pérezen (Arrigorriaga, 1969ko apirilak 9) hilketa, baina benetako hiltzailea erakundeko kide bat izan zen, Miguel Etxeberria Iztueta (*Macagüen*)<sup>128</sup>. Jakina, erruduntasunaren transferentzia hori ez da euskal nazionalismo erradikalaren monopolioa: hor daude, esaterako, zenbait atentatu yihadisten inguruko konspirazio-teoriak, FRAPen eta GRAPOn inguruko burutapenei buruz ez hitz egitearren. Kontakizun morbosoki liluragarriak dira, zenbaitetan ondo asmatuak, baina ez dute loturarik errealitate historikoarekin. Ez daude gertaeren gainean eraikiak. Bestela esanda, konspiranoikoak gezurretan ari direla frogatzen dute iturriek. Jakina, ebidentzia ororen aurka, ETA Amarako atentatuarekin lotzen jarraitzen dutenak kategoria horretan sartu behar ditugu baita ere.

*Nota bene.* Kontua da ahalik eta zorroztasun handienarekin historia egitea, lanbidearen arauak errespetatuz, eta ez Abderramán Muley Moré, Santiago Martínez Donoso edo Arturo González-Mata Lledóren biografiak zuritzea. Pertsonaia horiek gezurrezko arrazoiekin lohitu dituzten arren, ez dugu inoiz bistatik galdu behar Direktorioak 1960an zehar burutu zuen jarduera terroristan zeregin nabarmena izan zutela. Eta jarduera horrengatik inork ez du inoiz barkamenik eskatu.

transferentzia urrutiago doa: jatorrizko ekintza justifikatu eta eraldatu egiten du, erantzukizun psikologiko izatetik garaipen izateraino; aldi berean, arerioaren ekintzei beren zuzentasun moral eta onura praktikoa kentzen zaie.

<sup>128</sup> Jiménez Ramos (2018a).

## ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

### Artxiboak

EuskoTren/Trenaren Euskal Museoa Artxiboa  
Administrazioaren Artxibo Nagusia  
Nafarroako Unibertsitateko Artxibo Nagusia  
Defentsako Artxibo Orokor eta Historikoa  
Avilako Artxibo Militar Nagusia  
Madrilgo Trenaren Museoaren Artxibo Historiko Ferrobiarioa  
Artxibo Historiko Nazionala  
Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala  
Betanzoseko Udal Artxiboa  
Arquivo da Emigración Galega  
Arquivo Diplomático  
Arquivo Nacional da Torre do Tombo  
Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa  
*El País*  
Francisco Franco Fundazioa  
43 zenbakidun Lurraldeko Epaitegi Togadun Militarra  
Madrilgo Trenaren Museoa

### Bibliografia

- ÁGUILA, Juan José del (2001): *El TOP. La represión de la libertad*. Bartzelona: Planeta.
- AIZPURU, Mikel (2016): «¿El primer informe policial sobre ETA? Los archivos franquistas como fuente para la investigación histórica», *Sancho el Sabio*, 39. zkia., 223-251 orr..
- ALBEROLA, Octavio eta GRANSAC, Ariane (1975): *El anarquismo español y la acción revolucionaria. 1961-74*. Paris: Ruedo Ibérico. (Berrargit.: 2004, Virus editorial).
- ALIJA, Adela M. (2008): «La diplomacia española y “los rojos” en Cuba. La contrapropaganda (1959-1960)», en *Actas del IX Congreso de la Asociación de Historia Contemporánea*.
- ALONSO, Martín (2012): «Conclusiones. Una política pública para una memoria democrática», ALONSO, Martín-en (koord.): *El lugar de la memoria. La huella del mal como pedagogía democrática*. Bilbo: Bakeaz, 189-198 orr..

- ALONSO, Rogelio, DOMÍNGUEZ IRIBARREN, Florencio eta GARCÍA, Marcos (2010): *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*. Madril: Espasa.
- ALTED, Alicia (2005): *La voz de los vencidos. El exilio republicano de 1939*. Madril: Aguilar.
- ÁLVAREZ, Santiago (1994): *Memorias. La larga marcha de una lucha sin cuartel (1954-1972)*. Coruña: Edicios do Castro.
- ARTEAGA, Federico de (1971): *ETA y el proceso de Burgos*. Madril: E. Aguado.
- AUB, Elena (1992): *Historia del ME/59. Una última ilusión*. Mexiko: Consejo Nacional para la Cultura y las Artes-Instituto Nacional de Antropología e Historia.
- AZCONA, José Manuel eta RE, Matteo (2015): *Guerrilleros, terroristas y revolución (1959-1988). Identidad marxista y violencia política de ETA, Brigadas Rojas, Tupamaros y Montoneros*. Zizur Txikia: Aranzadi.
- BATISTA, Antoni (2015): *Matar a Franco. Los atentados contra el dictador*. Barzelona: Debate.
- CABEZA SÁNCHEZ-ALBORNOZ, Sonsoles (1999): «La oposición democrática a las dictaduras ibéricas (1940-1965)», *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 21. zkia., 295-316 orr..
- CAMPOS ÁLVAREZ, Xosé Ramón (2001): «O papel dos exiliados na evolución do asociacionismo galego en Venezuela (1940-1960)», en *Actas do Congreso Internacional «O exilio galego»-n*, 615-636 orr..
- CARRIÓN, Gabriel (2002): *ETA en los archivos secretos de la policía política de Franco 1952-1969*. Madril: Agua Clara.
- CASTRO, Pedro Jorge (2010). *O inimigo nº 1 de Salazar: Henrique Galvão, o líder do ataque ao Santa Maria e do sequestro do avião da TAP*. Lisboa: Esfera dos Livros.
- CASTRO MORAL, Lorenzo (argitaragabea): «Retablo de conspiradores. El exilio republicano y la tentación de la violencia (1958-1964)».
- CATALÁN DEUS, José (2015): *De FRAP a Podemos. Crónica de medio siglo*. Sarrion: Muñoz Moya editores, I. alea.
- CIBRIÁN, Ramiro (2015): *Nacionalismo, violencia política y la ciudad democrática. San Sebastián, 1977-2012*. Autoedizioa.
- CORBACHO, Antón (2009): *A aculturação e os galegos do Brasil: o vazio galeguista*. Santiago de Compostelako Unibertsitatea. Doktorego-tesia.
- CRENSHAW, Martha (1981): «The Causes of Terrorism», *Comparative Politics*, 13. zkia., 379-399 orr..
- CRENSHAW, Martha (2011): *Explaining Terrorism: Causes, Processes, and Consequences*. Londres eta New York: Routledge.
- CUESTA, Cristina (2000): *Contra el olvido*. Madril: Temas de Hoy.

- DEBRAY, Laurence (2018): *Hija de revolucionarios*. Bartzelona: Anagrama.
- DOMÍNGUEZ IRIBARREN, Florencio (2003): *Las raíces del miedo. Euskadi, una sociedad atemorizada*. Madril: Aguilar.
- DOMÍNGUEZ IRIBARREN, Florencio (2017): «Las claves de la derrota de ETA», *Informe del Centro Memorial de las Víctimas del Terrorismo*, 3. zkia..
- EDO, Luis Andrés (2006): *La CNT en la encrucijada. Aventuras de un heterodoxo*. Bartzelona: Flor del Viento Ediciones.
- EGAÑA SEVILLA, Iñaki (2011): *El franquismo en Euskal Herria. La solución final*. Andoain: Euskal Memoria Fundazioa.
- ERICE, Francisco (2017): *Militancia clandestina y represión. La dictadura franquista contra la subversión comunista (1956-1963)*. Xixon: Trea.
- ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.) (2010): *Violencia roja y azul. España, 1936-1950*. Bartzelona: Crítica.
- ESTORNÉS ZUBIZARRETA, Idoia (2013): *Cómo pudo pasarnos esto. Crónica de una chica de los 60*. Donostia: Erein.
- ETXEBERRIA, Xabier (2012): «Por un centro de la memoria de las víctimas en el País Vasco», ALONSO, Martín-en (koord.): *El lugar de la memoria. La huella del mal como pedagogía democrática*. Bilbo: Bakeaz, 33-49 orr..
- FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka eta LÓPEZ ROMO, Raúl (2012): *Sangre, votos, manifestaciones. ETA y el nacionalismo vasco radical (1958-2011)*. Madril: Tecnos.
- FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka (2016): *La voluntad del gudari. Génesis y metástasis de la violencia de ETA*. Madril: Tecnos.
- FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka (2017): «Otoño del 59. Los “primeros pinitos” de ETA», *Grand Place*, 8. zkia., 197-207 orr..
- FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka (2018a): «La verdad sobre el caso Batarrita. Dictadura, propaganda y microhistoria en el País Vasco», *Hispania*, 16. zkia., 261-292 orr..
- FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka (2018b): «1961, la primera operación policial contra ETA», *Quadernos de criminología*, 40. zkia., 26-31 orr..
- FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka eta DOMÍNGUEZ IRIBARREN, Florencio (koord.) (2018): *Pardines. Cuando ETA empezó a matar*. Madril: Tecnos.
- FERNÁNDEZ VÁZQUEZ, José Fernando (1978): *Yo robé el Santa María*. Madril: Akal. (Edizio galegoa: 2010, Labirinto de Letras).
- FONSECA, Carlos (1998): *Garrote vil para dos inocentes. El caso Delgado-Granado*. Madril: Temas de Hoy
- FRANCO SALGADO-ARAUJO, Francisco (1976): *Mis conversaciones privadas con Franco*. Bartzelona: Planeta.
- GALVÃO, Henrique (1974): *O assalto ao «Santa Maria»*. Lisboa: Edições Delfos.
- GARCÍA ALCALÁ, Julio Antonio (1992): «La revolución armada y el frente de liberación popular», TRUJILLANO SÁNCHEZ, José Manuel-en (koord.):

- Historia y Fuentes Orales: Memoria y sociedad en la España Contemporánea: actas III Jornadas*. Avila, 207-218 orr..
- GARCÍA ALCALÁ, Julio Antonio (1997): *Un modelo de oposición al franquismo. Las organizaciones frente (FLP-FOC-ESBA)*. Madrilgo Complutense Unibertsitatea, II. liburukia. Doktorego-tesia.
- GARCÍA RICO, Eduardo (1998): *Queríamos la revolución*. Bartzelona: Flor del Viento.
- GONZÁLEZ CALLEJA, Eduardo (2013): *El laboratorio del miedo. Una historia general del terrorismo, de los sicarios a Al Qu'ida*. Bartzelona: Crítica.
- GONZÁLEZ-MATA LLEDÓ, Luis Manuel (1977): *Cisne. «Yo fui espía de Franco»*. Bartzelona: Argos.
- GROSSMAN, Vasili (2014): *El infierno de Treblinka*. Bartzelona: Galaxia Gutenberg.
- GUERRERO LUCAS, Jacinto (1979): *Contra esto y aquello*. Bartzelona: Ediciones Picazo.
- GURUCHARRI, Salvador eta IBÁÑEZ, Tomás (2010): *Insurgencia libertaria. Las Juventudes Libertarias en la lucha contra el franquismo*. Bartzelona: Virus.
- HERNÁNDEZ SÁNCHEZ, Fernando (2005): «Entre la vieja y la nueva izquierda armada: de la Unión de Combatientes Españoles al Movimiento por la IIIª República (1956-1967)», *Espacio, tiempo y forma. Serie V, Historia contemporánea*, 17. zkia., 311-324 orr..
- HERRERÍN LÓPEZ, Ángel (2004): *La CNT durante el franquismo. Clandestinidad y exilio (1939-1975)*. Madril: Siglo XXI.
- HERRERÍN LÓPEZ, Ángel (2006): «Defensa Interior: el fin de la violencia libertaria», MATEOS, Abdón eta HERRERÍN LÓPEZ, Ángel-en (koord.): *La España del presente: de la dictadura a la democracia*. Madril: Asociación Historiadores del Presente, 25-38 orr..
- HORDAGO, Equipo (1979-1981): *Documentos Y*. Donostia: Hordago, 18 liburuki.
- HOSODA, Haruko (2010): «The Franco regime's influence on Cuba, 1959-1975», *International Journal of Cuban Studies*, 2. lib., 1/2 zkia., 50-61 orr..
- HUALDE AMUNÁRRIZ, Xabier (2012): *El «cerco aliado». Estados Unidos, Gran Bretaña y Francia frente a la dictadura franquista (1945-1953)*. UPV/EHU. Doktorego-tesia.
- JÁUREGUI, Gurutz (1981): *Ideología y estrategia política de ETA*. Madril: Siglo XXI.
- JIMÉNEZ RAMOS, María (2017a): «Escribir sobre las víctimas: la bibliografía dedicada a los asesinados por ETA», *e-Eguzkilore*, 2. zkia..
- JIMÉNEZ RAMOS, María (2017b): «ETA: de la barbarie terrorista al reto de escribir el relato», *Cuadernos del Centro Memorial de las Víctimas del Terrorismo*, 4. zkia., 54-72 orr..

- JIMÉNEZ RAMOS, María (2018a): «Las primeras víctimas de ETA», FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka eta DOMÍNGUEZ IRIBARREN, Florencio-n (koord.): *Pardines. Cuando ETA empezó a matar*. Madril: Tecnos, 271-309 orr..
- JIMÉNEZ RAMOS, María (2018b): *El valor del testimonio. Aportaciones de las víctimas de ETA al relato y a la sensibilización de la sociedad*. Nafarroako Unibertsitatea. Doktorego-tesia.
- JIMÉNEZ RAMOS, María eta MARRODÁN CIORDIA, Javier (2019): *Heridos y olvidados. Los supervivientes del terrorismo en España*. Madril: La Esfera de los Libros
- JIMENEZ REDONDO, Juan Carlos (1996): *El ocaso de la amistad entre las dictaduras ibéricas (1955-1968)*. Merida: UNED.
- JIMÉNEZ REDONDO, Juan Carlos (2003): *El otro caso Humberto Delgado. Archivos policiales y de información*. Merida: Extremadurako Junta.
- JULIÁ, Santos (2017): *Transición. Historia de una política española (1937-2017)*. Bartzelona: Galaxia Gutenberg.
- LETAMENDIA, Francisco (1994): *Historia del nacionalismo vasco y de ETA. Tomo I. ETA en el franquismo*. Donostia: R&B Ediciones.
- LLERA RAMO, Francisco José eta LEONISIO, Rafael (2017): «La estrategia del miedo. ETA y la espiral de silencio en el País Vasco», *Informe del Centro Memorial de las Víctimas del Terrorismo*, 1 zkia..
- LÓPEZ CORRAL, Miguel (2009): *La Guardia Civil. Claves históricas para entender a la Benemérita y a sus hombres*. Madril: La Esfera de los Libros.
- LÓPEZ CORRAL, Miguel (2010): «La Guardia Civil de Franco», *Cuadernos de la Guardia Civil*, 42. zkia., 13-33 orr..
- LÓPEZ ROMO, Raúl (2015): *Informe Foronda: los efectos del terrorismo en la sociedad vasca (1968-2010)*. Madril: Los Libros de la Catarata.
- LÓPEZ ROMO, Raúl (2018a): «Pardines: (des)memoria de un asesinato», en FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka eta DOMÍNGUEZ IRIBARREN, Florencio-n (koord.): *Pardines. Cuando ETA empezó a matar*. Madril: Tecnos, 129-149 orr..
- LÓPEZ ROMO, Raúl (ed.) (2018b): *Memorias del terrorismo en España*. Madril: Los Libros de la Catarata.
- LUENGO TEIXIDOR, Félix (2018): «Franco en San Sebastián», *Cuadernos de Alzate*, 50-51 zkiak., 201-218 orr..
- MARTÍNEZ DHIER, Alejandro (2016): «La legislación antiterrorista en la historia de nuestro derecho. España y el fenómeno terrorista en los siglos XIX y XX», *Anales de Derecho*, 34. lib., 2. zkia..
- MARTIZ CRESPO, Xurxo (2016): «Xosé Velo e o Directorio Revolucionario de Liberación (DRIL)», *Murguía*, 33. zkia., 21-35 orr..
- MATE, Manuel Reyes (2006): *Justicia de las víctimas y reconciliación en el País*

- Vasco. Documento de trabajo de la Fundación Alternativas.
- MATE, Manuel Reyes (2013): *La piedra desechada*. Madrid: Trotta.
- MATE, Manuel Reyes (2018): *El tiempo, tribunal de la historia*. Madrid: Trotta.
- MATEOS LÓPEZ, Abdón (koord.) (2008): *La España de los cincuenta*. Madrid: Eneida.
- MATOS FERREIRA, Ana Sofia de (2015): *Luta Armada em Portugal (1970-1974)*. Universidade Nova de Lisboa. Doktorego-tesia.
- MONREAL, Manuel (1961): *Bayo, España y la libertad*. Habana: Capitolio Nacional.
- MONTANYÀ ATOCHE, Xavier (2004): *Pirates de la llibertat*. Bartzelona: Empúries.
- MORADIELLOS, Enrique (2018): *Franco. Anatomía de un dictador*. Madrid: Turner.
- MOREIRA ANTÃO, Nelson eta GONÇALVES TAVARES, Célia (2008): «Henrique Galvão e o assalto ao Santa Maria. Percurso de uma dissidência do Estado Novo e suas repercussões internacionais», *Sapiens*, 0. zkia., 84-110. orr..
- MORTÁGUA, Camilo (2009): *Andanças para a Liberdade*. Lisboa: Esfera do Caos, 1. lib..
- MOTA, Francisco Teixeira (2011). *Henrique Galvão: Um Heroi Português*. Alfragide: Oficina do Livro.
- MOTA ZURDO, David (2016): *Un sueño americano: el Gobierno Vasco en el exilio y Estados Unidos (1937-1979)*. Oñati: IVAP.
- MUÑOZ ALONSO, Alejandro (1982): *El terrorismo en España*. Bartzelona: Planeta.
- MUÑOZ SORO, Javier eta BABY, Sophie (2005): «El discurso de la violencia en la izquierda durante el último franquismo y la transición, 1968-1982», MUÑOZ SORO, Javier, LEDESMA, José Luis eta RODRIGO, Javier-en (koord.): *Culturas y políticas de la violencia: España, siglo XX*. Madrid: Siete Mares, 279-304 orr..
- MURO, Diego (ed.) (2018): *When Does Terrorism Work?* New York: Routledge.
- NÚÑEZ, Luis (koord.) (1993): *Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la Libertad*. Tafalla: Txalaparta, 1. lib..
- ORTIZ HERAS, Manuel (2008): «Control social y represión en la dictadura franquista», MATEOS LÓPEZ, Abdón-en (koord.): *La España de los cincuenta*. Madrid: Eneida, 15-44 orr..
- PABLO, Santiago de, MEES, Ludger eta RODRÍGUEZ RANZ, José Antonio (2001): *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco. II: 1936-1979*. Bartzelona: Crítica.
- PABLO, Santiago de (2018): «Tiempo de contrastes. El País Vasco en la década de 1960», FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, Gaizka y DOMÍNGUEZ IRIBARREN, Florencio-n (koord.): *Pardines. Cuando ETA empezó a matar*. Madrid: Tecnos, 39-75 orr..





- PAGOLA, José Antonio (1992): *Una ética para la paz: los obispos del País Vasco (1968-1992)*. Donostia: Idatz.
- PARDO SANZ, Rosa María (2007): «La política norteamericana de Castiella», OREJA AGUIRRE, Marcelino eta SÁNCHEZ MANTERO, Rafael-en (ed.): *Entre la historia y la memoria: Fernando María Castiella y la política exterior de España (1957-1969)*. Madril: Real Academia de Ciencias Morales y Políticas, 307-382 orr.
- PAZ SÁNCHEZ, Manuel de (1997): *Zona rebelde. La diplomacia española ante la revolución cubana (1957-1960)*. Santa Cruz Tenerifekoa: Centro de la Cultura Popular Canaria.
- PAZ SÁNCHEZ, Manuel de (2001): *Zona de guerra. España y la revolución cubana (1960-1962)*. Tenerife: Centro de la Cultura Popular Canaria.
- PAZ SÁNCHEZ, Manuel de (2006a): *Franco y Cuba. Estudios sobre España y la Revolución*. Santa Cruz Tenerifekoa: Idea.
- PAZ SÁNCHEZ, Manuel de (2006b): «El secuestro del “Santa María”: Una página de la historia de la migración canario-venezolana», *Tebeto*, 19. zkia., 187-196 orr.
- PEDRO, Edmundo (2011): *Memórias. Um combate pela liberdade*. Lisboa: Âncora, II. lib.
- PIÑERO, Antonio (2000): *Pepe Velo, pensador, soñador e mestre revolucionario*. Vigo: Edicións Xerais de Galicia.
- PRIESTLAND, David (2010): *Bandera roja. Historia política y cultural del comunismo*. Bartzelona: Crítica.
- PRIETO SOLANES, Mauricio (1965): *Las escuelas terroristas de Toulouse*. Bartzelona: Rodegar.
- RABY, Dawn Linda (1990): *A Resistência Antifascista em Portugal (1941-1974)*. Lisboa: Salamandra.
- RABY, Dawn Linda (1995): «O DRIL (1959-61). Uma experiência única de oposição ao Estado Novo», *Penélope*, 16. zkia., 63-86 orr.
- RAMOS, Ramón (2013): *¡Que vienen los rusos! España renuncia a la Eurocopa 1960 por decisión de Franco*. Granada: Comares.
- RICO, Francisco (1966): *El asalto al «Santa María»*. Caracas: Ediciones FIJL.
- RODRÍGUEZ ARMADA, Amandino eta NOVAIS, José Antonio (1976): *¿Quién mató a Julián Grimau?* Madril: Ediciones 99.
- ROSA, Frederico Delgado (2008): *Humberto Delgado: Biografía do General Sem Medo*. Lisboa: Esfera dos Livros.
- ROSAS, Fernando (2003): «La oposición a la dictadura militar y al Estado Novo (1926-1974). La larga marcha de las izquierdas portuguesas», *Studia Historica. Historia Contemporánea*, 21. zkia., 137-154 orr.
- RUIZ GONZÁLEZ, David (2000): «De la guerrilla a las fábricas. Oposición al



- franquismo del Partido Comunista de España (1948-1962)», *Espacio, tiempo y forma. Serie V, Historia contemporánea*, 13. zkia, 105-124 orr..
- SAINZ GONZÁLEZ, José (1993): *Testimonios de un policía español*. Autoedizioa.
- SÁNCHEZ, Ferrán (2006): *El maquis anarquista*. Lleida: Editorial Milenio.
- SANTIDRIÁN, Víctor Manuel (2000): «O informe da viaxe de Santiago Álvarez por América Latina (5 de outubro de 1960)», *Estudios Migratorios*, 9. zkia, 131-192 orr..
- SANTOS, José Hipólito dos (2011): *Felizmente houve a LUAR. Para a história da luta armada contra a ditadura*. Lisboa: Âncora Editora.
- SANTOS, José Hipólito dos (2012): *A Revolta de Beja*. Lisboa: Âncora Editora.
- SANTOS VARGAS, André Luiz dos (2011): «O Santinho em cuecas: dissidência política de Henrique Galvão em “Carta Aberta a Salazar” (1959)», *Revista Cantareira*, 15. zkia..
- SANTOS VARGAS, André Luiz dos (2016): «O posicionamento político de Henrique Galvão exilado no Brasil (1961-1965)», *Revista Mosaico*, 9. lib., 24-34 orr..
- SERRANO, Secundino (2001): *Maquis. Historia de la guerrilla antifranquista*. Madril: Temas de Hoy.
- SUÁREZ FERNÁNDEZ, Luis (1987): *Franco y la URSS: La diplomacia secreta (1946-1970)*. Madril: Rialp.
- SULLIVAN, John (1988): *El nacionalismo vasco radical, 1959-1986*. Madril: Alianza.
- TUGWELL, Maurice A. J. (1985): «Transferencia de culpabilidad», RAPOPORT, David C.-n (ed.): *La moral del terrorismo*. Bartzelona: Ariel. 73-93. orr...
- VARELA, Raquel (2008): «O assalto ao paquete Santa Maria», PAÇO, António Simões do-n (koord.) (2008): *Os anos de Salazar*. Lisboa: Planeta De Agostini, XVIII. lib..
- VAZ, Luís (2012): *Palma Inácio e o desvio do avião (1961)*. Lisboa: Âncora Editora.
- VELÁZQUEZ HERNÁNDEZ, Aurelio (2015): «El movimiento español 1959: Entre la Revolución cubana y los servicios secretos mexicanos», *Latinoamérica*, 61. lib, 129-156 orr..
- VELO PÉREZ, Víctor (1996): «Xosé Velo e o Santa María», <http://www.fundacionmonchoreboiras.gal/nova/o-directorio-revolucionario-iberico-de-liberacion-dril.html>
- ZAMORA, José A., MATE, Reyes eta MAISO, Jordi (ed.) (2016): *Las víctimas como precio necesario*. Madril: Trotta.
- ZWEIG, Stefan (2001): *Castellio contra Calvino*. Bartzelona: El Acantilado. (1. ed: 1936).

## ERANSKINAK

1960ko otsailean Prado museoaren ingurumarietan aurkitutako bonba



Iturria: Espainia. Defentsa Ministerioa. Defentsako Artxibo Orokor eta Historikoa (DAOH). Funtsa: Justizia Militarra. Muturreko Jardueren Auzitegi Nazional Bereziko 207/1960 zenbakidun kausa. 1421/8 katalogo-zenbakia.


## **Poliziak 1960ko otsailean atzemandako lehergailuak**




Iturria: Espainia. Defentsa Ministerioa. Defentsako Artxibo Orokor eta Historikoa (DAOH). Funtsa: Justizia Militarra. Muturreko Jardueren Auzitegi Nazional Bereziko 207/1960 zenbakidun kausa. 1421/8 katalogo-zenbakia.



## DRILEk 1960ko ekainean ustez erabilitako bonben antzeko planoak





Iturria: Ikerketa Sozialeko Brigadaren informazio-buletina, 1960-VIII-10, AHN, FG-Barne Ministerioa, Polizia, 53101 espedientea.

## Espainiako burdinbideen mapa (1963), 1960ko ekainean leherketak izan ziren lekuekin



Iturria: Madrilgo Trenaren Museoaren Artxibo Historiko Ferroviarioa.



## Amarako geltokia eta Easo plaza (Donostia)



Iturria: <http://www.guregipuzkoa.eus/> (Editorea: Marín).



## **Amarako geltokia (1959)**



Iturria: Madrilgo Trenaren Museoaren Artxibo Historiko Ferrobiarioa (Juan Bautista Caballero).

**Amarako geltokia (1957an eta geroagoko datetan)**





Iturria: EuskoTren/Trenaren Euskal Museoaren Artxibategia.

**Begoña Urroz Ibarrola**



Iturria: *El País*.

**Begoña bere gurasoekin, Juan Urroz eta Jesusa Ibarrolarekin, bere bataioaren egunean**



Iturria: *El País*.

## Gipuzkoako gobernadore zibila Juan Urroz Gragirenari dolumina adierazten



Iturria: *El Diario Vasco*, 1960-VII-1.





**João José do Nascimento Costa**



Iturria: *Diário de Lisboa*, 1961-I-24



## EGILEAK

### Juan Avilés

Historia Garaikideko Katedraduna UNEDen. Ikertzaile Nagusi izan da lau ikerketa proiektutan. Horietako azkena, gaur egun aribidean, “El terrorismo europeo en los años de plomo: un análisis comparativo, 1968-1980” da, Economía eta Lehiakortasun Ministerioak finantzatua. Azken urteotan terrorismo boladen nazioarteko analisi konparatiboan zentratu da. Zortzi ikerketa liburu argitaratu ditu, horien artean berrienak: *La daga y la dinamita: los anarquistas y el nacimiento del terrorismo* (2013) eta *Historia del terrorismo yihadista: de Al Qaeda a Daesh* (2017) eta *Después del 68: la deriva terrorista en Occidente* (2019); baita ikerketako 40 artikulua ere aldizkari eta liburu kolektiboetan, gazteleraz, frantsesez, ingelesez eta italieraz.

### Gaizka Fernández Soldevilla

Deustuko Unibertsitatean Historian lizentziatua (2003) eta Historia Garaikideko doktore Euskal Herriko Unibertsitateagatik (2012), Terrorismoko Biktimen Oroimenerako Zentroaren Agiritegi, Ikerketa eta Dokumentazio Zentroko arduradun gisa ari da lanean. Egile gisa, *Héroes, heterodoxos y traidores. Historia de Euskadiko Ezkerra (1974-1994)* eta *La voluntad del gudari. Génesis y metástasis de la violencia de ETA* argitaratu ditu. Egilekide gisa, *Sangre, votos, manifestaciones. ETA y el nacionalismo vasco radical (1958-2011)* argitaratu du, Raúl López Romorekin batera, eta *La unión de la izquierda vasca. La convergencia PSE-EE*, Sara Hildagorekin batera. *Pardines. Cuando ETA empezó a matar* koordinatu du Florencio Domínguezekin batera.

### Manuel Aguilar Gutiérrez

Informazio Zientzietan lizentziatua Complutenseko Unibertsitateagatik (1986) eta Bibliotekonomian eta Dokumentazioan lizentziatua Universitat Oberta de Catalunyaagatik (2010). Artxiboko eta Dokumentazioko teknikari gisa ari da lanean RTVEko Dokumentu-Funtsan.



# INFORME

DEL CENTRO MEMORIAL DE LAS VÍCTIMAS DEL TERRORISMO

---

1. *La estrategia del miedo. ETA y la espiral del silencio en el País Vasco*  
Francisco J. Llera eta Rafael Leonisio
2. *La sociedad vasca ante la memoria de las víctimas y el final del terrorismo*
3. *Las claves de la derrota de ETA*  
Florencio Domínguez
4. *La yihad de Europa. Desarrollo e impacto del terrorismo yihadista en los países de la Unión Europea (1994-2017)*  
Luis de la Corte Ibáñez
5. *ETA y otras bandas terroristas españolas en el archivo de la Stasi*  
Ibon Zubiaur
6. *Muerte en Amara. La violencia del DRIL a la luz de Begoña Urroz*  
Gaizka Fernández Soldevilla eta Manuel Aguilar Gutiérrez









